eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Irakaslegaiak komunikazio-gaitasunean eta diskurtso akademikoetan trebatzeko bidean

Edu Zelaieta Anta

ISBN: 978-84-9082-159-6

EUSKARAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZAREN SARE ARGITALPENA

Liburu honek UPV/EHUko Euskararen Arloko Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

AURKIBIDEA

0. SARRERA 3

1. TESTUAK ETA DISKURTSOAK AZTERTZEKO NAHIZ EKOIZTEKO OINARRIZKO KONTZEPTUAK 7

1.1. Aurkezpena, egitura eta helburuak 9

1.2. Gaitasunak eta edukiak hausnarrean girotzen 10

1.3. Benetako arazo bat: alfabetatze akademikoa 11

1.4. Komunikazio-gaitasuna eta testu-erregelak 12

1.4.1. Kontzeptuaren sorrera, definizioa eta bilakaera 12

1.4.2. Komunikazio-gaitasuna osatzen duten atalak: azpigaitasunak 15

1.4.3. Testu-erregelak: komunikazioaren berme 17

1.5. Diskurtsoaren analisia 24

1.5.1. Ahozko eta idatzizko komunikazioa 24

1.5.2. Diskurtsoaren nozioa eta genero diskurtsiboak 25

1.5.3. Diskurtsoaren analisia: ideologia irakurtzeko tresna ahaltsua 28

1.6. Komunikazioan trebatzen segitzeko ariketa eta galdera gehiago 35

2. ESPARRU AKADEMIKOKO TESTUAK: AZALPENA ETA ARGUDIATZEA 39

2.1. AZALPEN AKADEMIKOA 39

2.1.1.Aurkezpena, egitura eta helburuak 41

2.1.2. Gaitasunak eta edukiak hausnarrean girotzen 42

2.1.3. Azalpen akademikoaren ezaugarriak 43

2.1.4. Azaltzeko estrategia komunikatibo nagusiak 46

2.1.4.1. Egituraren esplizitazioa (sarreran) 47

2.1.4.2. Testu-antolatzaileak ondo baliatzea 48

2.1.4.3. Azalpenari amaiera ona ematea: epilogo komunikatiboa 48

2.1.4.4. Komunikazioaren giltza: interakzioa zaintzea 49

2.1.4.5. Informazio-dentsitatea erregulatzea 57

2.1.5. Testua eratzeko ezinbesteko bi osagai: paragrafoa eta esaldia 59

2.1.5.1. Paragrafoak 59

2.1.5.2. Esaldiak 61

2.1.6. Testua idazteko hiru aldiak: planifikatu, testuratu, errebisatu 62
2.1.6.1. Planifikatu 62
2.1.6.2. Testuratu 63
2.1.6.3. Errebisatu 63
2.1.7. Azalpen-ereduak aztertzen eta akatsen erabilera didaktikoa egiten 64
2.1.8. Komunikazioan trebatzen segitzeko ariketa eta galdera gehiago 71

2.2. ARGUDIATZE AKADEMIKOA 74
2.2.1. Aurkezpena, egitura eta helburuak 76
2.2.2. Gaitasunak eta edukiak hausnarrean girotzen 77
2.2.3. Argudiatze akademikoaren ezaugarriak 77
2.2.4. Argudio eta falazia mota nagusiak 79
2.2.5. Besteen iritziekin jokatzeko estrategiak: kontraargudioak 82
2.2.6. Ahozko interakzioa orekatzen: adeitasun arauak 83
2.2.7. Erretorika klasikoaren bost faseak: *inventio*, *dispositio*, *elocutio*, *memoria* eta *actio* 86
2.2.7.1. *Inventio* 86
2.2.7.2. *Dispositio* 88
2.2.7.3. *Elocutio* 90
2.2.7.4. *Memoria* 93
2.2.7.5. *Actio* 94
2.2.8. Debate-ereduak aztertzen eta akatsen erabilera didaktikoa egiten 96
2.2.9. Komunikazioan trebatzen segitzeko ariketa eta galdera gehiago 98

3. BIBLIOGRAFIA 100

ERANSKINAK 105
Lehen eranskina: testu-antolatzaileak
Bigarren eranskina: egokiro puntuatzeko jarraibideak

0. SARRERA

2010-2011 ikasturtean *Bologna Plana* izenekoa ezarri zenez geroztik, bi irakasgai daude irakaslegaien komunikazio-gaitasuna espresuki langai hartzen dutenak Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduetan, **irakasle izateko prestakuntzaren oinarrian**: lehen mailako «Komunikazio Gaitasunaren Garapena I» eta bigarren mailako «Komunikazio Gaitasunaren Garapena II».

Bi irakasgaiotan *communicare* jatorrizko etimoaren esangura berreskuratu eta aplikatu nahi da, hitz horrek «partekatzea» esan nahi baitzuen aspaldi zaharreko latinean; halaber, esan nahi dugu euskarazko «komunikatu» berbak berezko esangura ere gorde duela, hitzaren lehen zatian dakusagun **komun**- horri esker. Beraz, aipa genezake hizkuntza-**komun**itatean ikasten dela gehien eta hobekien. Hartara, Irakasle Eskolako ikasgela hizkuntza ikasteko komunitate aproposa bihurtzea izango du xede ikasmaterial honek.

Gradu Berrien ikasketa-plangintzan ikus daitekeen eran, testu eta diskurtso akademikoak jorratzea da lehen mailako «Komunikazio Gaitasunaren Garapena I» irakasgaiaren langai nagusia; besteak beste, testu eta diskurtso horien bidez lortzen baitira heldutasun pertsonala eta intelektuala. Bigarren mailako «Komunikazio Gaitasunaren Garapena II» irakasgaiaren kasuan, aldiz, irakaslearen diskurtso profesionalak jorratzea da ardatz. Bistakoa denez, lehen mailako irakasgaia bigarren mailakoaren zutarria da.

Aurrera jo aurretik, argi dezagun orain ikasmaterial hau batez ere lehen mailako irakasgaia lantzeko pentsatua dagoela, bigarrenerako ere lagungarri gerta litekeen arren. Halaber, gure proposamena erabil lezakete euskara ikasten ari direnek edota hobetu nahi dutenek, zein komunikazioari buruzko gaietan trebatu nahi duen orok. Izan ere, testuinguru formalei dagozkien komunikazio-egoera konplexu eta espezializatu ugaritan trebatzeko prozesuan arituko gara lanean, nagusiki **alor akademikoko testu-diskurtsoak aztertuz nahiz ekoitziz.**

Irakaslegaien oinarrizko formazioari gagozkiola, **prestakuntza linguistiko-diskurtsibo egokia eskaintzea** da gure helburu behinenetako bat. Horretarako, komunikazio-egoerak eta hizkuntzaren arauak kontuan hartzea proposatuko dugu,

irakaslegaiek haien komunikazio-gaitasuna era teoriko-praktikoan hobetzeko asmoz. Finean, azken aldiko hainbat autorek gomendatu bezala, parametro komunikatiboetara ekarri nahi dugu hizkuntzaren kalitatea, hizkuntzaren gaineko **jarduerak** eta **gogoeta sistematikoak** bideratuz unibertsitateko ikasgelan.

Arestiko jarduerek eta gogoetek lagunduko digute hizkuntza komunikazioaren zerbitzuko jartzen. Alde horretatik, bat gatoz Hizkuntzalaritza Aplikatuaren eta Pedagogiaren arloetako berrogei herrialdetako adituek adostutako *Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoa*ren ikuspegiarekin. Izan ere, hamar urtez baino gehiagoz landutako marko zabal honek halaxe dakar hitzaurrean: «**hizkuntza ikastea komunikatzen ikastea da**» (2005: 6). Hortaz, ikasmaterial honek lagungarri gertatu nahiko luke komunikazioaren ikaskuntzan, eta, metodo sokratikoa gogoan (Lomas eta Ruiz Bikandi, 2011), irakaslegaiekiko elkarrizketa etengabean oinarrituko dugu gure proposamen didaktikoa.

Hizkuntzaren bidezko komunikazioaz ari garenean, gizakion arteko harremanez ari gara funtsean, bi pertsonek edo gehiagok hizkuntzaren bidez elkarrekin partekatzen dutenaz. Hala, hizkuntza ondo erabiltzen duenak tresna egokia du bere burua ezagutzeko, bestearekin negoziatzeko, inguruarekin harreman egokiak ezartzeko, bizikidetza-arauak finkatzeko, taldean lana egiteko, iritzia adierazteko edota mundua nahi duen erara irudikatzeko. Horra hor **hizkuntzaren botere erreala** agerian (cf. Bourdieu, 2001; Cassany, 2006a; Leith, 2011).

Bestalde, irakaslegaiek profil profesionala eskuratuko badute graduan zehar, beharrezko deritzogu irakaslearen lanbidearen inguruan maiz gertatzen diren arazoak jorratzeari, prestakuntzaren hasieratik bertatik; hori dela eta, ikasmaterialean zehar proposatuko diren jardueretan hezkuntzaren inguruko gaiak eta egoerak agertuko dira maiz aski.

Irakasle-eskoletan maisu-maistrak prestatzen ari garela kontuan izanik, funtsezkotzat jotzen dugun ideia nagusi bat azpimarratu nahiko genuke: **irakasle guztiak komunikatzaile profesionalak dira**; lanbidez, ideiak eta emozioak komunikatu beharko dituzte egunerokoan ikasleekin, gurasoekin eta lankideekin, ahoz zein idatziz. Hortaz, irakasle bihurtzeko nahitaezko trebetasuna dugu komunikazio-gaitasuna, zalantzarik gabe.

Ikasmaterialaren egitura, antolaketa eta izaera teoriko-praktikoa

Bi atal nagusi ditu aurkezten hasiak garen materialak: batetik, geroagoko praktikan zuzen eta egoki aritze aldera, langai hartuko ditugu testuak eta diskurtsoak aztertzeko nahiz ekoizteko **oinarrizko kontzeptuak**; bestetik, irakaslegaiek graduan zehar sarritan landu beharko dituzten **azalpenezko** eta **argudiozko testuak** jorratuko ditugu.

Atalen barruko edukien antolaketari dagokionez, hona hemen proposatuko dugun lanketa sistematikoa:

- Aurkibidea.
- Aurkezpena, egitura eta helburuak.
- Gaitasunak eta edukiak hausnarrean girotzen.
- Gaitasunak eta edukiak lantzen: azalpenak eta jarduerak.
- Komunikazioan trebatzen segitzeko ariketa eta galdera gehiago.

Bestalde, ikasmaterialaren izaera teoriko-praktikoaz solas egin nahi dugu. Izan ere, esan beharra dago ahaleginak egin ditugula ikasmateriala soilik teorikoa ez izateko (eta, beraz, egiazki didaktikoa izateko). Hain zuzen ere, azken aldiko Hizkuntzalaritzaren korronte pragmatikoekin bat eginda, ezinbestekoak diren azalpen teorikoen ondoren, horiek egoki barneratzeko lagungarri gerta daitezkeen hausnarketa-ariketa izeneko hainbat jarduera txertatu ditugu.

Eskerrak eman

Azken bost urteotan Komunikazio Gaitasunaren Garapenaren I irakasgaian izan ditudan Haur Hezkuntzako **ikasleak** eskertu nahi ditut, lehenik eta behin: haiek erakutsi didate, gai honetaz, laguntza didaktikoa aplikatzeko bidea. Halaber, haietako zenbaitek baimena eman didate haiek idatzitako testu errealak erabiltzeko, geroko beste ikasle batzuk gogoan. Mila esker, beraz, haien eskuzabaltasunagatik.

Bigarrenik, lankideei eman nahi dizkiet eskerrak. Izan ere, ikasmaterial honek sinatzaile bakarra badu ere, beharbada irakurleak nabarituko ez duen baina (zalantzarik gabe) estimatuko duen prozesu kolektibo bat gordetzen du lerroen atzean. Alde horretatik, EHUko Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktikaren saileko lankideak

ahantzi gabe, Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolako hainbat irakasle eta lankide nabarmendu beharrean nago: **Maite Mendiburu** eta **Jesus Garai,** (aurreko plangintzako) Euskara eta bere didaktika irakasgaien planteamendua eskuzabal partekatzeagatik; **Puy Fernandez**, **Marisa Garaigordobil** eta **Ander Olalde,** irakasgaiaren *Gasteizko diseinua* elkarrekin egiteagatik; **Igor Camino** eta **Amaia Alvarez-Uria,** bulegoetako elkarrizketa mamitsuengatik nahiz ikasmaterialaren lehen idatzaldiari egindako ohar aberasgarriengatik. Halakoetan aitortu ohi den legez, neureak dira akatsak eta gabeziak.

1. TESTUAK ETA DISKURTSOAK AZTERTZEKO NAHIZ EKOIZTEKO OINARRIZKO KONTZEPTUAK

Discourse is the essential condition of knowledge, the process through which experience becomes knowledge **(Halliday eta Martin, 1993)**

(Diskurtsoa ezagutzaren funtsezko baldintza da: prozesu honen bidez bihurtzen da esperientzia ezagutza)

Aurkibidea

1.1.Aurkezpena, egitura eta helburuak

1.2.Gaitasunak eta edukiak hausnarrean girotzen

1.3.Benetako arazo bat: alfabetatze akademikoa

1.4.Komunikazio-gaitasuna eta testu-erregelak

1.4.1. Kontzeptuaren sorrera, definizioa eta bilakaera

1.4.2. Komunikazio-gaitasuna osatzen duten atalak: azpigaitasunak

1.4.3. Testu-erregelak: komunikazioaren berme

1.5.Diskurtsoaren analisia

1.5.1. Ahozko eta idatzizko komunikazioa

1.5.2. Diskurtsoaren nozioa eta genero diskurtsiboak

1.5.3. Diskurtsoaren analisia: ideologia irakurtzeko tresna ahaltsua

1.6. Komunikazioan trebatzen segitzeko ariketa eta galdera gehiago

1.1. Aurkezpena, egitura eta helburuak

Lehen atal honetan, diskurtsoak aztertzeko nahiz ekoizteko oinarrizko kontzeptuak jorratuko ditugu. Izan ere, behar-beharrezkoa da ikasmaterial osoan zehar langai hartuko ditugun testuekin lan egiteko, horien inguruko oinarri teoriko egokia bermatzeko, bai eta terminologia teknikoaz jabetzeko ere. Esan dezagun, beraz, atalik teorikoena dugula honako hau; nahiz eta maiz proposatuko ditugun teoria praktikatzeko ariketak ere.

Diskurtsoen inguruan dugun ezagutza neurtzeko eta jakitun izan gaitezen, kapituluko gaitasunei eta edukiei buruz galdezka girotuko dugu, hizkuntzaren inguruko hausnarketak sorrarazteko nahiz bideratzeko asmoz. Ondotik, azken urteotako lan zenbaitek ekarri duten hizpide interesgarria hartuko dugu abiapuntu: alfabetatze akademikoaren gaia (Carlino, 2005; Echevarría, Gastón eta Mintegi, 2009; Padilla, Douglas eta López, 2010).

Geroago, komunikazio-gaitasuna zer den definitzeaz gain, termino horrek orain arte izan duen bilakaera ere azalduko dugu. Era berean, gaitasun horren azpigaitasunak eta alderdiak xehero deskribatu eta gero, unibertsalak diren testu-erregelak agertuko ditugu, eta horiek komunikazio-gaitasunarekin dituzten lotura estuak zehaztuko ditugu.

Komunikazio-gaitasunarekin harreman garbia ageri duen diskurtsoaren analisiaren diziplinara ere joko dugu. Hartara, ahozko eta idatzizko erregistroen arteko aldeak ikusiko ditugu: zertan bereizten diren elkarrengandik eta zertan osatzen duten elkar. Diziplina horren araberako diskurtsoaren nozioa zein genero diskurtsiboak ikusiko ditugu. Diskurtsoaren analisian berariaz trebatzeko, hainbat ariketa egiteaz gainera, euskarazko prentsatik hartutako hainbat iritzi-artikulu analizatuko ditugu.

Kapituluari bukaera emateko, komunikazio-gaitasunaren inguruan trebatzen segitzeko ariketa eta galdera gehiago proposatuko ditugu, nork bere ezagutza teorikoa eta trebetasun praktikoa testatzeko, orain arte landu diren alderdiei dagokienez.

Honenbestez, lehen kapitulu honen xede nagusia da testuekin eta diskurtsoekin lanean jarduteko ezinbesteko tresneria eskaintzea, gizakiok hizkuntzaren bidez dugun komunikatzeko gaitasunaren alorrean arrakastaz murgiltzeko asmoz.

1.2. Gaitasunak eta edukiak hausnarrean girotzen

Jarraian, kapituluan landu beharreko gaitasunak eta edukiak girotzeko galdetegi bat egingo dugu, komunikazioaren inguruko oinarrizko alderdi nagusiak hausnarrean hartuz. Galdetegi honen xede nagusia ez da berehalako erantzun aldebakarrekoak ematea, baizik eta **komunikazio-gaitasunaz gogoeta egiten ikastea**. Hala, garrantzi handiko jarduna deritzogu bakoitzak zein iritzi eta aurrezagutza dituen partekatzeari:

- Badakizu zer den alfabetatze akademikoa?
- Nola definituko zenuke komunikazio-gaitasuna?
- Zure ustez, zein erregistrotan mintzatu behar dute Granadako Unibertsitatean eta Parisko Sorbonan ari diren ikasleek: etxeko hizkeran ala gaztelania/frantses estandarrean? Eta ikasle euskaldunek EHUn?
- Badu loturarik komunikazioren aferak irakasle izatearekin? Zergatik?
- Gauza bera dira hiztun eta hizlari? Zer behar dugu hiztun ona izateko? Eta hizlari ona izateko? Irakasleak zer dira: hiztunak ala hizlariak?
- Zein dira testu edota diskurtso on baten ezaugarriak, zure iritziko?
- Egia da ondo idaztea edo ondo hitz egitea berezko dohainak direla, jaiotzezko bertute hutsak?
- Badakizu zertan datzan diskurtsoaren analisia?

Has gaitezen, hortaz, **erantzun egokien bila**, teoria eta praktika elkarrekin uztartuta: eguneroko egoera linguistiko-diskurtsiboak behatuz eta horiek aztergai dituzten zientzietara joz. Has gaitezen, bestela esateko, kapituluko gaitasunak eta edukiak jorratzen.

1.3. Benetako arazo bat: alfabetatze akademikoa

Benetako arazo bat hartuko dugu abiapuntu: alfabetatze akademikoa. Izan ere, unibertsitateko irakasleen artean hedaturik dagoen kexa da goi-mailako hezkuntza-esparrura sartzen diren **ikasleek gabezia akademiko nabarmenak** dituztela, testu espezifikoak ulertzeko zailtasun handiak ageri dituztelako zein diskurtso zientifikoak eraikitzeko oztopo sendoekin topo egiten dutelako. Ikuspegi horretatik begiratuta, unibertsitatean sartu berri diren ikasle frankok ez dute oinarri akademiko nahikorik graduan zehar eskatuko zaizkien lanei egokiro aurre egiteko. Ikuspegiak ikuspegi, badirudi trantsizio arrazoizko bat eskatzen duela Bigarren Hezkuntzatik unibertsitatera igarotzeak, ikasleak arrakastaz egokituko badira kultura akademiko berrian; izan ere, bertan, zenbait diziplinatako diskurtso espezializatuak ulertu eta ekoitzi beharko dituzte ezinbestean. Horretarako, Bigarren Hezkuntzan hasitako bidean jarraitu eta sakondu beharra dago, gero eta espezializazio handiagoko gaiak jorratuz.

Carlino argentinar egileari irakurri diogunez (2005), Ameriketan ere antzeko arazoa dute. Izan ere, Estatu Batuetan *Academic Literacy* terminoa asmatu zuten 1990eko hamarkadaren erdialdean, unibertsitatean sartu berriak ziren ikasleak espazio «diskurtsibo-erretoriko» berrira ondo egokitzeko asmoz. Ondoren, alfabetatze akademiko hori giltzarri bihurtu bide da mundu anglosaxoiko eta Latinoameriketako zenbait unibertsitatetan (Mexikon, Venezuelan eta Argentinan, batez ere). Euskal Herrira ere iritsia da alfabetatze mota horren oihartzuna (Echevarría, Gastón eta Mintegi, 2009), oraindik kontu ezezagun samarra suerta daitekeen arren.

Alfabetatze akademikoaren aferari estuki lotua dago unibertsitatean gero eta ohikoagoa den **diziplinarteko lana**. Izan ere, karrera edozein dela ere, ikasleak berariaz **trebatu** beharko du diziplinetan (irakasgaietan) lantzen ari den edukiak eta gaitasunak **diskurtso akademiko egoki batean** txertatzeko**, ahoz nola idatziz.**

Hori dela eta, alfabetatze digitalaz edo emozionalaz mintzatzen den bezala, guk ere alfabetatze akademikoaz hitz egin behar dugu: testu zientifikoekin lanean hasteaz, ikasgelan parte hartze egokia sustatzeaz, diziplina desberdinak harremanetan jartzen ikasteaz, iturriak behar bezala erabiltzeaz eta aipatzeaz, bibliografia egokiro kudeatzeaz edota autoritate-argudioak erabiltzeaz, besteak beste.

Europako Markoak proposatzen duen bezala, **ezinbestekoa da hizkuntzen ikaskuntza bizitza osoko prozesu moduan ulertzea** (2005: 25). Unibertsitateko diskurtsoei dagokienez, eginkizun jasoetarako prestatu behar dira ikasleak, gaitasun akademiko-profesionalak garatu bidenabar. Horrenbestez, arestian genioen trantsizioa ongi egiteko zein graduan zehar modu egokian aritzeko, guztiz gomendagarria delakoan gaude ikasleen alfabetatze akademikoaren behar progresiboaz jakitun izatea.

1.HAUSNARKETA-ARIKETA: Nola definituko zenuke alfabetatze akademikoa?

2.HAUSNARKETA-ARIKETA Garrantzitsua iruditzen zaizu unibertsitatera sartu berriak diren ikasleak akademikoki ongi alfabetatzea, titulazioa edozein delarik ere? Zergatik?

1.4. Komunikazio-gaitasuna eta testu-erregelak

1.4.1. Kontzeptuaren sorrera, definizioa eta bilakaera

Komunikazio-gaitasunaren ideiaren jatorrian Hymes antropologoa dago, zeinak, Chomsky hizkuntzalari ospetsuari kritika eginez, esan baitzuen gramatikaz eta **gaitasun**

linguistikoez landara parametro etnografikoak eta soziokulturalak ere baliatu behar direla hizkuntza behar bezala erabiltzeko (Hymes, 1967; Hymes eta Gumperz, 1972). Horrela, hizkuntzaren eta kulturaren arteko lotura estua dagoela nabarmendu zuen, komunikazio-gaitasuna (*communicative competence*) honelaxe definituz: hiztun batek behar duen gaitasuna, testuinguru kultural desberdinetan eraginkor komunikatzeko.

Geroagoko beste autore batzuek sakondu izan dute Hymesen komunikazio-gaitasunaren kontzeptuan (ikus, besteak beste, Canale eta Swain, 1980; Canale, 1983; Bachman, 1990; Bachman eta Palmer, 1996; Celce-Murcia, Dörnyei eta Thurrell, 1998). Sailkapenak sailkapen eta ereduak eredu[1], azken hamarkadotan gertatu den eztabaida zientifikoari esker, hainbat kontsentsu lortu dira hizkuntzen irakaskuntzan eta hezkuntzan, eta esan daiteke komunikazio-gaitasuna hizkuntzaren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen helburu bihurtu dela mundu zabalean, Haur Hezkuntzan hasi eta unibertsitatean buka.

Oraintsuko eztabaidarekin bat etorrita, aipatu beharra dago komunikazio-gaitasunaren sorrera lotu-lotua dela honako lau zientzia-diziplina hauekin: pragmatika linguistikoarekin, testu-hizkuntzalaritzarekin, soziolinguistikarekin eta erretorikarekin (cf. González Nieto, 2001; Zabaleta, 2010). Deskriba ditzagun arlo hauek banan-banan:

- **Pragmatika linguistikoa.** Hizkuntzalaritzatik eratorritako adar honek hizkuntzaren **erabilera aztertzea** du xede nagusi. Hizkuntza nola erabiltzen dugun aztertzeko, ezinbestekoa da testua bere testuinguruarekin harremanetan ezartzea: lekua, egoera, solaskideak, asmoak… Diziplina honen arabera, hizkuntza era bakoitzak behar komunikatibo bati erantzuten dio. Horregatik, hiztunak, egoera eta testuingurua zein den jabetu eta, egoera horretara egokituko du bere jarduna: orain molde bat erabiliz, gero bestea, mintzaide batekin honela, hartzaile harentzat bestela… Toki, egoera, testuinguru, hartzaile eta **helburuaren arabera,** moldatu egingo du haren jarduna.

- **Testu-hizkuntzalaritza.** Hizkuntzalaritzaren beste atal bat den honek testuaren **osotasunaren garrantzia** nabarmentzen du; hau da, aholkatzen digu testua edo diskurtsoa bere osotasunean kontuan hartzeko, helarazi nahi diren mezuak behar

[1] Komunikazio-gaitasunaren kontzeptuaren gaineko bilakaera zabal eta zehatza aurki daiteke bost erreferentzia hauetan: Etxeberria eta Garay, 2010; Etxeberria eta Garay, 2013; Goikoetxea, 2007; Perez-Gaztelu eta Zulaika-Ijurko, 2012; Ruiz-Bikandi, 2009). Halaber, Europako Erreferentzia Markoak dakarren sailkapena ikusgai dago (2005: 65- 125).

bezala igorri eta jasoko badira. Perspektiba honetatik, esaten da ahozko zein idatzizko testu orok lau erregela unibertsal bete behar dituela (ikus, adibidez, Alonso, Garro eta Irizar, 2010; Larrea eta Maia, 2010): **zuzentasuna**, **egokitasuna**, **kohesioa** eta **koherentzia**. Horietaz gainera, komeni da gogoan izatea ideien eta adierazpenaren **argitasuna** ere, testuaren kalitatea neurtzeko. Hain zuzen ere, arestian aurkeztutako erregelon arabera neurtu dezakegu **hizkuntzaren kalitatea**: komunikatzeko parametroen bidez.

- **Soziolinguistika.** Hizkuntzalaritzatik eratorritako beste adar honek gogoratzen digu **hizkuntza eta jendartea** elkarri hertsiki lotuak daudela, hizkuntza era bakoitza testuinguru soziokultural jakinetan gertatzen dela nabarmenduz. Alde horretatik, hizkuntza edo mintzaira bakoitzak ikuspegi propioa duela esan genezake, haren kosmogonia (mundu-ikuskera), haren tradizio partikularra. Esaterako, gauza jakina da Ingalaterran *polite* (polit?) jokatzeko ohitura oso errotua dagoela, bai eta Frantzian ere; Euskal Herrian, aldiz, adeitasun-arauek ez dirudite arestiko bi herrialdeetan bezain zorrotzak. Kerbrat-Orecchioni-k (2004) dakarrenez, adeitasuna edo **kortesia unibertsala eta partikularra** da aldi berean: unibertsala, batetik, planetako jendarte guztietan gatazkak saihesteko nahiz leuntzeko mekanismoak baliatzen direlako; partikularra, bestetik, jendarte bakoitzak kortesia bere modura ezartzen duelako.

- **Erretorika.** Europaren testuinguruan[2], **demokrazia** sortzearekin jaio zen erretorika, bakoitzak bere iritzia publikoki adierazteko aukerarekin, Grezia Klasikoan (duela 2.500 urte inguru). Antzinaroan, pertsuasioaren artea ere esaten zioten hizketa edertzeko langintzari. Platon filosofoak idatzitako *Fedro* izeneko dialogoan ageri denez (1998), hiru baldintza orokor bete behar dira hizlari trebea izatera heltzeko: berezko gaitasuna, jakintza eta praktika. Hortaz, antzinako erretorikoek ere aitortzen zuten, berezkoa den ahalmenaz haratago, ondo **mintzatzea teknika** dela. Ildo beretik, hainbat eta hainbat autorek aldarrikatu dute behar-beharrezkoak direla ondo hitz egiteko etengabeko **entrenamendua** eta saiakerak (Briz, 2008; Garzia, 2008; Leith, 2011); horretantxe datzala gakoa, hain zuzen. Guk ikasmaterial honetan baliabide erretoriko zenbait landuko ditugu, geure komunikatzeko gaitasunari ahalik eta etekin handiena ateratzeko asmoz. Arrakastaz komunikatzeko, alegia.

[2] Europaz kanpoko fenomeno eta tradizio erretorikoen berri jakiteko, Kennedy-ren (1998) *Comparative Rethoric: An historical and cross-cultural introduction* lanera jo daiteke.

3. HAUSNARKETA-ARIKETA. Gauza izango zinateke eskema edo mapa kontzeptual batean islatzeko zer ekarpen egin dion zientzia-arlo bakoitzak komunikazio-gaitasunaren bilakaerari (ad. «Pragmatikak > helburuaren arabera komunikatu»)?

1.4.2. Komunikazio-gaitasuna osatzen duten atalak: azpigaitasunak

Komunikazio-gaitasuna osatzen duten lau atalak edo azpigaitasunak jorratzen ditu Euskararen Akademia Euskaltzaindiak, hizkuntzaren ikuspegi komunikatiboa aitortuz eta aholkatuz: «Ikuspegi komunikatiboa, batetik, ikuspegi gramatikala osatzera dator, eta hizkuntza-erabileraren ikuspegi beteagoa eskaintzera; bere baitan hartzen baititu lau ikuspegi, elkarren osagarri eta aberasgarri: gramatikala, soziolinguistikoa, testuala eta estrategikoa» (Euskaltzaindia 2008: 18). Nolanahi ere, argi gera bedi paradigma gramatikaletik paradigma komunikatibora aldatzeak ez dakarrela berekin gramatika gutxiestea (Esnal, 2009). Azal ditzagun, labur baina xeheki, azpigaitasunok:

- **Azpigaitasun linguistikoa.** Hizkuntzari berari dagokion trebetasuna da. Alde horretatik, komunikazio-gaitasunaren oinarria da gaitasun linguistikoa: ezin komunikatzaile ona izan, **hizkuntza ondo ezagutu** ezean. Hortaz, funtsezkoa da kontuan hartzea hizkuntzaren ikuspegi linguistiko-gramatikala, eta **zuzentasuna** da atal honetan baliatzen den irizpidea. Hona hemen azpigaitasun linguistikoa eratzen duten alderdi nagusiak:
  - ✓ Gramatika (morfologia eta sintaxia)
  - ✓ Lexikoa (hiztegia)
  - ✓ Semantika (hitzen esanahia eta harreman logikoa)
  - ✓ Fonetika-fonologia (azentua, erritmoa, intonazioa, bolumena...)
  - ✓ Ortografia eta ortotipografia-arauak

- **<u>Azpigaitasun soziolinguistikoa.</u>** Testua eta testuingurua elkar uztartzeko trebetasuna da. Esaera baten bidez adierazteko, «Nolako testuingurua, halako erabilera» delako leloa erabil genezake. Izan ere, **testuinguruaren arabera** jokatu behar du hiztunak[3], era batera edo bestera formulatuz komunikatu behar duena. Jendarte mota batean dauden arauak, esplizituak zein inplizituak, errespetatzen ditu hiztunak. Horretarako, baina, jendarte horren ohiturak eta balio kolektiboak ezagutu behar ditu. Alde horretatik, ezagun samarrak dira hizkuntzatik hizkuntzara suertatzen diren ezberdintasun kulturalak. Hizkuntzaren erabilera sozial horiek jendartean bertan ikasi ohi dira, eta **egokitasuna** da atal honetan baliatzen den irizpidea.

- **<u>Azpigaitasun diskurtsiboa.</u>** Ondo eratutako **mezua**k eraikitzeko trebetasuna da. Diskurtsoaren edota testuaren osotasunak hartzen du garrantzi nagusia kontu honetan; azken batean, gogoan hartu beharra daukagu esaldiak ez direla unitate independenteak, komunikazio-helburu batekin jarduten dugula beti, eta helburu hori hobekien lortuko duen hariari jarraitzen diola gure jarduerak. Diskurtsoa behar bezala eratzeko, ezinbestekoa da **egitura** logiko bat, bai eta besteekin partekatu nahi den informazioa ondo **antolatzea** eta kudeatzea ere. Horrenbestez, behar-beharrezkoak ditugu mezu barruko ideien arteko loturak eta ordenak. **Koherentzia** eta **kohesioa** dira atal honetan baliatzen diren irizpideak.

- **<u>Azpigaitasun estrategikoa.</u>** Mezuak helarazteko bide eraginkorrak erabiltzeko trebetasuna da. Bestela esanda, hiztunak hobeki komunikatzeko duen baliabidea da, erdietsi nahi dituen xedeak erdiesteko. Zerbait adierazi nahi dugunean eta aurrean dagoenak ulertzen ez duenean, esaterako, beste hitz batzuen bidez saiatzen gara gauza bera azaltzen; estrategia estandarra dugu mekanismo hori, birformulazio izena duena, azaltzeko. Solaskideari galdetzea ere izan daiteke beste estrategia bat, mezua ondo ulertzen ari den ziurtatzeko. Egia esan, hamaika estrategia erabiltzen ditugu denok egunerokoan, geroago ikusiko dugunez; modu kontzientean erabiltzea da hemen gakoa: interakzioa, zehaztasuna, dinamizazioa (ahozkoan), inprobisazioa (ahozkoan), jariotasuna (ahozkoan), eta abar.

[3] Ez da nahasi behar "hiztun" berba "berritsu" edota "hitzontzi" hitzekin; izan ere, hiztuna da hizkuntza bakoitzeko partaide bakoitza, eta ez solasean gehiegi aritzea gustuko duena. Hizlaria, berriz, hiztun publikoa dugu, jendaurrean hizketan jarduten duen persona.

Orobat, **ez-hitzezko komunikazioa** nahiko lotua ageri zaigu azpigaitasun estrategikoarekin, bereziki mezuarekin batera joan daitezen begirada, gorputzaren jarrera eta espazioaren kudeaketa (Garzia, 2008 eta Ruiz Bikandi, 2009). **Eraginkortasuna** izan liteke atal honetan baliatzeko irizpide bat (ez dago aurreko testu-erregelak bezain adostua).

1.4.3. Testu-erregelak: komunikazioaren berme

Diskurtsoak eta testuak aztertzeko nahiz ekoizteko parametro unibertsalak dira arestian aipatu ditugun lau testu-erregelak: **zuzentasuna, egokitasuna**, **kohesioa** eta **koherentzia**. Defini ditzagun erregelok banaka:

- **Zuzentasuna.** Hizkuntzaren arauak errespetatzeaz arduratzen den erregela dugu. Alderdi horretatik, mintzaira batean zuzen idazteko eta zuzen mintzatzeko arauak bete behar dira, hizkuntza horren gramatika-legeak errespetatuz. Zuzentasunaz eta gramatikaz ari garen honetan, aipatu beharrean gaude Euskal Herrian bi uste oker eta gaizto daudela zabalduta: batetik, Euskaltzaindiak arautzen duena baino gehiago arautzen duela eta, bestetik, zenbait hizkuntza-baliabideren erabileran nahikoa dela arau gramatikalak betetzea (Euskaltzaindia, 2008 eta Euskaltzaindia, 2011). Aurrerantzean ikusiko dugun eran, zenbaitetan, hizkuntzaren arauak ongi ez ezagutzeak uste okerrak sortzera bultzatzen du, pertsonalki nola sozialki.

4. HAUSNARKETA-ARIKETA. Uste duzu ongi ezagutzen duzula euskararen gramatika? Gauza izango zinateke zeure akats linguistiko ohikoenak labur zerrendatzeko? Zein estrategia hartzen duzu noizbait egindako akatsa ez errepikatzeko?

5. HAUSNARKETA-ARIKETA. Zenbat hizkuntzatan mintzatzeko gai zara? Errepertorio horren barrenean, zeinetan moldatzen zara hobekien? Zer dela eta, zure iritziko?

- **<u>Egokitasuna.</u>** Hizkuntzaren erabilera soziala aproposa den ala ez neurtzen duen erregela dugu. Testuinguruak eskatzen dituen beharrei erantzunez, aldaera linguistiko egokia hautatu behar dugu. Jakina denez, hizkuntza aski aldakorra da eta, alde horretatik, komunikatzeko moldeak denboran zehar nahiz ingurune geografiko, sozial eta komunikatiboen arabera moldatzen dira; hizkuntza moldatzeko trebetasun hori estuki lotua da komunikatzeko gaitasunarekin. Bestela adierazteko, zenbat eta **errepertorio zabala**goa eduki, orduan eta komunikatzaile hobea da pertsona. Arestiko hizkuntzaren aldakortasuna diatopikoa (edo geografikoa), diastratikoa (edo soziala) eta diafasikoa da.

  Aldakortasun diatopikoa, geografikoa. Aldaera dialektalak edota aldaera estandarra. Euskararen kasuan, ezaguna denez, *euskalki* ere baderitze dialektoei eta *batua* estandarrari. Euskalkien mapa berria proposatu duen Koldo Zuazo hizkuntzalariak berak esana duenez, Euskal Herria dialektotan **sakabanatuta egon izanak** ematen digu geure **herri zatikatuaren berri** (Zuazo, 2005). Hori zela eta sortu zuten euskara batua; hain zuzen, zatikatua eta ahuldua zegoen hizkuntza (herria?) sendotzeko eta bateratzeko. Hortaz, kontua ez da euskalkiak *vs* batua, euskararen aldaera guztiak beharrezkoak baitira; gakoa, lehen esan bezala, testuinguruan dago: noiz erabili bata eta noiz bestea (Mendiburu, 2010). Nolanahi ere, esan beharra dago Euskal Herria batzen eta biltzen duen euskara batua uste baino aise malguagoa dela, tokian tokiko hizkeretan ohikoak diren hainbat hitz onartuta.

  Aldakortasun diastratikoa, soziala. Soziolekto deritze jendarteko talde jakin batenak diren aldaerei. Estratifikazio soziala oso markatua dagoen herrialdeetan, hiztunaren klase sozioekonomikoaren berri ematen du soziolektoak.

  Aldakortasun diafasikoa, erregistroari dagokiona. Testuinguruaren araberako aldaera. Alderdi horretatik, berebizikoa da erregistro eta estilo egokiak aukeratzea: ahozkoa ala idatzia, ohorezkoa, formala ala lagunartekoa, orokorra ala espezializatua, objektiboa ala subjektiboa. Oraintsuko hautu hauek guztiak ongi hartu behar dira, baldin eta hiztunak arrakastaz komunikatuko badu. Esate baterako, erregistro formala dagokie unibertsitatean lantzen diren testu akademikoei, aldaera estandarrean adierazia, era objektibo eta espezializatu samarrean.

6. HAUSNARKETA-ARIKETA. Gaztelaniari dagokionez, zein da estandarretik gehien aldentzen den Penintsulako aldaera geografikoa? Zure ustez, nola egin behar dute berba Cadizeko maisu-maistrek lanean? Zergatik jotzen da komunikabideetan Andaluziako hizkerara umorea egiteko? Ezagutzen duzu euskara batuaren sorreraren zergatia?

- **Koherentzia.** Hizkuntza bidezko mezuek esanahi logiko eta ulergarria bermatzen duen testu-erregela da, edukiak batasuna izan dezan. Testu batez adierazi nahi ditugun ideiak pentsatu, hautatu, egituratu eta antolatu behar ditugu gutxieneko koherentzia batekin, besteak behar bezala ulertzea gura badugu. Oso garrantzitsua da testua idatzi aurretiko lana: **planifikazioa**. Izan ere, horri esker lortuko dugu egitura eta antolaketa zentzudunagoa, bai eta irakurleak testua errazago segitzea ere. Mezu bat koherentea izan dadin, honako baldintza estandar hauek bete behar ditu:

  Informazio pertinentea hautatzea. Ondo bereizi behar dira informazio pertinentea (harira datorrena) eta pertinentea ez dena (harira ez datorrena). Lehen mailako informazioa eta bigarren mailakoa sailkatu egin behar dira, eta garrantzirik ez duen informazioa, betelana dena, baztertu.

  Informazioa era logikoan antolatzea. Antolatutako ideiak hierarkizatu eta modu argian antolatu behar dira eskema baten inguruan. Kontuan izan behar da testu edota genero mota bakoitzak bere egitura duela (ez dute egitura bera iritzizko zutabe batek, azalpen batek edota albiste batek). Halaber, testuak sarrera, garapena eta bukaera koherenteak izan behar ditu, hari beraren inguruan eginak. Horretarako, ezinbestekoa da mezua paragrafotan antolatzen jakitea, progresio tematiko egokiaren bitartez: hutsuneak zein alferrikako errepikapenak saihestu.

- **Kohesioa.** Mezuaren osagai edota zatien arteko loturez arduratzen den testu-erregela dugu. Arestiko koherentziarekin harreman estua du, bi erregelok eragin zuzena baitute diskurtsoaren esanahian. Dena den, izaera semantikoaz gain, izaera sintaktikoa ere badu kohesioak, hots, joskerarekin edo sintaxiarekin estekaturik dago. Diskurtso ongi kohesionatua lortzeko, bi mekanismo mota nagusi daude:

Erreferentzia mekanismoak: anaforak (aurreko erreferentea berreskuratuta), kataforak (geroko erreferentea aipatuta), deixiak (denborazko erreferentzia, lekuzkoa, pertsonala…) ordezkapen lexikala, elipsia, eta abar.

Lotzeko mekanismoak: testu-antolatzaileak –lokailuak eta markatzaileak barne– (ikus lehen eranskina), intonazioa (ahozkoan) eta puntuazioa (idatzian).

Horrenbestez, koherentzia eta kohesioa lotu-lotuak dira testua ongi antolatzearekin. Alde horretatik, argigarri gerta daiteke latinezko etimoa berreskuratzea, testu komunikagarriak idazteko; izan ere, ***textus*** hitzak osagaiek egokiro jositako ehuna dela iradokitzen du. Etimoez ari garelarik, gogora ekarri nahi dugu grezierazko ***logos*** berbak adiera bikoitza zuela: hitza-hizkuntza eta arrazoi(mendu)a; hots, badirudi aspaldi handikoa dela hizkuntzaren eta pentsamenduaren arteko lotura, eta, beraz, testuek egitura logiko bati jarraitu behar diotela kohesionatuak eta koherenteak izateko.

7. HAUSNARKETA-ARIKETA. Esan dizute inoiz zure testuren batek koherentzia edo kohesio aldeko akatsak dituela? Nolako akatsak ziren? Zein estrategia hartu dituzu akats horiek ez errepikatzeko eta, beraz, hizkuntzaren bidez hobeki komunikatzen ikasteko?

1.Koadroa: Komunikazio-azpigaitasunak eta testu-erregelak

Azpigaitasun **linguistikoa**	-	ZUZENTASUNA
Azpigaitasun **soziolinguistikoa**	-	EGOKITASUNA
Azpigaitasun **diskurtsiboa**	-	KOHERENTZIA eta KOHESIOA

Iturria: egileak egina

8. HAUSNARKETA-ARIKETA. Testu bati dagozkion erregelak aintzat harturik, saia zaitez honako mezu elektroniko hau zuzenago, egokiago, kohesionatuago eta koherenteago gerta dadin. Horretarako, teorian ikusi dugun legez, ezinbestekoa da mezuaren testuingurua kontuan hartzea: ikasturtearen hasieran, talde handi bateko ikasle (oraindik «anonimo») batek irakasleari bidalitako mezua da, azken eskola-egunean asistentzia sinatzeko orrialdea ez zutela behar bezala pasatu eta.

Arrastion!

Miren Diaz de Arkaia naiz, haur hezkuntzako 1.mailako ikaslea, eta idazten dotzut, pasadan ostegunean, irailaren 29an, nik jesartzen naizen aldetik (arbelera begira eskumako aldetik) ez zutelako pasa listarik sinatzeko, behintzat nire lerroko klasekideek ez zuten sinatu ere ez.

Eta atzo galdetu genion beste ikasle batzuei eta esan ziguten haiek bai sinatu zutela, baina gauza da lagun horiek ezkerreko aldekoak zirela! Eta klaro sinatu ez genuenok egun horretan edukiko dogu falta bat eduki izan ez genuena, behintzat nire kasuan.

Zure erantzunaren zain,

Miren Diaz de Arkaia[4]

9. HAUSNARKETA-ARIKETA. Zure ustez, zein izaten dira unibertsitatean hasi berriak diren ikasleen akats tipikoenak? Zein testu-erregela iruditzen zaizu (erabiltzeko) konplexuena? Zer dela eta? Ahoz eta idatziz zailtasun berak dituzu?

[4] Ikaslearen izena fikziozkoa da; mezua, ordea, benetan bidalia.

10.HAUSNARKETA-ARIKETA. Komunikazioaren ikuspuntutik kale egiten dute honako testu (moldatu) hauek. Hortaz, irakurri ondoren, adierazi zein testu-erregelatan egiten duten huts, eta proposatu huts hori zuzentzeko modua.

1. testua (ETB1eko *Gaur egun* albistegian emandako berria)

Aupa! Kataluniako Parlamentuak erabaki du estatu independentea izateko erreferenduma egingo dutela, bai ala bai. Alde horretatik, bost axola zaie Madrilgo Gobernuaren iritzia, ez diote kasu zipitzik egin behar eta.

2. testua (*Argia* astekariko erreportaje baten zatia)

Gero eta gehiago dira kalamua legeztatzearen aldeko ahotsak, naiz eta kontrako iritsiak ere badauden. Noruegan egindako ikerketa baten arabera, kalamuaren kontsumitzaileak ondo ikusiko zuten legeztatzeko debate nazional bat planteatzea.

3. testua (*Harluxet* hiztegi entziklopedikoan dagoen hitz baten sarrera)

Katagorria. iz. eta izond. ZOOL. Karraskarien ordenako zenbait ugaztunez esaten ditek. Tamaina txiki edo ertainekoak dituk eta oso habitat desberdinetan bizi dituk. Bere baitan marmotak, katagorriak eta larre-txakurrak hartzen dituen Siuridae familia osatzen ditek.

4. testua (*Euskadi Irratia*n entzundako eguraldi-iragarpena)

Bero zakarra espero dugu gaurkoan ere, arratsaldean fronte hotz bat etorriko delako. Tenperaturei dagokienez, hobe duzue arropa arina janztea, ez baduzue bero-galdatan egosi nahi.

5. testua (Karlos Argiñanoren errezeta bat)

OSAGAIAK: 200 g. phaseolus vulgaris aletu, 200 g. gazta berri, eskutada bat nasturtium officinale, olibolio birfindua, sagardo-ozpina, gatza, lactuca sativa bat, raphanus sorta bat. PRESTAKETA: Nasturtium officinaleak ongi garbitu ur bizitan. Zurtoinak lodiak badira kendu. Phaseolus vulgarisak oso finak badira, gordinik erabili. Pottoloak badira, olio pixka batean izan minutu gutxi batzutan. Olioa eta ozpina erantsi bi

barazkiei eta gatza eman. Nahastu eta xerretan ebakitako gazta erantsi. Lactuca sativa hosto eta raphanusekin apaindu.

6. testua (*Berria* egunkaritik hartutako iragarkia)

VUELING enpresak hegazkin bidaiak merke-merke egiteko aukera eskaintzen du eta gainera euskara kontuan hartu du bere web gunea egiterakoan eta horrenbestez web guneak eskaintzen dituen zerbitzuak euskaraz jarraitzeko aukera izango du hegaldi merkeak bilatzen dituen bidaiariak.

11. HAUSNARKETA-ARIKETA. Testu-erregelak komunikazioaren berme direla adierazi dugu oraintsu. Demagun testu bat duzula aurrean irakurtzeko eta aztertzeko. Zeren arabera erabakiko duzu testu ona den ala ez? Saia zaitez galdera-zerrenda bat prestatzen testuaren maila komunikatiboa aztertzeko (ad. «Arau ortografikoak errespetatzen ditu?»).

12.HAUSNARKETA-ARIKETA. Pentsa ezazu klasean gai bat azaltzeko zein azpigaitasun komunikatibo baliatu beharko zenituzkeen. Saiatu ahalik eta gehien zehazten lau komunikazio-azpigaitasunetan: linguistikoan, soziolinguistikoan, diskurtsiboan eta estrategikoan (adb. Gaitasun linguistikoan, ez egin gramatika-akatsik).

1.5. Diskurtsoaren analisia

1.5.1. Ahozko eta idatzizko komunikazioa

Gauza jakina denez, bi eratakoa izaten da mezua komunikatzeko **kanala**: ahozkoa edo idatzizkoa. Tradizionalki, kanala irizpide hartuta, kode idatziaz eta ahozko erregistroaz mintzatu izan da. Izan ere, kode bakoitzak ezaugarri bereziak izan ditu. Komunikazio-gaitasunaz ari garen honetan, garrantzizko deritzogu ezaugarri horiek ongi identifikatzeari, mezuak aztertzeko nahiz ekoizteko orduan gogoan izateko.

Oro har, **ahozko komunikazioa** bat-bateko egoerari lotuta egon ohi da, solaskideek toki eta une berbera bizi baitute, elkar ikusiz eta aurrez aurre jarduten dutela. Hizkuntzaz gain, ez-hitzezko kodeek laguntzen dute komunikazioa eraikitzen. Normalean, ez da mezu oso-osoa hitzez eta zehaztasunez adierazten, ez baita beharrezkoa guztia hitzez ulerraraztea: testuinguruaren laguntzak eta solaskidearen feedback-ak egokitzen eta betetzen dute hutsunea.

Komunikazio idatzian, berriz, ohikoa izaten da mezu zehatzagoa eta gramatikalki zainduagoa ematea, idazleak ez baitu testuingurua irakurlearekin partekatzen. Irakurleak jasotzen duen testuak beste nonbait eta beste noizbait izan dezake jatorria. Horregatik, informazio osatua aurkitu ohi dugu erregistro idatzian, baliabide gramatikalak eta literarioak erabiliz maiz. Halaber, ulermena bermatzeko, titulu, azpititulu, paragrafo edota puntuazio-sistema erabili ohi dira.

Dena den, ahozko eta idatzizko komunikazioa dela eta, munta handiko bi kontu gaude nabarmendu beharrean: batetik, Crystal-ek (2004) *Language and the Internet* liburuan erakutsi bezala, ahozkoaren eta idatzizkoaren arteko ezaugarriak nahasian erabiltzen dira **egungo erabilera batzuetan**, Informatzeko eta Komunikatzeko Teknologia berrietan kasu; bestetik, erregistro formala eta informala bi kanaletan suerta daiteke, hots, bada idatzizko informala (SMSak, WhatsAppak…) eta bada ahozko formala. Hain zuzen ere, ahozko komunikazio formalean trebatzeko ahalegin espezifikoak egingo ditugu ikasmaterial honetan, eztabaida akademikoaren generoa lantzen dugularik.

13. HAUSNARKETA-ARIKETA. Zein kanaletan moldatzen zara hobekien komunikatzeko: ahozkoan ala idatzizkoan? Zer dela eta? Orain arteko ikasle-bidean, bi kodeak berdin landu dituzula esango zenuke? Nolako lanketa izan da? Zein irakasgaitan?

14. HAUSNARKETA-ARIKETA. Gauza izango zinateke ahozko eta idatzizko hizkuntzaren ezberdintasun tipikoak zerrendatzeko?

1.5.2. Diskurtsoaren nozioa eta genero diskurtsiboak

Berbaldia edo diskurtsoa pertsonen artean **komunikatzeko unitate linguistiko nagusia** dela esan genezake, enuntziatuez osatua dagoena eta mezu bat aditzera ematen duena testuinguru jakin batean. Ikuspuntu komunikatibotik, diskurtsoa da, ahoz nola idatziz, hizkuntzaren bidez gauzatzen den **praktika soziala**, elkarren artean **ekiteko zein eragiteko** asmoa duena: solas egiten dugu edo idazten dugu jendartean nola edo hala eragiteko, xede jakin batzuk erdiesteko. Komunikazioaren atzean helburu pragmatikoak daude beti, beraz.

Diskurtsoa bizitza sozialaren zati da, eta, aldi berean, bizitza soziala sortzeko tresna. Alde horretatik, esan dezakegu pertsona bakoitzak baduela errepertorio komunikatibo bat: hizkuntza bat edo gehiago, aldaera bat baino gehiago… Hortaz, komunikazioa eta hizkuntza fenomeno konplexuak dira, eta estuki lotuta daude gizabanakoaren **identitate pertsonal eta soziala**rekin (Calsamiglia eta Tusón, 1999).

Heterogeneotasun linguistiko-diskurtsiboa ez da kaotikoa, arauak eta erregelak baititu. Testuari edo diskurtsoari dagozkion arau horiek ezagutzea behar-beharrezkoa da hizkuntza arrakastaz erabili nahi duen hiztunarentzat eta, areago, hizlariarentzat (irakaslearentzat, adibidez).

15.HAUSNARKETA-ARIKETA. Saia gaitezen gutako bakoitzaren errepertorio komunikatiboa osatzen. Horretarako, pentsatu beharko dugu zer egiteko gai garen, zenbat hizkuntzatan nahiz hizkuntza-aldaeratan.

Jakintza-alorrak edota lanbide bakoitzak bere tradizioa du, hots, diziplina bakoitzak bere **tradizio diskurtsibo-testuala** du. Arlo bakoitzak, pertsona talde bakoitzak, aro bakoitzak eta komunikazio-egoera bakoitzak bere testuak ekoizten ditu. Dibertsitate hori irudikatzeko baliatzen den kontzeptua da diskurtsoaren generoa, bere baitan hartzen dituelako alderdi gramatikala, diskurtsiboa, pragmatikoa eta soziokulturala. Bajtin errusiar pentsalariak (1979) ekarri zuen diskurtsoaren generoen etiketa.

Horrenbestez, komunikazio akademikoa eta profesionala diskurtso-egitura prototipikoen bitartez bideratzen da. Diskurtso-egitura horiek ingurune eta komunitate bakoitzak baliatzen dituen berezko testu-generoetan gauzatzen dira. Genero horietako batzuk (adibidez, artikulu zientifikoak) askotariko alorretan aurkitzen ditugu, baina ez dute funtzio bera betetzen diziplina eta ingurune profesional guztietan, eta alor guztietan ez diete jarraitzen parametro testual eta linguistiko berberei.

16. HAUSNARKETA-ARIKETA. Zein dira, zure iritziz, unibertsitateko genero tipikoak? Saia zaitez ahal adina adibide eskaintzen. Partekatu ikaskide batekin erantzunak eta ahalegindu ondorio zenbait ateratzen.

17. HAUSNARKETA-ARIKETA. Gauza bera egin irakaslearen lanbidean pentsatuz: zein dira irakaskuntzako genero ohikoak?

18. HAUSNARKETA-ARIKETA. Zenbat genero ezagutzen dituzu. Eman izena ondotik ikusi behar ditugun genero multzo bakoitzari:

2.Koadroa. Genero diskurtsiboen zerrenda

	Artikuluak, doktoretza-tesiak, monografiak, ahozko komunikazioak, eztabaidak, mahainguruak, berriak, berrikustapenak…
	Katalogoak, deskripzio teknikoak, erabilera-eskuliburuak, txostenak, peritajeak, galdetegiak, interbentzio-protokoloak…
	Apunteak, monografiak, txostenak, **azalpenak**, **lanen aurkezpenak**, artikuluak, **eztabaidak**, **azterketak**, hitzaldiak, fitxa bibliografikoak, aipamenak, laburpenak, **testu-iruzkinak**…
	Artikuluak, ahozko aurkezpenak, informazio-kartelak, gidak, hezkuntza-materialak, elkarrizketak, eskuliburuak, CD-rom interaktiboak, kazeta-artikuluak…
	Hitzarmenak, kontratuak, jarduketa-protokoloak, espedienteak, eskariak, inprimakiak, prozedurak, deialdiak…
	Araudiak, nazioarteko zuzentarauak, txosten juridikoak, jurisprudentzia, epaiak, jardunbide juridikoak…

	Zerbitzu-kontratuak, kalitate-txostenak, kudeaketa-txostenak, ikuskapenak, protokoloak, aurrekontuak, proposamen komertzialak…
	Berriak, erreportajeak, publizitatea, promozio-bideoak, iritzi-artikuluak, elkarrizketak, blogak, web-edukiak…
	Gutunak, elkarrizketak, mahai-inguruak, bilerak, telefono-elkarrizketak, txatak, posta elektronikoa, merkataritza-trantsakzioak…
	Eleberria, ipuina, poesia, bertsolaritza, antzerkia…

Iturria: Ezeiza, 2010: 187

1.5.3. Diskurtsoaren analisia: ideologia irakurtzeko tresna ahaltsua

Diskurtsoaren analisia da hizkuntzaren bidezko komunikazioa jendartean txertatuta aztertzen duen arlo zientifikoa, diskurtsoaren praktika soziala aztergai hartzen duena. Diziplina honen arabera, diskurtsoa erabiltzen duen **hiztunak** (eta, areago, **hizlariak**) **mundu-ikuskera jakin bat** du, ideologia jakin bat, helburu jakin batzuk; hura jakitun izan ala ez. Ikuspegi horretatik begiratuta, (erabateko) neutralitaterik edo objektibitaterik ez dagoela onartu beharrean gaude. Izan ere, testu eta diskurtso bakoitzaren atzean beti egoten da (gutxienez) pertsona bat, pentsaera jakin bat eta emozio jakin batzuk dituena, eta pentsaera eta emozio horien arabera interes natural jakin batzuk defendatzen dituena. Aurreko guztia dela eta, diskurtsoa analitikoki aztertzeak harreman sozialetan eta gatazketan sartzea esan nahi du maiz. Auzi delikatutzat ere har liteke, hartara. Nolanahi ere, ideologia irakurtzeko tresna ahaltsua dugu diskurtsoaren analisia, praktikoa bezain interesgarria, betiere kontu handiz erabiltzekoa.

19. HAUSNARKETA-ARIKETA. Zein da, diskurtsoaren analisia diziplina zientifikoaren arabera, Euskal Herriko hedabiderik neutralena? Zein komunikabidek (irratik, telebistak, webgunek, egunkarik edota aldizkarik) deskribatzen du errealitatea objektiboen? Zergatik?

Diskurtsoaren analisiak lotura garbiak ditu hezkuntza-sistemak bultzatu eta sustatu beharreko herritarron gaitasun kritikoekin (ikus, adibidez, Eusko Jaurlaritzak 2010ean onartutako Haur Hezkuntzarako, Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako dekretu kurrikularra), norberak heldutasun pertsonala nahiz askatasun intelektuala iristeko ezinbestean behar duen **irizpide kritikoa**rekin. Izan ere, lehen adierazi bezala, badu subjektibitaterik errealitatearen gaineko edozein begiradak. Alde horretatik, hainbat testu aztertzeak errealitatea –mundua, bizitza– geure moduan interpretatzen lagunduko digu, delako diskurtsoaz pentsatzen duguna elkarrekin komunikatzearen ondorioz.

Komunikazio-gaitasuna langai dugun honetan, diskurtsoak analizatuz, interpretatzeko tresnak eta abilezia nagusi zenbait eskuratuko ditugu, bakoitzak sentitzen edota pentsatzen duena egoki defenda dezan. Ikusten ari garenez, beraz, **diskurtsoak iruzkintzea benetako praktika da**: egunero denok hainbat aldiz iruzkintzen ditugu beste batzuen idatziak edo esanak, nahita eta nahi gabe. Kontua da eguneroko analisi horiek ez direla oso sakonak, ez direla oso zientifikoak, nolabait esatearren. Beraz, ikasmaterialaren puntu honi esker, ahaleginak egingo ditugu diskurtsoen analisi zehatzetan aritzeko, era pertsonalean zein profesionalean geure burua hobeto prestatzeko asmoz, geure irizpide kritikoa zorrozten segitzeko asmoz.

Diskurtsoak analizatzea ideologia irakurtzea dela aldarrikatua du behin baino gehiagotan Cassany irakasle-ikertzaile ezagunak. Hala ere, badakigu zer den ideologia irakurtzea? Eta irakurtzea?

20. HAUSNARKETA-ARIKETA. Azal iezaiozu ikaskide bati zer den irakurtzea, zertan den pertsonok dugun irakurtzeko ahalmena. Esango zenuke testuak ulertzeko zailtasunik (ez) duzula normalean? Inoiz? Zein egoeratan? Zein testu motarekin?

Cassanyk berak dioskunez (2006a), testu baten irakurketa sakonak hiru maila ditu: lerroak irakurtzea (esplizitua), lerro artean irakurtzea (inplizitua) eta lerro atzean irakurtzea (bertan datzan asmoa). Arestiko kontzepzio horren arabera, irakurtzeak ahalmen konplexua dirudi. Hala izaki eta. Izan ere, testu bat irakurtzea testu bat ulertzea da, eta, horretarako, testu bat osoki ulertzeko, **testuaren esanahia eraiki beharra** dago. Nola? Bada, goragoko irakurketa-maila guztiak ezarriz: lerroak, lerroen artekoa eta lerroen atzekoa. Bestela adierazita, irakurketa literalaz gain, inferentziak, interpretazioak eta balorazioak egin behar dira, diskurtsoa sakonki ulertu eta modu pertsonalean iruzkintzeko.

3.Koadroa: Irakurmenaren hiru mailak, Cassanyren (2006a) arabera

1. **Lerroak** irakurri: irakurketa literala, hitzez hitzekoa
2. **Lerroen artekoa** irakurri: hitzen konnotazioak eta testuaren inplizituak berreskuratzea
3. **Lerroen atzealdea** irakurri: testua interpretatzea, baloratzea (Zer lortu nahi du autoreak? Zergatik idatzi du? Noiz, non? Zein beste diskurtsorekin lot daiteke? Ados zaude? Zergatik bai/ez? …

Iturria: egileak moldatua

21.HAUSNARKETA-ARIKETA: Teorian ikusi berri duguna ikusi ondoren eta ondorioz, kapaza zinateke irakurle onaren eta irakurle txarraren arteko aldeak zein diren zerrendatzeko? Zure ustez, zer egiten du irakurle on batek eta irakurle txar batek testu bat irakurtzean? Badu honek guztiak loturarik lehen jorratu dugun alfabetatze akademikoarekin?

Jarraian, diskurtsoaren analisian berariaz trebatzeko asmoz, **testuak aztertzeko gida** estandar bat eskainiko dugu, betiere orain arte azaldu diren printzipioei jarraika. Alde horretatik, eta Cassanyren *Taller de textos* beste lan baten arabera (2006b), iruzkin on batek honako hiru alderdiok aztertu beharko lituzke, gutxienez:

1. Testuingurua eta alderdi soziokulturalak.
2. Diskurtsoari edo testuari dagozkion alderdiak.
3. Hizkuntzari dagozkionak.

Halako analisi soziodiskurtsiboak egiteko, prentsa erabiliko dugu ikasmaterial honetan, hain zuzen ere, euskarazko zutabegintza, zeren eta zutabegintzaren generoa aski aproposa izan baitaiteke irakurmena garatzeko, eta, beraz, diskurtsoaren analisian jarduteko: iritzizko genero berezi honi esker, besteak beste, aukera izango dugu testuko edukiak kritikatzeko, bertatik interpretazio pertsonalak eginez (cf. Cassany, 2006b).

Testuak eta diskurtsoak analizatzeko proposamen honetan, urratsez urrats joango gara, hau da, **zehatzetik orokorrera**, iruzkin **linguistikotik** iruzkin **komunikatibora**, autorearen hitzetatik geure hitzetara, irakurmenaren hiru mailetan arituz.

4.Koadroa: Testuak analizatzeko proposatzen ditugun urratsak

1) **Testu-antolatzaileak** aurkitzea[5]
2) Paragrafo bakoitzaren **ideia nagusiak** identifikatzea
3) **Egilearen tesi nagusia** azaltzea
4) Zu zeu bertako tesi nagusiarekin **ados zauden ala ez argudiatzea**.

Iturria: Egileak egina

Esan gabe doa testuak aztertzeko hainbat modu eta molde egon daitezkeela. Areago ere esan liteke: halako analisietan trebatua den pertsonak ez du gida finkoen beharrik izaten, testuekin lan egitearen poderioz aski barneratua izango duelako haiek sakonki ulertzeko prozedura. Horrenbestez, arestian aurkeztu dugun gidak bereziki trebatzeko bidean dauden horiek ditu helburu, diskurtsoei ahalik eta zuku gehien ateratzen ikasteko asmoz.

Gidan ageri diren urratsei dagokienez, argitu beharra daukagu lehenbiziko biak identifikazio-lana direla, eta azken biak elaborazio-lana. Urratsez urrats ari garenez, egilearen tesi nagusia azaltzeko komeni da aurretik identifikatu diren ideia nagusiak

5 Gogoan hartu testu-antolatzaileen zerrenda bat erantsi dugula eranskinetan, laguntza gisa.

erabiltzea. Era berean, tesia argiro azaldutakoan, tenorea da argudiatzeko zein neurritan gauden ados diskurtso horrekin eta zein neurritan ez, behar adina arrazoi erakutsi eta baliatuta. Ondorioz, aurreneko bi pausoak ezinbestekoak dira analisia ondo gauzatzeko, eta azken bi urratsek lanketa diskurtsibo-intelektual handiagoa eskatzen dute. Nolanahi ere, sintesi-gaitasunaz jokatzea lehenesten da, alferrikako betelanak saihestuz.

22. HAUSNARKETA-ARIKETA. Prentsatik hautatutako bi zutabe aztertuko ditugu jarraian, testuak analizatzeko proposatu berri dugun gidaren arabera:

LEHEN TESTUA:

Sarean murgilduta (Eider Carton, *BERRIA*, 2013-01-10)

Zutabe hau BERRIA egunkarian ari zara irakurtzen, eta, beharbada, papereko edizioan, baina zientziari buruz zer edo zer jakiteko nora joko zenukeen galdetuko balizute, oso litekeena da zure erantzuna ez izatea «egunkaria», baizik eta Internet. Hala erantzun dute estatubatuarren %60k, FECYT erakundeak 2012an egindako zientzia eta teknologiaren pertzepzio-inkestan. 2002tik egiten du inkesta hori FECYTek bi urtez behin, eta, orain arte, telebista zen lehendabiziko informazio-iturria. 2012an, ordea, Internet baino 10 puntu atzerago geratu da telebista, bigarren tokian.

Gaur egungo on-line inguruneak zientzia-informazioren zabalkundean duen eraginari buruzko artikulu baten harira datoz datu horiek. *Science* aldizkariak argitaratu du artikulua, joan den ostiraleko zenbakian. Wisconsin-Madison Unibertsitateko Dominique Brosard eta Dietram Scheufele ikertzaileek sinatzen dute, eta, gogoetarako hiru puntu interesgarri aurkezten dituzte, zientziaren komunikazioan dihardugunok behintzat kontuan hartzeko modukoak.

Lehenengo puntua zientzia-kazetaritzari berari buruzkoa da. Aipatzen dute, Interneten zientzia-informazioa ugaritu den arren, komunikabide tradizionalen lepotik

hazi dela, eta, haietan, espazioa galdu besterik ez duela egin 1990eko hamarkadatik. AEBetan zientziari buruzko informazioa Interneten bilatzen dutenen % 12k jotzen du egunkarien eta aldizkarien webgunetara, baina ia erdiek nahiago dituzte bestelako iturriak, besteak beste, blogak. FECYTen inkestan jasotako datuek ere joera bera erakusten dute. 2010ean komunikabide orokorrak ziren Interneteko informazio-iturri nagusiak, publikoaren % 30,9k jotzen zuen haietara, eta % 18k sare sozialetara. Sarea da tokia, beraz.

On-line ingurune horretan, bilatzaileek eta sarearen ezaugarriek zientzia-informazioaren zabalkundean eta pertzepzioan duten eraginaz hausnartzen dute egileek bigarren eta hirugarren puntuetan. Hala, zientzia eta ezagutza hedatzeko zeregina dela eta, gako gerta daitekeen hurrengo galdera hau plazaratzen dute: «Edozeinek erraz aurkituko duen zientzia-informazioarentzat mundu bat sortu da ala bilatzaile nagusiek gero eta gehiago baldintzatuko duten eredu baterantz goaz?».

Amaitzeko, Interneten izaera sozialari dagokionez, oso adierazgarria da aipatzen duten esperimentua: ikerketa batek sarean jasotako iruzkinen trukeak zuzen eragiten du irakurleek ikerlana hobeto ulertzeko. Ondorioz, informazioa irakurleen iruzkinekin hornituta partekatzea ezinbestekoa dela baiezta daiteke, zientziaren komunikazio eraginkor eta eraikitzaile bat lortu ahal izateko.

BIGARREN TESTUA:

Beldurgarria (Karmele Jaio, *Diario de Noticias de Álava*, 2010-12-24)

Bi emakume kalean berbetan. Hirurogei urte inguru bakoitzak. «Bizitzak berak ematen du beldurra, bai, bizitzak berak», esan dio batek besteari. Ez dago elkarrizketa zati bat entzutea baino pizgarri hobeagorik imajinazioarentzat. Haien elkarrizketaren gaia asmatu nahian egin dut aurrera, eta pentsatu dut urteekin, zimurrekin batera gehien hazten den gauzetako bat beldurra dela. Gaztetan ez dago beldurrik, eta ez da gazteak pertsona helduak baino ausartuagoak direlako, kontua da ez direla arriskuaz ohartzen. Benetako ausartak arriskuaz ohartu arren, beldurra gainditzen dutenak izaten dira. Urteekin arriskuak tamainaz handitzen dira eta norbanakoaren burua babesteko ahalegin gehiago egiten dugu. Nire lagun batek dio, hainbeste urteren ondoren, maitasuna hartu

diola bere buruari, eta horregatik jada ez dituela egiten gaztetako zorakeri batzuk, orain arriskutsuak iruditzen zaizkionak.

Beldurra onuragarria izan daiteke neurri batean, arrisku askotatik urruntzen gaituelako, baina gehiegizko beldurra kaltegarria da guztiz, askatasunaren bidean oztopo bat, paralizatu egiten gaituen tresna delako. Norbanakoentzat kaltegarria dena, aldiz, onuragarria da mundua gidatzen duten botereentzako, beldurra baita gizakia kontrolatu ahal izateko tresnarik eraginkorrena. Ez da harritzekoa beraz beldurrean oinarritua egotea pairatzen dugun sistema politiko eta sozial hau.

Horregatik, beldurra bera da beldurgarria. Izan ere, pertsonarik arriskutsuenak beldurra dutenak izaten dira. Beldurrak muturreko gauzak egitera eramaten ditu pertsonak, eta are okerragoa izan daitekeena kasu askotan, gauzak ez egitera eramaten ditu, gauzak egiteko ausardiarik ez izatera. Norbanakoaren beldurrak kolektiboaren beldurra dakar, eta ondorioz honen paralizazioa ere. Jendartearen desmobilizazioa.

Gogoz geratu naiz kalean berbetan zegoen bikoteari erantzuteko bizitzak berak beldurra eragin dezakeela, bai, baina are beldurgarriagoa dela beldurra bera.

Laburbilduz, oinarrizko kontzeptuei dagokien lehen kapitulu hau amaitzeko, hiztun eta hizlari ona da **testua eta testuingurua uztartzen trebea** den pertsona. Gainera dezagun, gisa berean, hiztun eta hizlari onak aukera gehiago dituela irakasle ona izateko (askoz ere). Eta, hezkuntzaz ari garen honetan, gogoan hartu behar dugu irakaslearen lan komunikatiboa ez dela gelan bukatzen, eskolan lankideekin eta gurasoekin mintzatzea ere ohiko jardun profesionalak izaten direlako irakaslearentzat. Hortaz, umeekin eta helduekin arrakastaz komunikatzeko trebatu beharko du maistra-maisuak, lanean profesionaltasunez jardungo badu.

1.6. Komunikazioan trebatzen segitzeko ariketa eta galdera gehiago



Lehenik eta behin, saia zaitez berriz egiten atalaren hasieran dagoen «Gaitasunak eta edukiak hausnarrean girotzen» izeneko galdetegia, orain arte landutako azalpen eta jarduera guztiak gogoan harturik. Printzipioz, galdera guztiei erantzuna emateko moduan egon beharko zenuke. Hala suertatu ezean, punturen bat sakonago landu beharrean zaudela iradokiko luke horrek:

23. HAUSNARKETA-ARIKETA. Haurrek maiz entzuten duten esaldia da «Nagusiei ez zaie horrela hitz egiten». Zer azpigaitasunetan hezi nahi du esaldi horrek? Azpigaitasun horren zein alderdi agertzen da zehazki esaldian? (*in* Ruiz Bikandi, 2009: 109).

24. HAUSNARKETA-ARIKETA. Ikusle batek telebista piztu du, eta hasita zegoen albistegiko aurkezleari aditu dio «5.6 Ritcher eskalan», eta berehala ohartu da lurrikara bati buruzkoa dela berria. Zeri esker jakin du hori? (*in* Ruiz Bikandi, 2009: 109)

25. HAUSNARKETA-ARIKETA. Diskurtsoaren analisiaren arabera, posible da errealitatea modu erabat objektiboan deskribatzea? Zergatik bai/ez?

26. HAUSNARKETA-ARIKETA. Prentsatik hautatutako bi zutabe aztertuko ditugu jarraian, testuak analizatzeko proposatu dugun gidaren arabera:

Zentsura (Rikardo Arregi Diaz de Heredia, *Deia*, 2011-06-22)

Zentsura hitza entzun eta frankismoa datorkit burura (adinaren kontua izango da), edo Siria, edo Txina; zentsura gogor eta disimulurik gabeko hori, egunkariak itxi edo artikuluak zuzenean ezabatzen zituena, kazetarien bisitak edo webguneetara bisitak, keinu batez eta dardarik gabe, debekatzen dituena. Bere buruaz oso kontziente da zentsura hori. Baina urteak bete ahala (adinaren kontua izango da) deskubritzen ari naiz badela beste zentsura mota bat, bigunagoa, oharkabean pasatzen dena, bere izena, zentsura, disimulatu nahi duena irensgarriago egiteko.

Ez dakit bi zentsura mota horien artean zein den arriskutsuena. Zentsura gogorra, behintzat, aurrez aurre jartzen da eta adierazpen askatasunari eginiko erasoa da argi eta garbi. Egia da giza eskubideen gainbehera ari garela ikusten gure garai hauetan, baina zentsura gogorraren aurrean defentsa, edo salaketa behintzat, erraz antola daiteke. Zentsura bigunaren aurrean zaila da defentsa eratzea. Artikulu batean lerro bat kentzea, hitz bat aldatzea, adjektibo bat ezabatzea, garrantzi txikiko gauzak izan daitezke iskanbila handiegiak sortzeko. Zentsura bigunak eremu pribatua nahiago du eta ez publikoa, aholkuaren janzkera erabiltzen du eta ez aginduarena. Protesta egiten bada, zentsura bigunak histerismoa aterako du berehala hizpidera, halako huskeriengatik oihukatzea barregarri bihurtzeraino. Zentsura bigunak apenas okertzen du muturra.

Manipulazio gogorrak (zentsuraren beste forma bat) eskandalagarri bezain irrigarriak izan daitezke: *La Razón* egunkariak igandeko manifestazioaren argazkiarekin

egin duena, adibidez. Zentsuraren forma bigunak, baina, eskandalagarriak izan arren, ez dira irrigarriak; zentsura bigunak erakusten duen hipokresiak ozpin zaporea du, gogoa samintzen digu, pentsamendu librea mikazten du.

Irizpide kritikoa (Marian Iriarte, EHUko Kimika irakaslea, *Berria*, 2012-02-02)

Lehenengo lauhilabeteko azterketak amaituta, 1. mailako ikasleekin estreinatu naiz duela astebete. Irakasle gehienoi esplikatzen duguna oso garrantzitsua dela iruditzen zaigu, eta eduki horiek gabe ikasleek hutsune galanta izango dutela uste dugu. Ez dago gaizki norberaren estima goian izatea, eta gure jakinduria aintzakotzat hartzea, baina azkenengo urteetan hezkuntza-sisteman «sufritu» izan ditugun etengabeko aldaketak direla medio, garbi daukagu eduki asko eta asko ez direla «hain garrantzitsuak», edo, beste hitz batzuetan esanda, gure eskolak nahi eta nahi ez moldatu behar izan ditugula. Horrexegatik, gero eta garbiago izan behar dugu etengabeko aldaketak dituen gizarte honetan zeintzuk izango diren gure ikasleek jaso beharreko ezinbesteko gaitasunak.

Atsegin dut unibertsitatera bildu diren gaztetxoei zientziaren habeak zeintzuk diren behin eta berriz azpimarratzea. Gauza asko eta asko esplikatzen ditugu, baina jakin egin behar dute lege, hipotesi, hastapen, teoria, e.a.-en artean dauden ezberdintasunez jabetzen. Gurea zientzia esperimentala da, eta izen horrek ematen dizkio bere ezaugarriak. Legeak beti betetzen dira, hipotesiak zerbaitetan oinarrituta proposatzen dira, hastapenak matematikoki azaltzea erraza izan daiteke. Baina, edozein modutan ere, esperimentuetan lortutako emaitzek egiaztatu egin behar dituzte proposatutako guztiak; bestela, bereak egin du. Eta datu esperimentalez ari garenean, behin eta berriz azpimarratzen diegu ez dela nahikoa behin lortutako datu soila. Gizakiok akats asko egin ditzakegu, batzuk nahita eta beste batzuk oharkabean; baina, horretaz gain, esperimentuari berari lotutako kontrolaezinezko erroreak gaindiezinak dira. Horregatik, estatistikak ematen digun aukeraz baliatzeko esaten diegu. Neurketak laborategian errepikatu egin behar izaten dira, eta datu horietatik tratamendu estatistiko egokiak erabiliz joerak, ondorioak edo emaitzak lortzen dituzte ikasleek laborategietan.

Etorkizuneko zientzialariak hezteko ardura daukagu; eduki asko eta asko liburuetan izango dituzte eskuragarri, Internet iturri amaigabea hortxe izango dute eskura, eta, horregatik, garrantzizkoena irakasleok euren irizpide kritikoa jorratzea eta lantzea da.

Hezkuntza-sisteman aldaketa sakonak proposatzen ari dira berriro ere. Espero dezagun egin beharreko aldaketak gizarte osoaren kontsentsua izatea, bestela politikariak aldatzen diren bakoitzean gaztetxoen hezkuntza alde batera edo bestera mugituz joango da.

2. ESPARRU AKADEMIKOKO TESTUAK: AZALPENA ETA ARGUDIATZEA

2.1. Azalpen akademikoa

If you can't explain it simply, you don't understand it well enough (*Albert Einstein*i egotzia, 1879-1955)

(Ezin baduzu zerbait erraz azaldu, ez duzu hori oso ongi ulertzen)

Aurkibidea

2.1.1.Aurkezpena, egitura eta helburuak
2.1.2. Gaitasunak eta edukiak hausnarrean girotzen
2.1.3. Azalpen akademikoaren ezaugarriak
2.1.4. Azaltzeko estrategia komunikatibo nagusiak
2.1.4.1. Egituraren esplizitazioa (sarreran)
2.1.4.2. Testu-antolatzaileak ondo baliatzea
2.1.4.3. Azalpenari amaiera ona ematea: epilogo komunikatiboa
2.1.4.4. Komunikazioaren giltza: interakzioa zaintzea
2.1.4.5. Informazio-dentsitatea erregulatzea
2.1.5. Testua eratzeko ezinbesteko bi osagai: paragrafoa eta esaldia
2.1.5.1. Paragrafoak
2.1.5.2. Esaldiak
2.1.6. Testua idazteko hiru aldiak: planifikatu, testuratu, errebisatu
2.1.6.1. Planifikatu
2.1.6.2. Testuratu
2.1.6.3. Errebisatu
2.1.7. Azalpen-ereduak aztertzen, akatsen erabilera didaktikoa egiten
2.1.8. Komunikazioan trebatzen segitzeko ariketa eta galdera gehiago

2.1.1. Aurkezpena, egitura eta helburuak

Komunikazio-gaitasuna funtsatzen duten oinarrizko kontzeptuak jorratu ondotik, bigarren atalari ekingo diogu segidan. Horretarako, esparru akademikoko testuak analizatuko eta ekoitziko ditugu, gradu osoan zehar sortu beharko ditugun generoetan berariaz trebatzeko asmoz. Ikasmaterialaren atarikoetan agertu dugun eran, bi testu mota nagusitan zentratuko gara: **azalpen akademikoa**n eta **argudiatze akademikoa**n. Genero bakoitzari kapitulu bat eskainiko diogu. Has gaitezen, beraz, azalpen akademikoari dagokionarekin.

Azalpenaren inguruko galdetegi batez girotuko dugu langaia. Alde horretatik, komeni litzateke gogora ekartzea **azalpena** dela edozein etapatako **irakasleak** haren **lanbidean maizen erabiltzen duen testu mota**. Bestela esanda, irakasleak azaltzaile profesionalak ditugu. Horra hor azalpen egokiak ematearen garrantzia irakaslegai batentzat.

Esan dezagun, hortaz, kapitulu honen xede nagusia dela azalpen akademiko txukunak emateko orientabideak eskaintzea, **bereziki idatzizko azalpena**ri dagokionez. Hori dela bide, azalpenaren gaineko oinarrizko teoriarekin hasiko gara, orain arteko formazio linguistiko-komunikatiboan sakontzeko asmoz. Prozesu horretan, enfasia emango diegu azalpena behar bezala egituratzeko estrategiei zein testua testuingurura txukun egokitzeko baliabideei. Nolanahi ere, testua eratzen duten esaldiez eta paragrafoez ere jardungo dugu, bai eta, lehengo alfabetatze akademikoa gogoan, unibertsitateko ikasle berriek nekez ezartzen dituzten testuaren hiru aldiez ere.

Aurreko atalean bezalaxe, hainbat ariketa, galdera eta gogoeta proposatuko ditugu hor-hemenka, **teoriaren eta praktikaren arteko joan-etorri etengabean** gehiago eta hobeki ikasiko dugulakoan, Hizkuntzaren Didaktikan ohi den gisan (Camps, Guasch eta Ruiz Bikandi, 2009).

2.1.2. Gaitasunak eta edukiak hausnarrean girotzen

Aurreko kapituluan egin dugun bezala, galdetegi bat prestatu dugu kapituluko gaitasunak eta edukiak girotzeko. Gogoan hartu behar da galdetegiaren xede nagusia ez dela berehalako erantzunak lortzea, baizik eta azalpen akademikoaz gogoeta emankorrak egiten hastea.

- Nola definituko zenuke azalpena? Eta azalpen akademikoa?
- Zein ezaugarri nagusi ditu, zure ustez, azalpen akademikoaren generoak?
- Zein antzekotasun dute azalpen idatziak eta ahozkoak? Zein desberdintasun?
- Ezagutzen dituzu azalpenak ez diren beste testu edota genero batzuk? Zein?
- Irakurri al duzu Albert Einsteini egotzitako esaldia? Zure ustez, zer esan nahi zuen horrekin zientzialari ezagunak?
- Badakizu zer den modalizazioa?
- Ba al duzu estrategiarik lan akademikoak idazteko orduan? Zein?
- Badakizu zein den idazle «berri»en eta idazle «aritu-aditu»en arteko alde nagusia?

2.1.3. Azalpen akademikoaren ezaugarriak

Azalpena kategoria zabala da, berez. Dena den, eman dezagun azalpenezko testuaren definizio bat, zertaz ari garen jakitun izan gaitezen: **informazio berriak argitzen dituen testu mota** da, zeinak asmo agerikoa baitu informazio berri edo ezezagun horiek **hartzaileak hobeki uler ditzan**. Hori dela eta, giro akademikoan aski ohikoak izaten dira azalpenezko diskurtsoak, bertan hainbat gai tekniko eta informazio espezifiko berri transmititzen direlako. Halaber, informazioaren jendartean baikaude, ia nonahi eta noiznahi agertzen zaizkigu azalpenezko testuak, zailagoak gerta daitezkeen informazioak ulerrarazteko, hobeki komunikatzeko (Alvarez, 2004).

Sozialki indar betean diren testu mota hauek hartzailearen ezagutza areagotzea dute helburu. Aurrekoaren ondorioz, esplizituki nahiz inplizituki, hasieran planteatutako galdera bati nolabaiteko erantzuna ematen zaio testu osoan zehar. Horretarako, geroago ikusiko dugun bezala, ezinbesteko baldintza da informazioa modu ordenatuan eta hierarkia egokian ematea, azalpen on bat erdietsi nahi duen hiztunarentzat edota idazlearentzat.

Testua eta testuingurua egokiro uztartzeko asmoz, orain arte ikusi eta landutako lau testu-erregelak betetzen saiatuko baldin bagara ere, hauetako bati erreparatuko diogu bereziki azpiatal honetan: egokitasunari. Hori dela eta, geroago ikusiko dugunez, azalpenean txertatzen jakin beharra dago zehaztasuna, zorroztasuna, formaltasuna eta objektibotasuna ematen duten osagaiak; eta egileak bere iritziak gorde eta **informazioa ahalik eta modu objektiboenean** aurkezteko aholkatu ohi da.

Larreak eta Maiak dakartenez (2010: 50), «azalpenik gertatzeko, informazioa izan behar da lehenago. Pertsona batek informazio emanen badu, hura ikasi beharko du edo bilatu, behar den iturrietan». Gorago adierazi den moduan, azaltzea jakinaraztea da, ulerraraztea; eta horretarako, jakintza aurrez aitortzen zaio azalpena egiten duenari, hartzaileari esplizituki argituz azaltzeko gaiak nola funtzionatzen duen edota zein kausa-ondorio harreman ezartzen diren. Beraz, esaten ari garenaren ildotik, igorleak eta hartzaileak ez dute jakintza-maila bera gaiaren inguruan: egilea jakitunagoa, adituagoa da arlo horretan. Bestela, nekez azaldu ahal izango du ezer.

Azalpen idatziek, oro har, eta akademikoek partikularki, honako ezaugarri hauek izaten dituzte:

- Informatu egiten dute (ez entretenitu, ez pertsuaditu, adibidez).
- Argiak dira: zehatzak eta esanahi bakarrekoak.
- Hartzailearen jakintza-mailari eta testuinguruari egokituak: denotatiboak (ez konnotatiboak), terminologia zehatza, estilo ez sobera pertsonala eta erregistro formala.

Lehen atalean ikusi ditugun kontzeptuen arabera, ahaleginak egingo ditugu testu akademiko bati dagozkion estilo eta **erregistro formala**ri eusteko, egoera komunikatibo horretan desegokitzat gerta daitezkeen **kolokialismoak baztertu**z. Esaten ari garenaren adibide tipiko bat jartzearren, oso kontuan hartu beharreko alderdia da **bigarren pertsonaren erabilera**; izan ere, adibideak-eta ematen ari garelarik, testuinguru informalari dagokio bigarren pertsona erabiltzea, eta ez (unibertsitatea bezalako) esparru formal bati.

Halaber, **lexikoa hautatzean**, eginahal bereziak egingo ditugu terminoen artean egon daitezkeen aldeak eta ñabardurak kontuan hartzeko, betiere aldaera zehatza eta egokia hautatuz. Bukatzeko, gero eta ohikoagoa gertatzen da, testu baten egilea aipatzeko, izena bakarrik aipatzea, deitura edota izena eta deitura aipatu beharrean. Arestikoaren adibidea da honako hau: *«Karmelek dioen bezala,» > «Karmele Jaiok dioen bezala,» edo «Jaiok dioen bezala».

1. HAUSNARKETA-ARIKETA. Esan berri duguna kontuan hartzera, honako adibide hauek ez dira egokiak testu akademiko baterako: gaitz batek «ondorio potoloak» dituela, edota gai baten inguruan «iritziak botatzea». Zein izan litezke arestikoen sinonimo egokiagoak?

Azalpenaren egiturari dagokionez, diskurtsoak **sarrera-garapena-ondorioa** eskema tipikoari segitzen dio. Sarreran, zerbait konplexua aurkezten da; hori dela eta, galdera edo korapiloa dator, konpondu beharreko jakintza-arazo gisa. Garapenean, erantzuna ematen zaio aurretik agertu den arazoari, korapiloa askatuz. Ondorioen

fasean, garbi eta ulertua gelditu da hasieran ezezaguna eta iluna zena. Garapena da, ahoz nola idatziz, atalik luzeena eta mamitsuena.

Adamen arabera (1992:117), hiru faseak ditu azalpenaren eskemak:

1.Koadroa. Azalpenaren egitura prototipikoa

Galdera fasea >>> ebazpen fasea >>> ondorio fasea
(arazoa aurkeztu) (arazoa ebatzi) (ebaztearen ondorioa)

Iturria: Adam, 1992

2. HAUSNARKETA-ARIKETA. Argitu berri dugu zein den azalpenaren egitura estandarra. Badakizu zein diren beste testu mota nagusiak?

Kontu jakina da testu baten barrenean izaera ezberdina duten testu zatiak egon daitezkeela. Egunerokoan, adibidez, horrela jokatu ohi dugu, testu tipo ezberdinak uztartuta, kontzienteki nola inkontzienteki. Esan beharra dago hori ez dela arazoa, berez. Arazoa erabilera desegokian egon daiteke, egotekotan; izan ere, jorratzen ari garen azalpenaren baitan izan dezakete lekurik narrazioak edota deskribapenak, azalpenerako lagungarri gerta daitezkeen heinean.

Gorago aipatu ditugun testu zati horiek sekuentziak dira, **testu-sekuentziak**. Adamek bost testu-sekuentzia prototipiko proposatuak ditu (1992): **elkarrizketa**, **narrazioa**, **deskribapena**, **azalpena** eta **argudiatzea**. Horrela, tipologiaren araberako testu monolitikoen ordez, komunikatzeko helburuaren araberako ikuspegi malguagoa dugu: halako testu batean nagusiki azalpen zatiak daude, baina ez azalpen hutsa bakarrik. Hurrengo kapituluan, ahozko argudiatzea hizpide hartzearekin batean, etorriko gara berriz testu-sekuentzien ingurura.

Azalpen akademikoa idazteko lan estandarrari dagokionez, argudiozko sekuentziak saihesten saiatuko gara. Zergatik? Bi arrazoi nagusirengatik: batetik, azalpenaren ondotik argudiatzea landuko dugulako; bestetik, testuinguru akademiko-zientifikoan, garrantzizkoa delako gure iritzia agertzeko hautua kontrolatzen trebatzea.

3. HAUSNARKETA-ARIKETA. Ahoz nahiz idatziz azaltzeko orduan, estrategiaren bat erabiltzen duzu? Zer-nolakoa?

2.1.4. Azaltzeko estrategia komunikatibo nagusiak

Hainbat definizio topa ditzakegu hizkuntza (erabiltzen) ikasteko estrategien inguruan. Nazioartean, orain arte egin diren definizio ezagun eta onartuenetakoa da Oxford-ek emana (1990: 31): «Ikasleak bere ikaskuntza hobetzeko erabiltzen dituen prozedurak dira estrategiak» […] «inplikazio autonomoa eta aktiboa gertatzeko tresnak». Ikasleen estrategiak eta estiloak ikertu dituzten autoreen arabera, esplizituki ikasi eta irakatsi beharra daude estrategiak, hizkuntza hobeki erabiltzen jakiteko.

Komunikazio-gaitasuna ardatz harturik, Vilàk (2005: 45) honela definituak ditu estrategia komunikatiboak: «helburu berari begira harremanetan dauden eta bata bestearen atzetik egiten diren ekintza multzo batez osatutako operazio motak». Izan ere, azalpenaren xedea lortzeko, hainbat estrategia komunikatibo erabili beharko ditu igorleak.

Euskaltzaindiaren *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa* izeneko lanean ageri den bezala (2008: 28-29): «Hizkuntzaren erabileran, erabakien mundura garamatza estrategia terminoak […] Eremu honetan, hiztunari berari dagokio erabakiak hartzea (betiere arauak betez). Ikuspegi honetatik, **erabaki egokiak hartzen dituena da hiztun edo idazle ona**».

Jarraian ikusi behar ditugun estrategia komunikatibo gehienek azalpen idatzia dute helburu, kapitulu honen hasieran adierazi dugun moduan. Komunikazio idatziaz ari garelarik, adierazi beharrean gaude landu behar ditugun hainbat estrategiak idatzizko beste genero akademiko ugaritarako ere balio dutela; beraz, testu akademikoak ondo idazteko teknikatzat ere har daitezke estrategiok.

Nagusiki hizkuntza idatziaz jardungo badugu ere, ez dugu guztiz alboratuko ahozko komunikazioa; zeren eta, eraginkor komunikatzeko gaitasuna lantzen ari garen

honetan, ahozko hizkuntzari ere erreparatu nahi diogu espezifikoki: hurrengo kapituluan jorratuko ditugun eztabaiden bitartez, hain zuzen. Horrenbestez, ondotik aipatuko ditugun ahozko estrategiak gogoan edukiko ditugu argudiozko diskurtsoak lantzen ditugunerako.

Ondoren, bost estrategia linguistiko-diskurtsibo hauek landu behar ditugu: egituraren esplizitazioa, testu-antolatzaileak baliatzea, epilogo komunikatiboa, interakzioa zaintzea eta informazio-dentsitatea erregulatzea.

2..1.4.1. Egituraren esplizitazioa (sarreran)

Idatzi edo esango denaren egitura zein izango den argitzeak eta aurreratzeak aukera ematen dio hartzaileari ikuspegi osoa izateko hasieratik: zertaz jardungo duen egileak; zein atal izango dituen diskurtsoak (Vilá, 2005). Sarreraren bidez, azaldu beharreko gaia arrakastaz azaltzeko, hiru puntu jorratuko ditugu gure testuetan, laburki bada ere: gaiaren **aurkezpena**, gaiaren **justifikazioa** eta diskurtsoaren **egituraren esplizitazioa** agertu beharko dira.

Sarrerak islatu behar dituen hiru puntu horiek paragrafo batean edo bitan txertatzea gomendatzen da, normalean.

4. HAUSNARKETA-ARIKETA. Sare sozialen inguruko azalpen akademiko baten sarrera irakurriko dugu segidan, Haur Hezkuntzako 1. mailako ikasle batek egina. Gorago aipatu ditugun hiru elementuak identifika ditzakezu bertan? Zer iruditzen zaizu sarrera?

«Denok ondo dakigunez, sare sozialak gure gizartean oraintsu hasi dira jendearen bizitzan parte hartzen, batez ere haur eta nerabeen bizitzan, eta egun oso ezagunak dira. Gaurko gaia izateaz gain, interesgarria ere bada; izan ere, gaur egungo gizartean sare sozialak beharrezkoak dira, eta behar den bezala erabiltzea azaltzea oso informazio baliagarria izan daiteke.

Jarraian, testu honen egituraren berri emango da, irakurleak jakin dezan zer-noiz topatuko duen: sare sozialen definizioa, euren kronologia, ezaugarri nagusiak eta motak, abantailak eta desabantailak, gaztetxoengan duten inpaktua eta egoera horren aurrean

har daitezkeen erabakiak. Azalpena amaitzeko, ideia nagusien sintesia eta azalpenaren ondorioa emango dira».

2.1.4.2. Testu-antolatzaileak ondo baliatzea

Lehen esan bezala, ideiak garapenean azaltzen dira bereziki. Hori dela eta, atal honetan hartzen dute pisu gehien estrategia komunikatiboek. Garapenean, testuaren kohesioa eta koherentzia gogoan, ezinbestekoa da **testu-antolatzaileak** erabiltzea ideiak era logikoan garatzeko: *lehenik, ondoren, batetik, adibidez, hau da...* Kontua ez da, bistan denez, testua lokailuz edo testu-markatzailez betetzea, baizik eta irakurleak argi ikustea nondik nora doan diskurtsoa: zenbat eta gehiago erraztu informazioaren ulermena irakurleari, orduan eta komunikagarriagoa gertatuko da gure jarduna.

Arestikoarekin lotuta, gogoan hartu behar dira diskurtsoaren gaineko **deixia**ri erreferentzia egiten dioten testu-antolatzaileak ere; alegia, osatzen ari garen diskurtsoari berari erreferentzia egitea: *gorago esan bezala, ondoren azalduko dugu...* Kohesioa bermatzen duten mekanismo horiei esker, irakurlea errazago mugituko da esaldi edo paragrafo batetik bestera.

Berebizikoa da azalpenaren mamia den garapena paragrafotan antolatzea, **paragrafo bakoitzari ideia nagusi** identifikagarri **bakarra** emanez.

2.1.4.3. Azalpenari amaiera ona ematea: epilogo komunikatiboa

Oso kontuan hartzeko alderdia da guk idatzi beharreko diskurtsoari amaiera ona ematea. Izan ere, maiz aski gertatzen da ez dakigula testuak, akademikoak eta bestelakoak, ondo bukatzen. Ondorioz, testuaren bidez esan nahi dugun horrek indarra galtzen du, hain zuzen, hartzailearengan gehien eragin behar zuen unean: mezuaren amaieran. Ahal dugun neurrian, beraz, saihestu dezagun epilogo kaskar batek ordura arteko lan guztia zapuztea.

Alde horretatik, estrategia bikoitza proposatu nahi dugu, azalpenak xede komunikatiboa arrakastaz bete dezan: aurretik azaldutakoaren **laburpena eta ondorioa** amaieran txertatzea. Laburpenari dagokionez, ohikoa izaten da testuko ideia nagusien sintesia egitea, izenburuan iragartzen denarekin edota sarreran aipatutako galderekin lotuz. Ondorioari dagokionez, berriz, azaldu beharrekoa azalduta erator daitekeen

konklusio nagusiren bat aipatzeak on egin diezaioke azalpenari, prozesuari etekin garbi bat atera bidenabar.

Laburpena eta ondorioa paragrafo bakarrean edo bitan txertatzea izaten da jokamolde estandarra.

5. HAUSNARKETA-ARIKETA. Sare sozialen inguruko lehengo azalpenaren amaiera aztertu nahi dugu ondotik: Nola antolatu du ikasleak bukaera? Zer estrategia bereizten dituzu bertan? Nolako bukaera iruditzen zaizu?

«Laburbilduz, sare sozialak haurren eta nerabeen bizitzaren zati garrantzitsua dira, baina gaztetxoek ez dakite beti modu egokian erabiltzen. Ez da ahaztu behar sare sozialak zer diren eta zertarako balio duten. Era berean, badira hainbat sare sozial mota ondo ezagutu behar direnak, baita beren abantailak eta desabantailak ere.

Bukatzeko, esan beharra dago gauza onak aprobetxatzea eta gauza txarrak baztertzea zentzuzkoa dela, baina ez da beti erraza. Sare sozialak tresna oso erabilgarriak dira, baina ondo erabiltzen eta kudeatzen jakin behar da. Ondorioz, helduen betebeharra da sare sozialetan ibiltzea, ikastea eta, ondoren, gaztetxoei irakastea. Hau eginez gero, haien laguntzaz hobeto bizi gaitezke, haien esklabo bihurtu gabe».

2.1.4.4. Komunikazioaren giltza: interakzioa zaintzea

Interakzioa edo elkarreragina dugu **komunikazioaren giltzarria**, ahoz nola idatziz. Horretarako, hartzaileak ere komunikazioaren partaide senti daitezen, oso gomendagarria suerta daiteke azalpen akademikoa elkarrizketa formalaren moduan ulertzea, igorleak hartzailearen lekuan jartzen jakinez.

Ondotik jorratu behar ditugun estrategia guztiek helburu dute interakzio komunikatiboa zaintzea: jakintza-maila ezberdinak kudeatzea, ulermena erraztea eta modalizazio egokia egiten baliatzea. Ikus ditzagun hiru baliabideok, banaka.

6. HAUSNARKETA-ARIKETA. Zergatik diogu harremana zaintzea dela komunikazioaren giltza? Uste duzu nahikoa zaintzen ditugula gure eguneroko interakzioak?

Jakintza-maila ezberdinak kudeatzea

Igorleak saiatu beharko du hartzaileak aurretiaz zituen informazio eta jakintzekin lotzen informazio berria; hala, hartzailearen inplikazioa areagotuko du, haren interesa piztuko, diskurtsoa modu ez-aldebakarrekoan garatzen dela ziurtatuko. Hartzaileak eta igorleak komunean dituzten jakintzei erreferentzia egiteak, esperientzia partekatuak aipatzeak, gaurkotasunari erreferentzia egiteak edota galderak planteatzeak lagun dezakete hartzailearen eta igorlearen jakintza-maila ezberdinak elkarri lotuta egon daitezen.

Ahozko azalpenen kasuan, elementu ez-ahozkoek eta prosodikoek berebiziko garrantzia dute testua testuingurura egokitzeko, bai eta entzulearekiko interakzioa zaintzeko ere. Elementu ez-ahozkoek (keinuak, begirada, mugimenduak, aurpegiera...) balio dute, azalpenari laguntzeko ez ezik, igorleak elementu ez-ahozko horiei esanahia emateko ere. Elementu prosodikoek, aldiz, (intonazioa, intentsitatea, lastertasuna, tonua) garrantzi handia dute diskurtsoa testuingurura egokitzerakoan ere. Hala, intonazioak balioko digu informazioa antolatzeko, atal desberdinak bereizteko. Erritmoak (motelago edo lasterrago) ere balio digu azalpena artikulatzeko eta testuingurura egokitzeko: etenak egin daitezke, azkarrago edo motelago ahoskatu...

Ulermena erraztea

Bistan da idazlearen eta irakurlearen arteko **harremana zaindu** beharra dagoela, hortaz. Azalpenaren definizioa gogoan harturik, berez ulertzen zaila dena ulerterrazago bihurtu behar dugu. Hitz batez adierazteko, delako gaiaren ulermena erraztu behar zaio irakurleari; horretantxe datza, hain zuzen, aurkeztu behar dugun estrategia komunikatiboa.

7. HAUSNARKETA-ARIKETA. Irakur ezazu *Berria* egunkaritik hartutako Anjel Lertxundiren zutabea: zer uste duzu esan nahi duela idazleak? Zutabearen argitan, ba dago alderik irakurterraza eta idazterraza izatearen artean? Erraza al da erraztea?

Anjel Lertxundi (*Berria*, 2011-09-07)

«Hain da zaila hain erraz jokatzea!», zioen Cesc Fàbregas futbolariak joan zen igandean, eta haren suspirio baten moduko esaldiak eta nire deformazio profesionalak idazkuntzaren joko-zelaira eraman ninduten ni, Axularren hausnarketa baten haritik: ondo prestaturik baldin bagaude, dio Axularrek, gure lanaren emaitza «ez gaitz, baina erraz; ez hertsi, baina zabal; ez pisu, baina arin eta plazent» gerta omen liteke. Goi mailako literatur baten araubideko hitzak ematen dute, nahiz Axular ez zen idazkuntzaz ari: lan handia egin beharra dago bakardadeko entrenamenduetan, emaitza fresko biziak eskainiko badira.

Guk dakigula, Fàbregas-ek ez du Axular ezagutzen, baina beharbada irakurriak ditu Mercè Rodoredaren lanak eta irakurria du agian idazleak bere *La plaça del Diamant* nobelaz esan zuena ere: «Aipatzen didatenean nire lanen irakurterraztasuna, idazterakoan izandako nekeetara joaten zait burua».

Ariketa honen ondoren eta (agian) ondorioz, testu baten «erraztasunak» eta «zailtasunak» beste era batez ikusiko ditugu aurrerantzean. Esaerak dioenez, «dakienak daki»; hau da, dakienak daki argitzen, azaltzen, errazten. Ez dakienak, berriz, beste aldera egiten du, diskurtsoa iluntzera, korapilatzera, zailtzera. Horrenbestez, testuak benetan ulergarriak gerta daitezen, lan handia egin beharra dago.

8. HAUSNARKETA-ARIKETA. Ulermena errazteko trebetasunak lantzeko, ariketa bat proposatu nahi dugu. Klaudio Harluxet Fundazioak argitaratutako Euskal Hiztegi Entziklopedikoan «erretorika» hitzaren definizioa atera dugu, testua lasai irakurri eta ondo ulertu ondoren, ahoz azal diezaiozun ikaskide bati. Kontuan hartu testua modurik errazenean azaltzea dugula helburu, betiere mamia edo funtsa aldatu barik.

«ERRETORIKA. *iz*. Ongi hitz egiteko eta idazteko artea eta erregela- eta prozedura-multzoa. *Erretorika-liburua*.

ENTZ. Grezia klasikoko demokrazian (K.a. V. mendean) kokatu behar da erretorikaren sorrera, hain garrantzizkoa bihurtu baitzen jendaurrean ideia politikoak komunikatzeko eta herritarrak norberaren ideietara erakartzeko hizketa-trebetasuna. Horri begira eskola bereziak sortu zituzten filosofo sofistek (Protagoras, Gorgias, ea.), eta ordutik aurrera 2.000 urtez funtsezko ikasmaterial bihurtu zen Mendebaldeko hezkuntza-sisteman. Jendea limurtzeko trebetasuna zen horientzat erretorika, eta funtsezko garrantzia zuen hitzaz baliatzen jakiteak, egia objektiborik ezean, hori erlatiboa zenez. Platonek eta Aristotelesek, presupostu filosofiko desberdinetatik, beren kezka filosofiko bizitzat hartu zuten erretorika, hitzaren, egiaren eta etikaren arteko harremanaren kontua zegoelako tartean; biek idatzi zituzten garrantzizko obrak erretorikari buruz.

Erromako Errepublika garaian funtsezko ikasmaterial bihurtu zen *ars oratoria*, grekoen erretorikaren parekoa; Zizeronek, erromatar hizlari nagusiak, hainbat obra idatzi zuen, batez ere ikuspegi didaktikotik eta hitzaldiak egiteko teknikatik begiratuta. Dena dela, M.F. Kintilianok idatzitako *Institutio oratoria* izan zen mende luzeetan erretorikaren testuliburu klasikoa, non erretorikaren alderdi etikoak nabarmentzeaz gain, horren alderdi teknikoak ere azaltzen baitziren.

Erdi Aroko irakaskuntza-sisteman zazpi arte liberaletako bat zen Erretorika, eta unibertsitatean irakasten zuten. Errenazimentutik aurrera, ordea, testu idatziaren analisi eta kritika bihurtu zen; eta idazkeraren estiloaren azterketan formaren dotorezia-baliabidea eta estilo-figurak aztertu ohi zituen bereziki. Orain dela gutxi arte apaizgaitegietan landu izan dute, bereziki, "ars oratoria", klasiko greko eta erromatarren adieran: hau da, jendaurrean mintzatzeko antze gisa.

Gaur egun zabaldu egin da erretorikaren alorra, hitzezko nahiz idatzizko komunikazio-modu guztiak, entzuleak edo irakurleak limurtzea bilatzen dutenak, bere baitan hartzeraino: gizarte-komunikabideetako hizkera, publizitatearena, propaganda, etab. Bestalde, erretorikan arreta ez da komunikazio-sortzaileari eta hizketari buruzkoa bakarrik, baita komunikazio-hartzaileari eta interpretazioari buruzkoa ere».

Modalizazio egokia egitea

Testuinguruari begiratu berezia ematen ari gatzaizkion honetan, nahitaezkoa dugu modalizazioaren mekanismoaz berba egitea. Zer da, baina, modalizazioa? Cuencaren esanetan (2007: 34-35), modalizazioa «deixiaren pare, kohesio mekanismoa da, zeinaren bidez subjektibitate-marken berri ematen baita». Esnalek dioenez (2009: 92): «modalizatzean, enuntziatzailea ez da mugatzen zerbait esatera. Aldi berean, besterik ere eransten dio esaten duenari: iruzkin edo ebaluazio bat». Beraz, enuntziatuak modalizatzean, *zer* esaten den baino gehiago interesatzen zaigu *nola* esaten den.

Bestela adierazteko, **diskurtsoa sujektibizatzea** da modalizazioa; hori dela eta, mekanismo linguistiko-diskurtsibo honek mezuaren neutraltasuna hausten du, ñabardura subjektiboak gehitzen ditu, esandakoa nolabait erlatibizatuz. Baliabide horren ondorioz, hizlariaren edo idazlearen ahotsa nabarmentzen da, esaten duenari buruz duen **ikuspuntua** agerian utziz. Ziurtasuna, zalantza, posibilitatea edota testuarekiko inplikazioa agertzeko gradu eta modu ezberdinak ditugu aukeran.

Izan ere, azalpenezko testuak objektibo(ago)ak izaten dira, datuetan oinarritzen diren heinean; argudiozko testuak, berriz, subjektibo(ago)ak izaten dira, arrazoietan funtsatzen diren aldetik. Gure ikuspegiaren berri eman ala ez, gure iritzia agertu ala gorde, **hautu kontzientea** izan behar du: komunikazio-gaitasunarekin lotu-lotua da mekanismo hau ohartuki kudeatzea. Hala gomendatzen du, besteak beste, Cassanyk (2007: 44-45):

> Los lingüistas lo llamamos la *modalización* del discurso, es decir, los indicios lingüísticos que muestran la actitud del autor con respecto a lo que dice. […] ¿Y conviene evitar estas expresiones? ¡Sí y no! Es más inteligente tomar conciencia de ello e intentar gestionarlo: ser explicito cuando nos convenga dar una opinión, o evitar los referentes implícitos o imprecisos y las connotaciones coloquiales cuando pretendamos describir hechos de la manera más empírica posible.

Hainbat modu eta elementu daude diskurtsoak modalizatzeko:

1. Lexikoa: izenak (neutroagoak/baloratiboagoak), adjektiboak (ezinbestekoa/komenigarria da); aditzak (sentimenduen ingurukoak: gustatu, gorrotatu…)
2. Testu-antolatzaileak (segur aski / beharbada, beti/sekula ez…)

3. Tipografia (kakotxak)
4. Prosodia ahozko komunikazioan (intonazioa, pausak…)

9. HAUSNARKETA-ARIKETA. Azter ditzagun bi egoera. Horietako bakoitzean esaldi posibleen sekuentzia oso bat ematen ahalegindu gara, teorian azaldu berri duguna agerian uzteko asmoz. Zein elementuk modalizatzen dute diskurtsoa enuntziatu bakoitzean? Zein eragin sortzen du bata ala bestea erabiltzeak?

EGOERA 1

Ez dut inolako zalantza izpirik droga guztiak kaltegarriak direla.

Zalantzarik gabe droga guztiak kaltegarriak dira.

Askoren eta askoren ustez, droga guztiak kaltegarriak dira.

Hainbaten ustez, droga guztiak kaltegarriak dira.

Hainbaten ustez, droga batzuk kaltegarriak dira.

Drogak kaltegarriak al dira?

EGOERA 2

Utziko al zenidake telefonoa, arren?

Utziko al didazu telefonoa, mesedez?

Telefonoa uzterik bai?

Utzi telefonoa.

Telefonoa!

10. HAUSNARKETA-ARIKETA. Ezeizak (2010: 185) koordinatutako *Unibertsitateko komunikaziorako gaitasunen eskuliburua* izenekotik ariketa interesgarri bat hartu dugu, modalizazioaren ikuspuntutik testua aztertzeko: zer elementuk uzten dute agerian idazlearen jarrera? Zer elementuk indartzen dute enuntziatua? Zer elementuk arintzen dute enuntziatua? Zehaztu zer-nolako eginkizuna betetzen duten testuan.

«Nazioarteko Energia Agentziak 2004ko Energiaren Munduko Txostena plazaratu du. Txosten horretan, 2030ean energiaren egoera munduan zein izango den aurreikusten da. Txosten oso zabala da —600 orrialde ditu—, eta analisi oso zehatza egiten du.

Egoera, oro har, nahiko baikorra izango omen da: Lurrak behar adina energia iturri du hurrengo hamarkadetako beharra asetzeko, eta petrolioa ez da oraindik agortuko. Baina alde ilunik ere bada; izan ere, petrolioaren eta gasaren prezioek gora egingo dute, eta horien hornidura kolokan jar dezakete arazo politikoek; eta are eta larriagoa dena, eskaera handitu egingo da. Hala, zenbait herri hornitzailerekiko menpekotasuna hazi egingo da.

Energiaren eskaera, oro har, %59 igoko omen da munduan 2030erako. Eta igoko den horren %85 atmosferara karbono-konposatuak igortzen dituzten energia iturriak izango dira: ikatza, petrolioa eta gas naturala.

Pentsatzekoa denez, garatze-bidean dauden herrien energia-eskaera haziko da gehien, Txinarena eta Indiarena batez ere. Herri horietan ikatza izango da energia-iturri nagusia.

Noski, gobernuek energia-kontsumoa gutxitzeko neurriak har ditzakete, eta teknologia berria garatzea bultzatu. Eta txosteneko iragarpenak neurri horiek kontuan izan gabe daude eginda. Dena dela, neurri horiek hartuz gero, egoera guztiz aldatuko litzatekeela argitzen da txostenean, eta horretara iristeko ezinbestekoa dela teknologia berriak garatzea».

Testu akademikoak, zientifikoak nahiz teknikoak idazten dituzten egileen ohiko galdera izaten da honakoa: «**zein** gramatika **pertsonatan idatzi** behar dut: singularreko

lehen pertsonan (*ni*), pluraleko lehen pertsonan (*gu*) edo era inpertsonalean (hirugarren pertsonan, subjekturik gabe)?» Azter ditzagun, bada, hiru aukerak banan-banan:

- ***Ni*** erabiltzeak subjektibitate handia dakar, testuan esaten dena lehen pertsonan esaten delako, modu pertsonalizatuan. Tradizionalki, singularreko lehen pertsonan idaztea baztertu izan da, erregistro neutroagoen eta objektiboen izenean. Gaur den egunean, aldiz, posible da halako erabilerak topatzea inguru akademikoetan, betiere neurrian edo testuinguru zehatzetan: lanen abiapuntua edota justifikazioa azaltzean, kasurako.
- ***Gu*** baliatzea ez da aurreko aukera bezain subjektiboa, eta testuko tonua leuntzeko mekanismoa gerta daiteke. Baliabide erretoriko hau aspaldikoa da; *pluralis modestiae* zeritzoten latindarrek, guk euskaraz «apaltasun plurala» izenda genezakeena. Fikziozko plural honen eginkizuna da diskurtsoaren egileari horrenbesteko garrantzia ez ematea, apalago jokatuta. Esan beharra dago apaltasun plural honek tradizio handi samarra duela literatura akademikoan eta, hortaz, estrategia egokitzat hartzen da.
- **Era inpertsonalean** idazteak dakar erregistrorik objektiboena, neutroena, (formaz) subjektu jakinik ez dagoen heinean. Hautu honen atzean dagoen ikusmoldea argia da: ahal dela, subjektibitate-aztarna oro ezabatu beharra dago zientzia egiteko orduan. Erabilera hau bereziki arlorik teknikoenetan eta ikerkuntza-metodologia enpirikoenetan baliatzeko joera dago.

11. HAUSNARKETA-ARIKETA. Zure iritziz, zein da aukerarik egokiena unibertsitateko lanak idazteko: ni, gu edo inpertsonalean? Zergatik?

2.1.4.5. Informazio-dentsitatea erregulatzea

Informazioa neurrian eman behar da, hartzaileak jasotzen duen informazioa ez dadin trinkoegia izan. Informazioaren dentsitatea erregulatzeko, honako hiru estrategia multzoak ditugu lagungarri azalpenean: zehazteko estrategiak, hedatzeko estrategiak, nabarmentzeko estrategiak (Vilà, 2005).

Zehazteko estrategiak

Gaia mugatzeari eta zehazteari dagokion atalean, **definizioak**, **etimologiara jo**tzea edota **sailkapenak** ditugu. Hiru baliabideak ezagun samarrak badira ere, hiruretan definizioa erabiltzen dela gehien aipatu behar da. Izan ere, definitzea izaten da, hain zuzen, ikasleek maizenik egin behar duten jarduera diskurtsiboetako bat lanetan eta etsaminetan.

Azaldu beharreko gaia mugatzen du definizioak. Hori dela eta, azalpena egiteko estrategia aski estandarra da mundu zabalean. Ariketa «unibertsal» hori, ordea, ez da beti erraz suertatzen, zeren eta definizio on batek argitasun kontzeptuala eta hizkuntza trebetasunez baliatzea eskatzen baitu. Hartara, definitzean egin ohi diren akats ohikoenak zerrendatuko ditugu ondotik, zein diren ongi identifika dezagun (Jimeno 2004: 50):

- Definitu beharrekoa definizioaren barrenean sartzea: «Tolerantzia: … toleratzea da», «Menpekotasuna: … menpe egotea».
- Gorago ikusi bezala, lagunarteko esparruari dagokion bigarren pertsona erabiltzea: «erretiratzen duzu», «jasotzen duzun erantzuna».
- Narraziorako joera (egiazko azalpenaren ordez): «Menpekotasuna da drogak hartu eta denbora baten barruan efektua izateko droga gehiago hartu behar duzunean».

12. HAUSNARKETA-ARIKETA. Ikusi berri dugunez, terminoak argitzen laguntzen du definitzeak. Hori dela bide, definizioan berariaz trebatzeko asmoz, honako termino hauen esanahia azaltzen saiatuko zara ondoko ikaskideari: aitzakia, azalpen, bihotzerre, botere, demokrazia, efemeride, eztabaida, hezkuntza, hizkuntza, komunikazio, irabazi, internazionalismo, pedante eta txosten.

Hedatzeko estrategiak

Azaltzeko lanetan ari garela, batzuetan bereziki trinkoa edota korapilatsua den ideia batekin topo eginez gero, eginahalak egin beharko ditugu argiago gera dadin irakurlearentzat. Horretarako, hain zuzen ere, hedatzeko estrategiak daude, ideia ezezagunago horiek pixka bat luzatzeko, zabaltzeko. Esanahia argitzeko estrategion barruan daude honako baliabide hauek: birformulazioa, adibidea, konparazioa, analogiak eta metaforak.

- **Birformulazioak**. Informazio bera beste era batera eman daiteke: definizio bidez, sinonimo/antonimoen bidez, etimologiaren bidez... Euskaraz, hiru antolatzaile peto ditugu birformulatzen dutenak: «hots», «hau da» eta «alegia». Esate baterako, birformulazio hau topatu dugu 9. ariketan irakurri dugun «erretorika» hitzaren sarrera entziklopedikoan: «Orain dela gutxi arte apaizgaitegietan landu izan dute, bereziki, "ars oratoria", *klasiko greko eta erromatarren adieran: hau da, jendaurrean mintzatzeko antze gisa*».
- **Adibideak**. Azalpenak lasai aski horni ditzakegu adibideez; adibide egokiez, bistan denez.
- **Konparazioak**. Adibideen kasuan bezala, ondo egindako konparazio bat lagungarria izan daiteke gure xede azaltzailea hobeki betetzeko, bai eta **analogiak** eta **metaforak** ere (azken bi baliabide erretorikoez mintzatuko gara espezifikoki, taldekako eztabaida lantzen dugularik).

13. ARIKETA-HAUSNARKETA. Badakizu zer diren analogiak eta metaforak? Nola definituko zenituzke? Erabili, zure azalpenaren osagarri, bina adibide.

Nabarmentzeko estrategiak

Azalpenaren atalen bati garrantzi berezia emateko erabili ohi dira nabarmentzeko estrategiak. Enfasia emateko hainbat modu ditugu, idatzian eta mintzatuan: errepikapen enfatikoa, galdera erretorikoa eta espresioaren enfasia.

- **Errepikapen enfatikoa**. Zerbait nabarmendu nahi dugunean, ohiko baliabide bat errepikatzea izaten da. Dena den, gogoan izan beharra daukagu errepikapen enfatikoa beti dela nahita egindakoa, kontzientea, eta beraz, tentuz kudeatzekoa bereziki idatzian (ahozko komunikazioan askoz gehiago onartzen da errepikapena, ikusiko dugunez).
- **Galdera erretorikoa.** Tonu-aldaketa dakar galdera erretorikoak, eta balio dezake haria eteteko, erritmoa emateko, pentsarazteko, irakurleari erreferentzia zuzena egiteko... Sarri askotan, galdera erretoriko batez amaiera ematen zaio testu bati, sintesia eta ondorioa idatzi eta gero.

- (ahozkoan) **Espresioaren enfasia**. Elementu prosodikoek (intonazioa, lastertasuna, intentsitatea, tonua...) etekin handia ematen dute komunikaziorako. Ideiak azpimarratzeko, garrantzia gehiago ala gutxiago emateko... balio dute.

2.1.5. Testua eratzeko ezinbesteko bi osagai: paragrafoa eta esaldia

2.1.5.1. Paragrafoak

Oraingo puntu honetan, espezifikoki landu nahi ditugu testua eratzeko bi osagai hauek, ezinbestekoak baitira edozein testu txukun antzean idazteko. Horrek adierazten du, kalitatezko komunikazioaren berme diren lau erregelen artean, batez ere izaera sintaktikoa duen kohesioari buruz arituko garela, bai eta gramatikaren barreneko sintaxiaz ere neurri txikiagoan.

14. ARIKETA-HAUSNARKETA. Irakur eta azter ezazu Jimenok dioena (2004: 41): zeure kasua da? «Oso litekeena da ikasle batek batxilergoa edo unibertsitate-karrera bat bukatzea, paragrafoei buruzko informazio argi eta erabilgarririk inork eman gabe».

Kontua da, paragrafoei buruz ausarki idatzi bada ere, ez dagoela arau edo kontsentsu erabatekorik paragrafoen luze-laburrez edota egitekoez. Nolanahi ere, idazle onak eredu eta hizkuntzaren didaktika gogoan, hainbat gomendio sendo emateko moduan gaude, besteak beste, Jimenok arestian zioena guri gerta ez dakigun.

15. HAUSNARKETA-ARIKETA. Pentsatu al duzu inoiz paragrafotan? Adibidez, zenbat paragrafotan antolatuko zenuke bi-hiru orrialdeko azalpen akademiko bat?

Testu idatzia paragrafotan antolatzen da, eta, arau estandar bati jarraituz, **paragrafo bakoitzeko ideia nagusi bakarra** garatzen da. Esan dezagun, beraz, irizpide logikoa erabiltzen dela paragrafoak antolatzeko, mezuaren koherentziari dagokiona. Horrela egitera, bloke tematiko homogeneoak lortuko ditugu gure azalpenean, monotematikoak ere izendatuak. Gisa honetako paragrafoetan, ideia nagusia lehen esaldian txertatzea izaten da jokamolde nagusia; hala ere, ideia nagusia azken esaldian ere ager daiteke zenbaitetan, aurretik esandakoaren ondoren eta ondorioz. Gutxiagotan suertatzen da ideia nagusia paragrafo barrenean izatea, berez posible bada ere.

Paragrafoen luze-laburrei dagokienez, ez dago halako neurri kanonikorik. Dena den, betiere testuaren irakurgarritasuna kontuan harturik, **paragrafoak luzeegiak ez** izatea gomendatu ohi da, hiru eta zortzi esaldi bitartekoak (Cassany, 1995: 86). Halaber, emaitzari itxura hobea ematen dio testu batean ageri diren paragrafoen artean oreka egoteak; hau da, bertako paragrafo guztiak neurri bertsukoak izatea aholkatzen da, gaiaren garapen egokiari begira.

Azaltzeko estrategiak ikusten ari ginela, sarreraz eta amaieraz egin dugu berba; izan ere, azalpen txukun batek nahitaez eskatzen ditu sarrera eta amaiera onak. Hori dela eta, arreta berezia merezi dute sarrerako (bi) eta amaierako (bi) paragrafoek. Bestalde, garapenaren atalean, gaiak **progresio tematiko egokia** izan dezan arduratuko gara, hots, azalpenaren hariak ez dezan jauzirik izan, ez eta alferreko errepikapenik ere.

Orain artekoaren ondorioz, baieztatzen ari gara *paragrafotan pentsatzea* nahitaezkoa dela diskurtsoa egituratzeko eta antolatzeko, paragrafoak behar bezala artikulaturik. Geroago ikusiko dugun legez, testua planifikatzean, jorratu beharreko gaiaren inguruko lehen ideia nagusi posibleak pentsatzean, paragrafoen aurre-banaketa bat egin daiteke, gaia azpigaitan egituratuz. Horrela jokatzeak testu on bat idazteko aukera gehiago emango digu, zalantza handirik gabe.

2.1.5.2. Esaldiak

Paragrafo bereko puntutik puntura doan tarteari deritzogu esaldi. Oraintsu esana dugu testua paragrafoen bidez egituratzen dela, eta, gisa berean gertatzen da esaldi-paragrafo elementuen arteko harremanarekin: esaldi bidez antolatzen da paragrafoa. Azkenik, testua eratzeko kate osoa burutzeagatik, adieraz daiteke hitzen bitartez osatzen ditugula esaldiak.

2.Koadroa: Testu idatzia osatzen duten elementuak

Hitzak >>> Esaldiak >>> Paragrafoak >>> Testua

Iturria: Egileak egina

Esaldien luze-laburrari dagokionez, sobera luzeak ez izatea gomendatzen da batzuetan. Beste batzuetan, 10-20 hitz bitarteko esaldiak aipatzen dira, gehienez ere menpeko bi perpaus hartzen dituztenak (Jimeno, 2004: 47). Puntuazio-sistema dugu esaldien neurria behar bezala kudeatzeko tresna (ikus bigarren eranskina), puntuazioari esker zentzu bat edo beste emango baitiogu esaldiari. **Puntuazio-sistema** ondo erabiltzea ez da lantegi erraza; bai, ordea, lagungarria komunikatu nahi duguna komunikatzeko.

16. HAUSNARKETA-ARIKETA. Zenbat ikur ezagutzen dituzu puntuatzeko? Zer-noiz erabiltzen duzu? Zer kasutan baliatzen duzu puntu eta koma, adibidez?

Esaldien egituraz den bezainbatean, orain arteko gainerako osagaiekin bezalaxe, mezuaren argitasuna bilatu behar dugu, ulergarritasuna. Hori dela medio, esaldi korapilatsuak saihestuko ditugu, tartean hainbat menpeko dituena. Horrek ez dakar nahitaez beti sintaxi sinple-sinplea, baizik eta esaldia ez bihurritzea. Bestela adierazteko, esaldien sintaxia edo joskera aberats dezakegu, diskurtsoak hala eskatzen duelarik, esanahia ilundu gabe.

Euskaltzaindiak argitara emandako *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa* liburuan ageri denez (2011), eta **hiztun batzuek uste dutenaren aurka**, bi ordena sintaktiko nagusi ezagutu izan ditu euskarazko tradizio idatziak, eta biak dira berdin onargarri eta zuzen gaur den egunean: **SOA** (Subjektu, Osagarria, Aditza) eta **SAO** (Subjektu, Aditza, Osagarria).

Arestiko liburuan irakurri dugun gisan (2011: 74), «SAO eredua, zenbait testu-antolatzaile (gaur baztertu samar: ezen, zeren…) lagun, gauza izan zen sortzeko hitz-kate luzeak (eta nazioartean darabilen prosaren antzekoak). Laburrago (eta nazioarteko estandarrekiko urrunago) geratu ohi da SOA». Hortaz, aditza ez da beti bukaerarako utzi behar: bi ordena zilegi ditugu euskara idatzian, egoeraren arabera aukeratzeko.

2.1.6. Testua idazteko hiru aldiak: planifikatu, testuratu, errebisatu

Hizkuntzaren Didaktikak gomendatzen du edozein testu ekoizteko, orain arte aurkeztu ditugun alderdi eta estrategiez gainera, kontuan hartu behar direla honako hiru aldiok: planifikazioa, testuratzea eta errebisioa. Ikus ditzagun fase hauek, banan-banan.

2.1.6.1. Planifikatu

Lehen urratsa testua planifikatzea da, aurretik irudikatzea. Hortaz, testua idatzi aurretik, ongi pentsatu behar da zer-nola idatziko den, eta komeni den astia hartu behar da horretarako. Hasierako ideiak antolatzeko, oso lagungarria izaten da eskemak, ideia-jasa edo gidoi moduko bat prestatzea. Era berean, **harirako informazioa pertinentea** eta **kalitatezkoa hautatu** beharra dago, iturriak fidagarriak diren ala ez erabakita.

Hona hemen, modu eskematikoan idatzi aurretiko orientabide nagusiak:

- Hautatu eta zehaztu zein izango den azalduko duzun gaia.

- Egin ezazu gaiari buruzko ideien bilketa.
- Bilatu hainbat iturritan gaiari buruzko informazioa, eta hautatu informaziorik esanguratsuena eta egokiena. Zeure lana izango da informazio garrantzitsuena, esanguratsuena, nabarmentzea.
- Egin ezazu eskema bat gai horren atzean ezkutatzen diren atalak hobeto zehazteko.
- Zehaztu testuaren oinarrizko egitura eta hasi diskurtsoa horren arabera prestatzen: sarreran, garapenean eta amaieran.
- Azalpenaren testuinguru akademikoa buruan izan uneoro, erregistro egokian aritzeko.

2.1.6.2. Testuratu

Bigarren urratsa testuratzea da, diskurtsoa idaztea. Horretarako, izenburua eman dakieke (errebisatu eta gero ezabatzeko) azalpenaren barruko atalei, testu-antolatzaileak ohartuki baliatu, hiztegia eta gramatika erabili, edota zirriborroak egin azken bertsioa lortu aurretik.

Hona hemen, modu eskematikoan, diskurtsoa testuratzeko orientabide nagusiak:

- Zenbat ideia nagusi ageri dira paragrafo bakoitzean?
- Paragrafoen artean, ondo ezarri lotura logikoa.
- Paragrafo batetik bestera dagoen jauziak onargarria behar du izan, edozein irakurlek ulertzeko modukoa.
- Beharrezkoa bada, erabil itzazu hitz espezializatuak.
- Funtsezkoa ez dena, saihestu. Argi eta labur azaltzerik baduzu, hobe.
- Testua idazteko erabilitako **iturri guztiak** aipatu **bibliografiaren atalean,** alfabetikoki.

2.1.6.3. Errebisatu

Errebisatzearen helburu nagusia testua hobetzea da, ez akatsak zuzentzea bakarrik. Hainbat autorek frogatu dutenez, fase honetan datza idazle berrien eta arituen arteko alde nagusia (Castelló, 2007). Izan ere, eskarmentu handirik gabeko idazleek

berehala jotzen dute testua ixtera, behar den bezalako errebisiorik egiteke. **Ikasleek gutxitxo errebisatzen dute oro har**, eta, errebisatzen dutelarik ere, azaleko alderdiak baino ez dituzte errebisatzen.

Horrenbestez, idazle onek eta profesionalek hartzen dituzten hainbat jarraibide ikusiko ditugu segidan, geuk ere baliatzeko. Funtsean, testuaren lau erregela unibertsalei erreparatu behar zaie, hau da, zuzentasunari, egokitasunari, kohesioari eta koherentziari.

- Konparatu hasierako asmoa eta amaierako emaitza: idatzi den azalpenak betetzen ditu hasierako helburuak?
- Erabili kontsultarako materialak, hiztegiak eta gramatikak bereziki.
- Diskurtsoa egokiro moldatua da testuinguru akademikora?
- Atal teorikoan landutako estrategiarik baliatu da? Zein? Zenbat?
- Azalpena erraz eta zailtasunik gabe irakur daiteke?
- Testuak egitura argia eta koherentea du?
- Sarrera, garapena eta amaiera bereiz daitezke bertan?
- Zenbat paragrafo ditu azalpenaren atal bakoitzak (sarrerak, garapenak eta amaierak)?
- Lexiko zehatza eta gaizki ulerturik sorrarazten ez duena erabili duzu?
- Ortografia zaindu duzu?
- Konforme gelditu zara egindako lehen saiakerekin? Zenbat saio egin dituzu?

2.1.7. Azalpen-ereduak aztertzen eta akatsen erabilera didaktikoa egiten

Didaktikan ohi den gisan, hainbat eredu eskaini eta aztertu nahi ditugu, azalpen akademikoak idazteko orduan erreferentziak izateko. Hori dela eta, Haur Hezkuntzako lehen mailako bi testu erreal hartuko ditugu eredu eta eredugarri.

17. HAUSNARKETA-ARIKETA. Irakurri bi testuak arestiko errebisioaren araberako puntuei segika. Puntu guztiak egin eta gero, testu onak iruditzen zaizkizu? Zergatik?

LEHEN TESTUA

Finlandiako hezkuntza sistema

Gaur egun hezkuntzaren inguruko gaiak pil-pilean daude gure gizartean. Espainian, adibidez, krisia dela eta, murrizketak egon dira hezkuntzan: beka gutxiago ematen dira, matrikulak garestiagoak dira, diru-laguntzak murriztu dira, etab. Batzuen ustez, hezkuntzari ez zaio ematen eman beharko litzaiokeen adinako garrantzia, eta, horren ondorioz, porrot eskolarra nabaria da. Izan ere, OECD (O*rganisation for Economic Co-operation and Development*) erakundeak egindako PISA (*Programme for International Student Assessment*) azterketa ezagunaren arabera, Espainia azkeneko postuetan kokatzen da. Baina honako hau ez da herrialde guztietan gertatzen; jarraian azalduko den moduan, Finlandiako hezkuntza sistema Europako hoberena eta eraginkorrena da, eta hau emaitzetan argi ikus daiteke.

Hasteko, esan beharra dago Finlandian eskola dohainik dela Haur Hezkuntzatik unibertsitatera arte eta klaseak, jantokia, liburuak eta eskolako materiala barne hartzen dituela. Bestalde, lehenago aipatutako PISA azterketaren arabera, Finlandia Europako lehengo postuan ageri da. Errealitate hau ez da kasualitatea, umeek duten hezkuntzari esker lortzen baitute postu horretan egotea. Umeak 1 eta 6 urte artean, Haur Hezkuntzan daudenean, haien ahalmenak, trebetasunak, eta kuriositatea esnatzea dute helburu. Egun bakoitzean gai bat lantzen dute (musika, kirola, ama hizkuntza, matematikak), baina umeek goizetan bakarrik lan egiten dute eta, bertako irasleek diotenez, modu erakargarri batean. Arratsaldeak jolasteko erabiltzen dituzte. Metodo honek haurren motibazioa eta erakarpena eragiten du. Hala ere, 4 eta 5 urte baino gutxiagoko umeen erdia ez da haurtzaindegira joaten eta asko 7 urte bete arte ez dira eskolara joaten (7 urte bete arte, ez da derrigorrezkoa eskolara joatea).

Umeek 7 urte dituztenean Lehen Hezkuntzako ikasketak egiten hasten dira. Adin honekin, umeak irakurtzen hasten dira baina badira batzuk hori lortzen ez dutenak. Horregatik, gurasoek umea 8 urte dituen arte, Haur Hezkuntzan eduki dezakete irakurketarako prest ez dagoela uste badute. Kurtso bateko errepikapena egitea legez debekatuta dagoen arren, salbuespena egin daiteke. Hau eginez gero, ikasleak eta honen familiak proposamen hau onartu behar dute. Hala eta guztiz ere, zailtasunak dituzten ikasleek laguntza asko jasotzen dute, hala nola, laguntza taldeak egiten dira ikasgai

batzuetan zailtasunak dituzten umeentzat eta gainera, laguntzaile bat bidaltzen da klaseetara ume hauen euskarri izateko.

Hari beretik, Lehen Hezkuntzako sei urteetan zehar, irakasle berdina izaten dute umeek, ikasgai guztietan edo ia guztietan eta irakasle hau ume bakar bat ere baztertuta ez egoteaz ziurtatzen da. Hori dela eta, umeen oreka emozionala eta segurtasuna egonkortzen da. Gainera, irakasleek ez dituzte umeak nekatu nahi ordu asko jarraian klasean egonez, bestela haurrak aspertzen direlako, ez dutelako arretarik jartzen eta kuriositatea galtzen hasten direlako. Horregatik umeek hamasei urte betetzen dituzten arte, klase bakoitzak 45 minutu irauten du eta klase tarteetan 15 minutuko atsedena egoten da eta honetan umeak pasilloetan edo patioan jolastu dezakete, eskolako liburutegira joan daitezke etab.

Umeen ebaluazioari begira, Lehen Hezkuntzako 5.kurtsora arte, umeek 11 urte dituztelarik, ez dira zenbakizko kalifikaziorik egiten. Finlandian umeen kuriositatea oso garrantzitsua dela uste dute eta etapa honetan notak oztopo bat baino ez direla diote, hauek lehiakortasuna eta konparazioak sustatuko lituzketelako. Kontuan hartu, zenbakizko kalifikaziorik ez egiteak ez duela esan nahi gurasoak ez direla haien seme alaben garapenaz informatzen, izan ere, aldizka informazioa ematen zaie. Adibidez Kanenuala eskolan, urtean bi aldiz buletin bat ematen zaie gurasoei; bat abenduan eta bestea maiatzean eta hauetan, umeen aurrerapenen eta garapenaren berri ematen zaie gurasoei. Zenbakidun notak, Lehen Hezkuntzako 6. Urtean agertzen dira umeek 13 urte dituztenean.

Ikusi ahal izan dugunez, Finlandiako eskoletan egiten den lana, ez da lan makala izaten eta hortaz, irakasleria ondo prestatzeaz eta aukeratzeaz arduratzen dira. Irakasle izateko ikasketak egin ahal izateko, batxilergoko nota hamarretik bederatzi baino gehiago izan behar da. Honetaz aparte, irakasle izan nahi dutenen sentsibilitate soziala baloratzen da (ekintza sozialetan izan duten parte-hartzea, boluntarioa …). Geroago unibertsitate bakoitzak elkarrizketa bat egiten die aurkeztu direnei eta honetan beraien komunikatzeko gaitasuna eta enpatia ebaluatzen dute. Honako honetan beraien gaitasun artistikoak, matematikoak eta teknologikoak erakutsi behar dituzte. Askoren ustez, proba hauek herrialdeko zailenak dira. Honi guztiari, prozesu zorrotz bat jarraitzen dio, lizentziatura eta praktika denboraldiekin batera. Horrenbestez, ez da harritzekoa Finlandian irakasleek duten prestigio soziala.

Orain arte, eskolak Finlandiako hezkuntza-sisteman duen eragina aipatu dut baina bestalde, gurasoen papera oso garrantzitsua da ere hezkuntza mota hau osatzeko. Gurasoek beraien seme-alaben heziketari begira, eskolak baino ardura gehiago dutela eta haiek emandako heziketa, eskolan ematen den heziketarekin osatzen dela uste dute. Gainera, eskola eta baliabide soziokulturalekin (liburutegiak, ludotekak, zinemak …) harreman estuak izan ohi dituzte. Izan ere, Finlandian familien %80 liburutegira joaten da asteburuetan. Honetaz gain, Finlandiako sistema sozialak hainbat laguntza ematen dizkie familiei eta horrela gurasoek lana eta beren umeentzako arreta bateratu dezakete. Hori erakusteko, Marc Cerdáren kasua aipatuko dugu. Marc Finlandiako irakasle eta aita da. Marc-ek aitatasun-baja hartu du bere semeaz arduratzeko. Hortaz, berak sei hilabetez hartu du baja, baina lehenago bere emazteak hartu zuen urtebete batez. Honen bitartez, bere soldata 9 hilabetez zehar kobratzen du eta soldata hori denborarekin gutxitzen joaten da. 9 hilabete eta gero segurtasun sozialak soldata minimoa ordaintzen dio 500€ edo 600€ eta ez du bere lanpostua galtzen. Aitatasun-baja umeak hiru urte bete arte hartu dezake. Horrela bere semearen lehendabiziko urteetan, berarekin erlazio bikaina eraikiko du. Gainera, umea eskolara joan aurretik berak hezi egingo du eta horrela eskolan ez dira hasieratik hezten hasiko ,baizik eta, irakatsi egingo diote.

Laburbilduz, esan genezake Finlandiako hezkuntza-sistemak duen arrakasta hiru egitura hauen konbinaketa bikainari esker sortzen dela: familia, eskola eta baliabide soziokulturalak. Egitura hauek elkarren arteko lotura estua dute eta modu koordinatu batean funtzionatzen dute. Finlandian hezkuntzarekiko duten konpromisoa oso nabaria da, eskolak eratzeko orduan, irakasleak aukeratzeko orduan, eta familiek beraien seme-alabak hezteko orduan. Honen guztiaren ondorioz, badirudi garrantzitsuena ez dela zer irakasten den, baizik eta nola irakasten den.

BIGARREN TESTUA

Denok ondo dakigunez, sare sozialak gure gizartean oraintsu hasi dira jendearen bizitzan parte hartzen, batez ere, haur eta nerabeen bizitzan, eta egun oso ezagunak dira. Gai hau aukeratu dut oso interesgarria iruditu zaidalako; izan ere, gaur egungo gizartean sare sozialak beharrezkoak dira, eta behar den bezala erabiltzea oso garrantzitsua da.

Jarraian, noiz sortu ziren, zer diren, sare sozial motak, euren abantailak eta desabantailak, gaztetxoengan duten inpaktua, eta egoera honen aurrean nola jokatu behar den azalduko dut testu honen bitartez.

Hasteko, lehenengo sare soziala 1995 urtean sortu zuen Estatu Batuetako unibertsitateko ikasle ohi batek. *"C*lassmates.com" izena jarri zion, izan ere, bere ikaskide ohiekin kontaktua mantendu nahi zuen. Bi urte geroago, "SixDegrees.com" sortu zen, honek erabiltzaile profilak eta lagun zerrendak egitea onartzen zuen. 2000 eta 2002 urteen bitartean, onlineko lagun taldeak sustatzen zituzten Web orriak agertu ziren. 2003an online lagun talde hauek hedatu ziren eta beste sare sozial mota agertu ziren, gaur egungoak.

Egungo sare sozialak komunitate birtualak dira, hau da, *i*nterneteko plataformak non jendea elkartzen den informazioa eta interes komunak partekatzeko. Sare sozial hauetako erabiltzaileek profil bat eratzen dute eta haiek nahi duten modura pertsonalizatzen dute. Euren helburua jendea biltzea da, hots, aspaldiko lagunekin topo egitea edo adiskide berriak egitea. Sare sozial ezagunenak Facebook, Hi5, Myspace, Tuenti, Twitter eta Orkut dira. Hobeto ulertzeko, ondoren, sare sozial motak azalduko ditut.

Hainbat sare sozial mota daude. Sare sozial horizontalak eta sare sozial bertikalak. Sare sozial horizontalek ez daukate gaia zehaztua, publiko generikoari bideratuak daude eta euren kontaktuetan zentratzen dira. Beren helburua pertsonak erlazionatzea da. Sare sozial hauetan profilak era daitezke, edukiak partekatu (argazkiak, bideoak, musika adibidez), txatean ibili, eta kontaktu zerrendak sortu. Esaterako, Facebook, Myspace, Hi5, Bebo, Orkut, Sonico, Tuenti, Badoo, Netlog, Google+ eta abar, sare sozial horizontalak dira.

Sare sozial bertikalak zehatzagoak dira. Hauek sare sozial tematikoak dira. Adibidez: profesionalak (Xing, LinkedIn), bideoak (Youtube, Vimeo), zaletasunak (Moterus, Dogster),jolasak (Friendster, Haboo), microblogging (Twitter),musika (Last.fm, Grooveshark), argazkiak (Flickr, Fotolog), aurkezpenak (SlideShare), dokumentuak (Scribd)…

Gure inguruan sare sozial ospetsuenak eta gehien erabiltzen direnak Facebook, Tuenti eta Twitter dira. Facebook, lehen, Harvardeko Unibertsitateko ikasleek erabiltzen zuten, baina, orain posta elektronikoa daukan edozeinek erabili dezake. Facebookeko erabiltzaileek bere profila daukate, eta euren pribatutasuna nahi duten erara konfiguratu dezakete. Hemen argazkiak eta mezuak trukatu daitezke eta lagun berriak egin. Erabiltzaileak gazteak eta helduak izaten dira. Tuenti, Facebook bezalakoa da, baina bakarrik Espainia Estatuan erabiltzen da. Hemengo erabiltzaile gehienak gazteak dira. Pribatutasunari dagokionez, Tuentik kontrol zorrotza egiten du. Hemen **i**ruzkinak sortu daitezke eta argazkiak eta bideoak igo. Twitter, ordea, microblogging zerbitzua da, hau da, gehienez 140 karaktereko mezuak bidali daitezke.

Ondoren, sare sozialen abantailak eta arriskuak azalduko ditut. Ezaguna denez, onura asko dituzte, esate baterako, komunikatzeko modua erraztu dute, orain ez dago mugarik, hau da, jendea komunikatu daiteke beste herrialde bateko jendearekin etxetik kanpo atera gabe. Era berean, bakardadearekin bukatu dute eta anonimatua eskaintzen dute; gainera, erabiltzaile guztiak estatu maila berean egonez gero, integrazioa sustatzen dute. Horretaz gain, lagun berriak egiten, harreman sentimentalak eta lana bilatzen laguntzen dute. Halaber, sare sozialekin ekitaldiak antolatu daitezke, lagunen urtebetetzeaz oroitzen laguntzen dute, lagunekin jolasteko aukera ematen dute, eta abar.

Haur eta nerabeei dagokienez, orokorrean sare sozialek alde positiboak dituzte. Gaztetxoek sare sozialak maiz erabiltzen dituztenez gero, etorkizunean ez dute inolako arazorik izango. Bai beren bizitza pertsonalean, bai lanean oso ondo moldatuko dira. Gainera, sare sozialek umeak sozializatu egiten dituzte, beste komunikazio mota bat baita. Halaber, iruzkinei, jokoei eta sarrerei esker gaitasun sozial batzuk lantzen dituzte.

Alabaina, sare sozialek alde txarrak ere badituzte, kasurako pribatutasuna, nortasun ordezkapena, datuen kontrol falta eta mendekotasuna. Haurren eta nerabeen kasuan, adizioa agertzea oso ohikoa da. Askotan haurrak eta nerabeak sare sozialei denbora gehiegi eskaintzen diete, eta puntu batera ailegatzen da, non gaztetxoak isolatu egiten diren. Beste arrisku bat da gaztetxoek ez dutela zaintzen haien pribatutasuna. Hots, batzuetan igotzen dituzte argazki konprometigarriak, edozein datu sartzen dute eta "lagun" ezezagunak egiten dituzte sare sozialetan. Horretaz aparte, haur eta nerabeen pertzepzio faltsua nabarmentzen da; Hau da, ez dakite sare sozialen atzean erakundeak

daudela eta hauek beren profila ikusten dutela. Alegia, ez dakite sare sozialek zenbait arrisku dituzten.

Arrisku hauen aurrean neurriak hartu behar dira. Sare sozialak erabili behar dira, baina haien erabilera arduratsua izan behar da. Horretarako gaztetxoekin hitz egin behar da, eta nola ibili behar duten, sare sozialak zer diren eta nola funtzionatzen duten azaldu behar zaie. Hau da, pribatutasunari, nortasun ordezkapenari, datuen kontrol faltari eta mendekotasunari buruz hitz egin behar zaie. Orobat, arauak jartzea oso garrantzitsua da, baina ez inposatu, arauak beti adostu behar dira. Adibidez, denbora muga bat jarri behar da.

Laburbilduz, sare sozialak haurren eta nerabeen bizitzaren zati garrantzitsua dira, baina gaztetxoek ez dakite beti modu egokian erabiltzen. Ez da ahaztu behar zer diren eta zertarako balio duten. Badira hainbat sare sozial mota ondo ezagutu behar direnak eta beren abantailak eta desabantailak ere bai. Horregatik, helduen betebeharra da sare sozialetan ibiltzea, ikastea eta, ondoren, gaztetxoei irakastea.

Bukatzeko, esan beharra dago gauza onak aprobetxatzea eta gauza txarrak baztertzea zentzuzkoa dela, baina ez da beti erraza. Sare sozialak tresna oso erabilgarriak dira, kasu askotan bizitza errazagoa egiten dute, baina ondo erabiltzen eta kudeatzen jakin behar da. Hau jakinez gero, haien laguntzaz hobeto bizi gaitezke, baina ez haien esklabo bihurtuta.

18. HAUSNARKETA-ARIKETA. Graduan sartu berriak diren ikasleek akats tipiko zenbait egin ohi dituzte. Hori dela eta, akats ohiko horiek identifikatzera, geuk ere egitea saihesteko aukera izango dugu. Zein akats direla uste duzu? Saia zaitez zerrenda bat ematen.

2.1.8. Komunikazioan trebatzen segitzeko ariketa eta galdera gehiago



Lehen atalean egin dugun legez, saia zaitez atalaren hasieran dagoen «Gaitasunak eta edukiak hausnarrean girotzen» izeneko galdetegia berriz egiten. Galdera guztiei erantzuna emateko moduan egon ezean, punturen bat sakonago landu beharrean zaudela iradokiko luke horrek:

19. HAUSNARKETA-ARIKETA. Modalizazioa zer den ikusi eta jorratu dugu. Hori dela eta, honako ariketa proposatu nahi dizugu: aldizkari bateko erredakzio-kontseiluko kide zaren neurrian, saia zaitez leuntzen testu honetako ikuspuntua (*in* Ezeizak 2010: 199).

Berriki irakurri dugu kazeta honetan (2006-I-2) berrikuntza handiak ekarriko dizkiola unibertsitateari eta beronen hezkuntza sistemari Bolognako konbergentziak. Gero eta ezagunago den prozesuak ekarriko du Europar Batasuneko unibertsitate ikasketak bateratzea 2010.urterako. Ezbairik gabe, azken urteetan unibertsitateak izan duen iraulirik handiena.

Datorkigun egoera horren informazio nahikorik ez dago, bereziki gure alderdi bigunak ukitzen dituen arloetan: hizkuntza eta curriculuma. Denetariko ahotsak entzun ditugu, eta oraingoz soilik dakigu gutxi dakigula, informazioa tantaka iristen dela. Kontua da berriki kazeta honetan informazio gehiago eskuratu ahal izan dugula aldaketa horrek izango dituen ondorioez, Espainiari gagozkiola. Informazio horrek zioen, graduko ikasleek (orain lizentziadun eta diplomadun izendatzen ditugunak) ahozko aurkezpen bat egin beharko dutela ikasketen amaieran, graduko titulua eskuratzeko. Ahozko aurkezpenak hiru helduleku izan ditzake: ikerketa bat, lan bat edo enpresaren batean egindako praktikak. Taldean ere egin ahalko dute ahozko aurkezpen hori eta irakasle baten tutoretza izango du.

Esango dut, zapla: zenbat poztu naizen erabaki horrekin! Sikiera, horrela, gure ikasleak modu esanguratsuan hizketan jartzeko arrazoi on bat izango dugu unibertsitatean. Areago, horren proba garrantzitsua prestatzeko berariazko formazioa eman beharko zaio ikasleari; izan ere, ahozko aurkezpenek, maila horietan, prestatzeko modu berezia eskatzen baitute, adituek diotenez. Agian horrela, ikasleak aterako dira proiektu honen zuztarrean dagoen intentzioarekin: gai jaso bat ahoz aurkezteko gai izanda. Ahozko aurkezpen horiek, edo ahozko azterketak sistema ezaguna eta hedatua dira Europako herrialde askotan. Estatuak izendatzen du zein jakintza arlo azaldu behar den ahoz eta zein idatziz. Gu gara hizkuntzaren errepresentazioa idatziari lotuta daukagunok, idatzia komunikazioaren idealtzat jaso dugunak.

Hari honi tiraka, baina, imajina dezakegu ahozko proba hori hezkuntza sistemaren beste maila batzuetara ere eraman dezakegula. Oso beharrezkoa litzateke, gainera. Zergatik ez jarri horrelako proba bat batxilergoaren bukaeran, unibertsitatera sartu aurretik? Ingalaterran egiten dute eta Frantzian ere bai. Gure Hegoaldeko ikasleen artean, %51k selektibitatea egiteko hizkuntza euskara aukeratu zuen iazko ikasturtean. Galdera da zer gertatuko litzatekeen selektibitatea ahoz egingo balitz, zenbatek aukeratuko lukeen euskara, zenbatek duen konfiantza bere bigarren hizkuntzan gai jaso bati ekiteko, jendaurrean defendatzeko. Eta badira galdera gehiago ere: zergatik dagoen eskola oraindik konforme idatzia soilik irakastearekin, zergatik pentsatzen den hain gutxi ikasleen beharretan, zergatik ez diren adin batetik aurrera ahozko genero jasoak lantzen. Zelan irudikatzen dugu, bada, hizkuntza? Kontziente ote gara hizkuntza jakitea kapital sinbolikoa dela?

Guk, gure esperientziatik, ikusten dugu HUHEZIn (Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean) jasotzen ditugun ikasleek ez dutela ahozko hizkuntza jasoan eskarmenturik. Aurtengo ikasturtean 150 ikasle matrikulatu dira, irakasletza ikasketetan eta ikus-entzunezko ikasketetan banatuta. Ahozko aurkezpen bat zenbatek egin duen galdetu diegu 1.mailan matrikulatu diren ikasle horiei: ikasleetatik %5ek ere ez dute egin bere eskola denboran. Eta, gaian desbideratzea bada ere, datuak mereziko dutelakoan: ikasle horien %40k ez dute testurik ere idatzi eskola denboran. Konstatazio horrek argi eramaten gaitu beste toki batera: eskola ez da idazten eta hitz egiten irakasteko tokia; aitzitik, askotan, oraindik, hizkuntza klasean ariketa gramatikalak egiten dira, edota, testuak idazten badira, xede bakoak, komunikazio egoeraren analisi

gutxikoak, testualtasunik landu gabekoak. Eta horrela pentsa genezake, urtez urte, Hegoaldeko ikasle askok zenbat ordu galtzen ote duen hizkuntzako klaseetan ustezko zuzentasuna lantzen. Eta hala ere, metodo horrek ez digu zuzentasuna bermatzen.

Bolognak zer haize ekarriko ote digun ez dugu garbi, baina ikasleak jendaurrean hitz egiten jartzeko erabakia ona izango da. Eta pentsatu nahi dugu guri ere etxeko hautsak astintzeko aukera emango digula, hau da, Txepetxek esaten duen ekuazioa bete egingo dugula: ondo egiten duguna aprobetxatu, eta ondo egiten ez duguna utzi, hobetu, zuzendu, orraztu. Beste ekuazio bat ere garbi dago: hizkuntzaren kalitatea hezkuntzaren kalitatearekin uztartuta dago.

20. HAUSNARKETA-ARIKETA. Zuzendu zure ustez gaizki dagoena azalpen honetako lehen bi paragrafoetan, eta hornitu estrategiez sarrera eraginkorra izan dadin.

Homeschooling hitzak ingelesez etxeko hezkuntza esan nahi du. Hezkuntza eredu hau umeak etxean heztean datza eskola publikora edo pribatura joan gabe; nahiz eta, gaur egun, haurrak etxean hezi ahal izateko gobernuak ziurtagiri bat eman beharko liekete gurasoei. Gainera, hezkuntza mota hau hainbat arrazoiengatik sortu zen, eta historian zehar hainbat aldaketa izan ditu.

Etxeko hezkuntza hitzak esaten duen bezala hezkuntzarekin harremana duen gai bat da. Gero eta indar handiagoa hartzen ari dena eta gaur egunean hezkuntzaren inguruan hitz egiteko ohikoa den gai bat dena izan ere jende asko honen alde eta kontra daude eta beraz, eztabaidatzeko gai aproposa ere bada. Horregaitik gaiaren inguruan informazio egokia barneratzea beharrezkoa da.

21. HAUSNARKETA-ARIKETA. Zer mekanismo linguistiko-diskurtsibo datza hurrengo hiru perpauson atzean? Ba al dago ezberdintasunik perpaus batetik bestera? Arrazoitu, labur, zure erantzuna.

a. Ez dut inolako zalantza izpirik droga guztiak kaltegarriak direnik.
b. Droga guztiak kaltegarriak dira.
c. Hainbaten ustez, droga batzuk kaltegarriak dira.

2.2. Argudiatze akademikoa

There are two types of speakers: those that are nervous and those that are liars (**Mark Twain** ,1835-1910)

(Bi hizlari mota daude: urduriak direnak eta gezurtiak direnak)

Aurkibidea

2.2.1. Aurkezpena, egitura eta helburuak

2.2.2. Gaitasunak eta edukiak hausnarrean girotzen

2.2.3. Argudiatze akademikoaren ezaugarriak

2.2.4. Argudio eta falazia mota nagusiak

2.2.5. Besteen iritziekin jokatzeko estrategiak: kontraargudioak

2.2.6. Ahozko interakzioa orekatzen: adeitasun arauak

2.2.7. Erretorika klasikoaren faseak: *Inventio*, *dispositio*, *elocutio*, *memoria* eta *actio*

2.2.7.1. *Inventio*

2.2.7.2. *Dispositio*

2.2.7.3. *Elocutio*

2.2.7.4. *Memoria*

2.2.7.5. *Actio*

2.2.8. Debate-ereduak aztertzen eta akatsen erabilera didaktikoa egiten

2.2.9. Komunikazioan trebatzen segitzeko ariketa eta galdera gehiago

2.2.1. Aurkezpena, egitura eta helburuak

Azalpenaren inguruko edukiak eta gaitasunak landu ondotik, argudiozko testuei erreparatuko diegu oraingoan, diskurtsoak indar erretoriko handiagoz janzteko asmoz. Izan ere, orain arte erretorika kontuan hartu badugu ere, enfasi berezia emango diogu kapitulu honetan, eta langai nagusia izango dugu.

Argudiozko testuak lantzeko, gaia aurkeztuta eta hausnarrean girotuta, argudiatze akademikoaren gaineko ezaugarriak ikusiko ditugu, bai eta argudio eta falazia mota nagusiez jardun ere. Geroago, beste solaskideen iritziekin jokatzeko estrategietan trebatzeko ahaleginak eginen ditugu eta, berriz interakzio beteaz ari garen honetan, ahozko diskurtsoaren bidez ezartzen diren harremanak orekatzeko mekanismoak landuko ditugu: adeitasun-arauak.

Kapituluko xede nagusia da esparru akademikoko **argudio eraginkorrak ematen ikastea**, pertsuadiatzeko nahiz negoziatzeko bideetan murgilduz. Argudiatzeko ariketa horiek tarteko, aukera egokia izango dugu hezitzaile orok landu behar duen **pentsamendu kritikoa** zorrozteko. Hartara, aspaldi zaharreko **Grezia klasikotik XXI. mendeko erretorika berri(tu)ra** egingo dugu (cf. Huizi, 2009; Hernández eta García, 2010), eta argudiozko diskurtsoak osatzeko behar diren bost fase nagusiak ezagutu eta praktikatuko ditugu: *inventio*, *dispositio*, *elocutio*, *memoria* eta *actio*.

Oraingo honetan, **ahozko hizkuntza**ri erreparatuko diogu **bereziki**. Ahozkotasunean trebatzeko ahaleginak egingo ditugu, beraz. Dena den, argudiatzeko hainbat teknika idatzizko hizkuntzan ere aplikatzen saiatuko gara, diskurtso idatzian ideia bat defendatu behar dugunerako.

Aurreko kapituluetan bezalaxe, hainbat ariketa, galdera eta gogoeta proposatuko ditugu hor-hemenka, teoriaren eta praktikaren arteko uztardura garbiagoa izan dadin. Azkenik, erreferentzien berri emango dugu, gure iturriak zein diren agerian utzita.

2.2.2. Gaitasunak eta edukiak hausnarrean girotzen

Galdetegi bat prestatu dugu kapitulu honetako gaitasunak eta edukiak hausnarrean girotzeko. Gogoan hartu orain arteko metodologia; hau da, galdetegiaren xede nagusia ez dela berehalako erantzunak lortzea, baizik eta argudiatze akademikoaz gogoeta emankorrak egiten hastea.

- Nola definituko zenuke argudiatzea? Eta argudiatze akademikoa? Zein ezaugarri nagusi ditu, zure ustez?
- Zein antzekotasun dute argudiatze idatziak eta ahozkoak? Zein desberdintasun?
- Zein lotura izan dezake modalizazioak ahoz argudiatzearekin? Eta idatziz?
- Badakizu zein diren argudioak eta falaziak? Eta kontraargudioak?
- Zein funtzio dute adeitasun-arauek eztabaida baten testuinguruan?
- Baduzu erretorika klasikoaren berririk? Inolako loturarik ikusten duzu erretorikaren eta marketingaren artean?
- Ahoz komunikatzeko orduan, zein estrategia erabiltzen dituzu?

2.2.3. Argudiatze akademikoaren ezaugarriak

Azken hamarkadotan, zenbait zientzia diziplinak erreparatu diote erretorika lantzeari nahiz ikertzeari. Horien artean daude honako arlo hauek, besteak beste: hizkuntzalaritza, filosofia, komunikazio-zientziak edota psikologia. Alde horretatik,

diziplina bakoitzak bere interesgunetik ekin dio erretorika aztertzeari eta, ondorioz, ez dago erretorikaren inguruan ikuspegi bakarrik eta guztiz bateraturik gaur den egunean (Weigand, 2008). Irakaslegaien komunikazioaren gaitasuna langai dugun gure kasuan, ikuspegi linguistiko-diskurtsibotik hurbilduko gara *ondo mintzatzeko arte*ra, eztabaidak jomugan izanik.

Azken urteotako esperientziak zein literatura zientifikoak dioskunez (ikus, adibidez, Castelló, 2007), unibertsitatean sartu berriak diren ikasleen artean **ahozko diskurtso formalean trebatzea izan daiteke erronkarik behinenetako bat**, eguneroko ahozko testu informalagoetatik aldenduz. Izan ere, azken urteotako hezkuntza-sisteman ahozko hizkuntza gero eta gehiago lantzen ari den arren, ariketa konplexu samarra da ahoz eta jendaurrean jardutea.

Kontu ezaguna denez, jendaurrean berba egitea da beldur handiena sorrarazi ohi duen egoera sozialetako bat. Horren erakusgarri dira han eta hemen eskaintzen diren ikastaro ugariak, sektore publikoan nahiz pribatuan, pertsonaren eta profesionalaren ahozko komunikazioa hobetze aldera. Irakasleen kasuan, maiz egiten den jarduera diskurtsiboa da: **irakasleak ahozko hitza tresna du** eguneroko lanbidean, dela ikasleekin, dela gurasoekin, dela lankideekin (Etxebarria eta Garay, 2010).

Zenbait autoreren aburuz, berba hartzen dugun aldiro ari gara argudiatzen, nola edo hala, ohartuki edo ohartu gabe (Garzia, 2008). Ikuspegi horretatik, beraz, komunikatzen garen bakoitzean informazio «orientatu» bat ematen ari gara, interesen bat defendatzen duena, helbururen bat bete nahi duena. Anscombre-k eta Ducrot-ek aldarrikatu bezala (1983), ia beti jarduten dugu besteak gurera ekarri eta erakarri nahian.

Argudiatzearen gaineko definizio bat emate aldera, egoera eta gertaera batzuen aurrean, **hiztunak bere iritzia modu logiko batez defendatzeko** erabiltzen duen diskurtso mota da, **bestea(k) pertsuaditzeko edo disuaditzeko helburua** duen jardun komunikatiboa. Jimenezen hitzetan, azalpenak eta frogak elkarrekin erlazionatzeko ahalmenari dagokio argudiatzea; izan ere, «enuntziatuak frogetan oinarrituta ebaluatzeko gai izatea da argudiatzea» (Jimenez, 2012). Hortaz, gizakiok dugun argudiatzeko gaitasunak erakusten du izaki arrazionalak garela (cf. Marraud, 2013).

Argudiozko testuen garrantzi praktikoaz ere ohartarazi nahi dugu; zeren eta jendarteak kezkatzen dituen gai guztiek edukitzen baitituzte euren aurkia eta ifrentzua; hau da, gure bizitzetan eragina izaten duten afera oro hainbat ikuspuntutatik begira daiteke. **Ezberdin begiratzeko aukera** (cf. Palou, 2011) horretatik sortzen da polemika, eta horrek ekarri ohi du nork berea argudiatzea: igorleak tesi bat defendatzeko argudioak ematen ditu, eta diskurtso horren helburua da hartzailearengan eragitea.

Unibertsitateko ikasgelan ahozko argudiatzea lantzeak esan nahi du hezkuntzaren helburu orokorrak diren honako puntu hauek garatzea, norberaren ahozko gaitasunez gainera: pentsamendu kritikoa, ikasten ikasteko gaitasuna eta **zientzia-kultura** (Jimenez, 2012). Era berean, balio handikoa gertatzen da Cattanik eztabaidez dioena (2003: 53): «Discutir significa comprometerse con la idea de una tesis sin pretender imponérsela a los demás a cualquier precio y tratando de conquistar el acuerdo de la parte contraria sin robarle la palabra y reducirla al silencio».

Ikus ditzagun, jarraian, argudio eta falazia mota nagusiak, ongi bereizteko argudiatzen ari garela zer baliatzea komeni zaigun eta zer ez.

2.2.4. Argudio eta falazia mota nagusiak

Argudioak eta falaziak deskribatu aurretik, gakoa den beste termino bat azalduko dugu: tesia. Izan ere, frogatu behar den pentsamendua edota proposamena da tesia. Hartara, delako **tesia baieztatzeko nahiz gezurtatzeko arrazoiak** emango ditugu. Argudio edo arrazoibide horiek bi zati dituzte: **premisa** edo **aurrekaria** eta **ondorioa**. Argudioak indartu egin behar dira adibide, datu, kopuru, aipu eta baliabide erretorikorekin, arrazoibideak indar handiagoa har dezan. Zenbait autorek adierazi dutenez, argudio on batek ondoko hiru ezaugarri hauek bete behar ditu (Alvarez, 2004):

1. Gaiari lotua egotea.
2. Arrazoi pisuzkoa izatea: sinesgarriak, onargarriak eta esanguratsuak.
3. Tesia defendatzeko modukoa izatea, ondoriora heltzeko nahikoa.

Zereginaren arabera, argudio mota nagusi batzuk daude. Ikus ditzagun, bada, bost argudio mota gure eztabaidetan nahiz bestelako lan akademiko idatzietan txertatzeko:

1. **Autoritate-argudioa.** Iritzi bera duen pertsona ospetsua edo instituzioren bat aipatuko dugu geure ideia defendatzeko. Horrela, indar handiagoa emango diogu geure argudioari. Adibidez: «Karl Marxek esan zuen bezala, erlijioa herriaren opioa da».

2. **Analogiazko argudioa.** Antzekoak diren adibideak baliatuko ditugu geure ideia defendatzeko. Adibide horiek, jakina, jendeak ezagutu egin behar ditu, eta ontzat hartu; horrela, gure argudioa hobeto ikusiko du. Adibidez: «Euskara ikasteko, ideia ona da herri euskaldunetara joatea. Ingelesa ikasteko ere jendea Ingalaterrara joaten da, eta oso pozik etortzen da, bertan asko ikasten baitu». Egoera analogoak (antzekoak) aurkeztu behar dira, beraz, ideien arteko lotura agerian uzteko.

3. **Kausa-ondorioaren argudioa.** Premisak ekarriko duen onura edo kaltea aipatuko dugu geure ideia defendatzeko, kausa-ondorioa erlazioa enfatizatuz. Adibidez: «Autobide berriak lasaitasun handia ekarriko dio herriari. Autoak kanpotik joango dira eta, ondorioz, arrisku gutxiago egongo da herrian barrena ibiltzeko orduan».

4. **Baliabide erretorikoak.** Metaforak (hitzen/egoeren esanahiak trukatuko ditugu), hiperboleak (inpresio handiagoa sortzeko), galdera erretorikoak. Galdera itxia egingo dugu, erantzun bakarra onartzen duen galdera; horrela, jendeari zail ipiniko diogu gure kontra egitea. Adibidez: «Lehorte hau izanda, nor egon daiteke urtegiaren kontra? Nor izango da horren inuzentea?»

5. **Definizioan oinarritutako argudioak.** Definizioa argudiatzearekin estuki lotua da, anbiguotasunak ezabatzen laguntzen duen heinean, zehaztasuna ekartzen duen neurrian. Alde horretatik, definizioa azaltzeko estrategia ez ezik (ikus azalpen akademikoaren azpiatalean), argudiatzekoa ere bada. Definitzeko estrategiaz ari garela eta, etimologiara jotzeak ekar ditzakeen abantailak ere gogoratu beharrean gaude.

1. HAUSNARKETA-ARIKETA. Zein argudio mota erabiltzen dituzu normalean idatzizko lanetan? Eta ahoz komunikatzen ari zarela? Zein dira, zure ustez, baliatzen zailenak?

FALAZIA EDO SOFISMA MOTAK

Argudioa kaskarra baldin bada, ez baditu arestiko hiru ezaugarriak betetzen, falazia edo sofisma dela esaten da; hots, ez dira benetako arrazoiak, nahiz eta lehen itxura batean arrazoi ona dela eman dezakeen. Bi izaten dira unibertsitate hasieran egin ohi diren falazia edo sofisma mota **nagusiak**, geure testuetan saihestu behar ditugunak:

1. **Lagin txikiegi batetik ondorioak ateratzea** edo, bestela esanda, osatugabeko informazio bat orokortzea: «Errumaniarrak diru-laguntzak lapurtzera etortzen dira. Nire pareko auzokidea errumaniarra da eta, hona etorri denetik, ez du lanik egin».

2. **Alternatibak ahaztea.** Bururatzen zaigun lehen azalpena onartzea, aukera desberdinetan pentsatu gabe (geroago ikusiko dugunez, argudio on batek kontuan hartu behar baititu beste hipotesiak ere).

Baina badaude (askoz ere) falazia gehiago. Hemen adibide batzuei buruz hausnartzera gonbidatu nahi zaitugu. Falaziak ezagutu eta gero, erreparatu politikari edota telebistako tertuliakide batzuen argudioei, eta ikusiko duzu zenbat amarru edo argudio faltsu erabiltzen dituzten!

- ***Ad hominem*** (pertsonaren aurka egitea, euren prestakuntza eta gaitasunak kontuan hartu gabe).
- ***Ad ignorantiam*** (baieztapen bat egiazkoa dela esatea, gezurrezkoa dela erakutsi ez delako).
- ***Ad populum*** (jende multzoaren balizko ordezko bati erreferentzia egitea: «Mundu guztiak egiten du»).
- ***Ad verecundiam*** (autoritatearen argudiora jotzea, jorratzen ari den kontuan egiazko autoritatea izan gabe).
- ***Dilema faltsua*** (aukerak murriztu bidezkoak ez diren eta muturretan dauden bi bidetara: nire alde edo nire kontra).

- ***Arrasto faltsua*** (arreta desbideratzeko, garrantzi gutxiko edo bigarren mailako gai bat sartzea).

2.2.5. Besteen iritziekin jokatzeko estrategiak: kontraargudioak

Sarri askotan gertatzen da gure iritzia ez dugula hutsetik eraikitzen, auzitan dugun gaiari buruz munduan beste inork ezertxo ere esan izan ez balu bezala. Kasu horietan, gure iritzia eraikiko dugu bestearengandik bestelakoak diren iritziei kontra eginez, horiei aurrez aurre jarriz. Horretarako erabilgarria den baliabidea ikasiko dugu: **kontraargudiatzea**.

Kontraargudiatzea, gutxienez, bi mailatan egin dezakegu:

1. **Erabateko desadostasuna** adieraziz, aurretik esan dena **gezurtatuz**: *esaten den horrekin ez nago ados, ez naiz ni iritzi horretakoa, ez dut uste hori horrela denik, esango nuke hori ez dela inola ere egia, datuek erakusten dute baieztapen hori ez dela zuzena…*

   «Batek baino gehiagok esaten du emakume eta gizonezkook aukera berdinak ditugula lanpostu bat lortzeko orduan; datuek erakusten dute baieztapen hori ez dela zuzena»

2. **Nolabaiteko desadostasuna** adieraziz, baina gero kontra eginez (**kontzesio** deritzo mekanismo honi): *egia da, ados, noski, ez dut hori horrela denik ukatuko, nik ere hala uste dut, neurri batean egia da diozun hori, baliteke horrela izatea, oro har…*

   «Egia da krisia handia dela, baina guk daukagun sare ekonomikoak lagunduko digu egoerari aurre egiten»

2. HAUSNAKETA-ARIKETA. Zure iritziko, zer da teknikoki –linguistikoki, komunikatiboki– zailagoa: argudiatzea edo kontraargudiatzea? Zer dela eta?

Argudio on batek **kontrako argudioak** hartzen ditu **kontuan** (Jimenez, 2012: 173:188). Alderdi horretatik, oraintsuko autoreari segika, gezurtatzeko edo errefutatzeko ahalmena kalitate-irizpide bat izan daiteke bi argudio aurrez aurre dauden testuinguruetan; badira, baina, beste kalitate-irizpide batzuk ere lankidetzazko giroetan aintzat har daitezkeenak: emandako frogak, justifikazioak, arrazoitze-ildoen arteko koherentzia edo pertsuasio-estrategiak.

Bestalde, norberak ez baitu beti arrazoi osoa, oso inportantea da dialektikaren joko bizian **kontzesioak egiten jakitea**; debateetan, eta are bitartekotzetan, konbentzitzeaz gain amore eman eta negoziatu egin behar baita. Kontuan har dezagun hizkuntzaz ez ezik hezkuntzaz ere ari garela, eta, beraz, **adostasunak** lortzea argudio bikainak erabiltzen jakitea bezain garrantzizkoa gerta daitekeela gure lanbidean.

Testu-antolatzaileak egoki erabiltzea funtsezkoa da argudioak eta kontraargudioak ondo eraikitzeko. Zenbait autoreren arabera (Cuenca, 1995), argudiatzeko lokailuek laguntzen dute debateko ideien arteko loturak egituratzen. Are gehiago, Frantziako eskuliburu batzuetan «argudiatzean ikastea-irakastea» lokailuak «ikastea-irakastea» agertu izan da duela gutxi arte (Plantin, 2004). Laburbilduz, argudiatzeko nahiz kontraargudiatzeko **lokailueei arreta berezia** emanen diegu.

2.2.6. Ahozko interakzioa orekatzen: adeitasun-arauak

Argudiozko testuak egokiro jorratzeko asmoz definitu behar ditugu jarraian modalizazioarekin lotura zuzena duten adeitasun-arauak; izan ere, **elkarrekintza-helburuak orekatzeko moduak** dira adeitasun-arauak. Irakasgaiaren hasieran aipatu den legez, hizkuntza-kultura guztietan ez dira erregela berberak izaten: maiz hizkuntza batetik bestera moldatzen dira portaera sozialari dagozkion arau hauek, eta beraz, tradizio britainiarra, frantsesa, hispanoa edota euskalduna ezberdinak suerta daitezke, diskurtsiboki adeitsu (eta, beraz, arrakastatsu) agertzeari begira. Hala eta guztiz ere, hainbat saiakera interesgarri egin izan dira, nolabait, arau unibertsal batzuk zehazteko (Brown eta Levinson, 1987)[6]. Robin Lakoff hizkuntzalariak, esaterako, **hiru harreman-arau** identifikatu zituen hiztunen interakzioan (1973):

[6] Zabalaren (2009) lanera jo daiteke Kortesiaren Teoriaren inguruan gehiago jakiteko nahiz azken 50 urteotan teoria hau nola garatu den ikusteko.

1. Ez inposatu
2. Aukerak eskaini
3. Laguntasunari eutsi

Hiru printzipio horietatik atera daitekeen ondorio nagusietako bat da **esanahiak adostu** egiten direla, alde bakarretik ezarri beharrean. Pertsonen arteko elkarrizketetan, horrenbestez, **negoziatzeko gaitasuna** eskuratu behar da: besteari aktiboki entzun, besteak dioena kontuan hartu, bestearen diskurtsoa norberaren jardunean txertatu, ikuspegiak trukatzean egoki modalizatu, gure hitzek eragiten dituzten inplikazioak kalkulatu, adeitasun-maila egoeraren arabera neurtu eta egokitu, txanda hartu eta txanda eman… Egiazko dialogoa gerta dadin, sustatu beharreko jokamolde linguistiko-diskurtsiboez jabetu, finean.

Argudiozko testuetan, eta ahozkoetan bereziki, berebizikoa da egokiro modalizatzea, bai eta arestiko adeitasun linguistikoa erabiltzea ere, beste hizlarien **irudia zaindu eta errespetatzeko**. Adeitasun-arauek bi funtzio nagusi dituzte: mezuaren zama negatiboa leuntzea eta beste pertsonen irudia sendotzea. Esaterako, leuntzeko mekanismoek entzulearentzako karga arintzen dute (lan bat negatiboki ebaluatzean, esfortzu pertsonala ekarriko duen zerbait eskatzean, berri txar bat ematean, kontrako ikuspegi bat eskaintzean, zuzentzean, eta abarretan). Halaber, solaskidearen irudia indartzeko beste estrategia linguistiko-diskurtsibo batzuk hartzen ditugu, bere irudi soziala aitortzeko asmoz (zorionak ematean, borondate oneko laudorioak ematean, desio onak opatzean, eskerronak eskaintzean, eta abarretan).

3. HAUSNARKETA-ARIKETA. Zure ustez, badute loturarik modalizazioak eta adeitasun-arauek? Zertan bai/ez?

Ikusten ari garenez, norberaren eta besteen irudia zaintzeak berebiziko garrantzia du diskurtso batean; are gehiago, zenbait adituk nabarmendu dutenez, arrakastaren giltzetako bat da hizlariak zein irudi eskaintzen duen eta nola babesten duen besteena egiteko modua. Alde horretatik, gogoan hartu beharra dugu, diskurtsoaren edukia ez ezik, oso garrantzitsua dela ideiak eta emozioak adierazteko modua ere, audientziak bertako edukiak onartuko baditu.

Hizlariaren irudiaz ari garelarik, oso gomendagarria da nork bere burua ezagutzea; hala, bere **alderdi positiboak identifikatu** eta horiek bereziki **balia** nahiz **ustia** ditzake hizlariak, berez dituen bertuteei etekin handiagoa atereaz (eta, bide batez, ahulguneak izan daitezkeen beste alderdi horiek disimulatuz). Horrenbestez, jendaurrean ari garenean, ez dugu geure burua aldatu behar, ez eta geure nortasuna galdu ere, ia kontrakoa baizik. Ildo beretik, ahozko komunikazioa langai duten hainbat autorek nabarmendu dutenez, garrantzi betekoa da **autoestimuaren** afera: ahoz komunikatzeko, nork bere burua ezagutu ez ezik, onartu ere egin behar du, komunikatu nahi duena egoki komunikatuko badu. Horretarako, bi gako nagusi daude: komunikazioa gozatzea eta esaten ari garen horretan sinestea.

Ribas katalan adituak artikulu batean dioenez (2009), irakaslegaien prestakuntzan ezinbestekoa da lanbidearekin **jarrera egokiak eta ikaskuntza etikoak** bermatzea, nahiz eta eduki eta gaitasun horiek diren maiz ikasten nahiz irakasten zailenak. Horrenbestez, guk ikasgelan antolatu behar ditugun eztabaidetan **ikaskuntza kooperatiboa** (ez konpetitiboa) landuko dugu, limurtze hutsaz gainera: edozerk ez du balio «debatea irabazteko», inondik ere ez (Cattani, 2003; Eemeren, Grootendorst eta Snoeck-Henkemans, 2002). Hortaz, pentsamenduak ez ezik, emozioak ere egoki kudeatzen saiatu beharko dugu, geure ikasprozesua emankorragoa gerta dadin.

Irakaslegaientzat *erretorika propio bat* eraiki nahian, pertsuaditzeko gaitasuna ez ezik, oso kontuan hartuko dugu beste hizlariekin negoziatzeko trebezia ere (Plantin, 2011). Halaber, Whatling-ek (2012) proposatzen duenez, hezkuntzan (eta beste arlo publiko batzuetan) aritzen diren profesionalek entzuteko trebetasunak agertu behar dituzte, galdera egokiak egiteko abilezia bermatu behar dute, eta irakaslearen eguneroko lanbidean gertatzen diren gatazkak ongi kudeatzeko estrategia komunikatiboak baliatu behar dituzte.

4. HAUSNARKETA-ARIKETA. Irakaslegaien prestakuntza gogoan, zein da garrantzizkoagoa: bestea pertsuaditzea ala bestearekin negoziatzea? Zer dela eta?

5. HAUSNARKETA-ARIKETA. Zein debate-eredu eskaintzen dute telebista gehienek, zure ustez?

Unibertsitateko ikasgelan proposatu nahi ditugun taldekako eztabaida akademikoei dagokienez, ***role-playing*** izeneko teknika baliatzeko gomendioaren alde gaude. Izan ere, hainbat ikerlanek frogatu duten gisara (ikus, esaterako, Briñol, de la Corte eta Becerra, 2009: 232-240), iritzi jakin bat jendaurrean defendatzeak aldaketak eragin ditzake hori egiten duen hizlariaren pertzepzioan, eta pertsonak aurretik zituen ideiak molda zein horni ditzake bere burua aberasturik. Irakasle-eskoletan hezitzaileen heziketa profesionalaz ari garela aintzat harturik, oso trebakuntza egokia deritzogu, nolabait esateko, plastizitate diskurtsiboaren bidez plastizitate ideologikoa lantzeari.

2.2.7. Erretorika klasikoaren bost faseak: *inventio, dispositio, elocutio, memoria* eta *actio*

Diskurtsoa osatzeko erretorika klasikoak proposatzen dituen urratsak lantzeari begira jarriko gara ondotik. Esan dezagun bost direla urratsak edo faseak: *inventio, dispositio, elocutio, memoria* eta *actio*. Gai honetarako, hainbat iturritatik edan dugu (Aristoteles, 1971; Briz, 2008; Pujante, 2003), baina batez ere **Joxerra Garzia**k euskaratik eta euskararako idatzitako ***Jendaurrean hizlari*** (2008) liburuan oinarritu gara gaiaren inguruan aritzeko eta jarduerak proposatzeko.

2.2.7.1. *Inventio*

Diskurtso erretorikoa edo argudiozko testua osatzeko lehen pausoa da *inventio*. Lehen fase honetan defendatu nahi den tesiarentzako argudioak bilatu, inguratu, asmatu, ekarri eta biltzeko lana da. Hasteko, beraz, diskurtsoan erabiliko dugun material guztia bilduko dugu, eta gero erabakiko dugu nondik hasi.

Komunikazioan, gauza guztien **ardatza hartzaileak** dira, eurengan eragitea da helburua (euren uste, iritzi, jarrera eta balioetan), audientzia asmora biltzea, konbentzitzea da xedea. Horregatik, aukeratuko ditugu argudioak eurei begira beti. Helburu hori lortzeko, kontuan hartuko ditugu audientzia (nor diren, nolakoak, zer

dakiten, zer gustatzen zaien…), egoera (noiz, non eta nola emango dugun gure diskurtsoa) eta gaia (zeri buruz arituko garen).

Inventio orria osatzeko gaia hautatu behar dugu, eta horrekin lotutako argudioak bilatu. Horretarako, ideia-jasa (*brainstorming*) ala mapa kontzeptualak erabil ditzakegu, paperezkoak nahiz digitalak. Lehenik, beraz, **gaiaren barruko bilaketa** egiteari ekingo diogu. Hala ere, gaitik irten barik nekez osatuko dugu diskurtso egokirik. Hori dela eta, **gaitik kanpoko argudioen bila** abiatuko gara, audientzia edota xede-taldea ustekabean harrapatzeko asmoz: entzulea-irakurlea harritzea nahi badugu, itxura batean gaikoak ez diren argudioak ekarri beharko ditugu geure diskurtsora. Gaitik kanpoko bilaketa egiteko, antzekotasunari, testuinguruari, kausa-ondorio moduko galderei erreparatuko diegu. *Inventio* orriarekin amaitzeko, gaiarekiko izango dugun jarrera erabakiko dugu.

6. HAUSNARKETA-ARIKETA. Egizu hurrengo gaia duen *inventio* orria (ideia-jasa edo mapa kontzeptuala): «baldosak» (*in* Garzia, 2008: 71-79).

Jarduera hori amaitutakoan, zerrenda itzazu segidan gaurkotasun handiko sei gai:

1.

2.

3.

4.

5.

6.

Erretorikaren oinarrizko mekanismoa **analogia** da. Analogia deritzo gauzen, ideien eta egoeren arteko **lotura ezkutuak aurkitzea**ri edo asmatzeari. Garziak dioskunez (2008: 94): «Analogiak berebiziko garrantzia du. Analogiaren egitekoa, ordea, itxuraz zerikusirik ez duten gauza, ideia eta egoeren arteko sakoneko loturak

bistaratu edo asmatzea da». Eta baliabide erretoriko hau zertarako? Diskurtso (intelektualki) aberatsa egin ahal izateko. Bestela esanik, analogiak erabiliz ideia diferenteak elkarrekin uztartzen trebatuko gara, eta testuari bestelako dimentsioa emango diogu.

Batzuetan, egunerokoan eta, analogia zenbait egiten ditugu halako egoera baten eta esaera zahar baten artean: zerbait ikusi edo jakin orduko, esaera bat datorkigu gogora, egoera hori hobeki ulertzeko edo argitzeko asmoz. Egia da esaera zaharrak ez datozela bereziki bat giro akademikoarekin; hala ere, neurrian erabilita, baliabide probetxugarria izan daiteke gure diskurtsoan txertatzeko.

7. HAUSNARKETA-ARIKETA. Zein gairekin lotuko zenituzke hurrengo esaera zaharrak? Zeri buruz hitz egiteko erabiliko zenituzke?

Tximinoa gorago eta uzkia ageriago // Kalean uso, etxean otso

8. HAUSNARKETA-ARIKETA. Esloganak egiteko esaera zaharrak ere erabil ditzakegu. Aukeratu esaera zahar bat eta osatu iragarki baten eslogana.

2.2.7.2. *Dispositio*

*Dispositio*a argudioak antolatzean, diskurtsoa egituratzean eta **testuari batasuna** ematean datza; hain zuzen, *inventio* orrian bildu ditugun esangaiak egokiro antolatzean. Dikurtsoa antolatzeko eta egituratzeko, **kalkulu erretorikoa** erabil dezakegu. Gure hartzaileengan sorrarazten duen erantzuna kalkulatzea da metodo honen funtsa, eragiten ditugun sentimenduak kontuan hartuta ordenatuko baititugu argudioak. Mekanismo honen bidez jakin dezakegu noiz-zer komeni zaigun adieraztea, betiere lortu behar dugun azken **helburu komunikatiboaren arabera** (defendatu behar dugun rolaren arabera, esaterako).

Inventio orrian lortu ditugun argudioak banan-banan har ditzakegu, eta honako galdera hauek egin:

1. Xede-taldeak argudio hau jasotzean pentsatzen eta sentitzen duena komeni zaigu xedea lortzeko?
2. Baiezkoa bada erantzuna, kokatu leku horretan (hasieran, tartean, amaieran…)
3. Ezezkoa bada, saiatu beste argudio batekin, ala asmatu berriren bat.

9. HAUSNARKETA-ARIKETA. Demagun Waldorf pedagogia erabiltzen ari den ikastetxe bateko irakasle zarela. Zein argudio nagusi aukeratuko zenituzke bertan egiten duzuen lana defendatzeko?

10. HAUSNARKETA-ARIKETA. Arestiko egoera hori gogoan, zein argudio erabiliko zenituzke ikastetxe horretan egiten den lana kritikatzeko?

Diskurtsoaren hasierak hiru funtzio eduki ohi ditu: audientziaren arreta erakartzea, aurrera egiteko gogoa piztea eta hizlariaren aldeko jarrera hartzea (*captatio benevolentiae*). Hori oso argi ikusten da publizitatean, arlo honetan aparte lantzen baitute hasierako argudioa (*clinchera*), eta lehen helburua betetzen dute batez ere. Erretorika klasikoan ere baliatzen zen hasierako agurra *captatio benevolentiae*ren barruan, eta esker-hitzak izaten dira lehen-lehenik, publikoaren arreta eta sinpatia eskuratzeko asmoz. Brizek dioen bezala (2008: 93), gaurko jendartean kortesiazko ekintza da entzutea, hizlariak behar bezala eskertu behar duena berari emandako denboragatik. Zenbait egoeratan, beraz, formal jokatu beharra dago, eta formalak egoeraren arabera jokatzea esan nahi du, egokiro.

Audientziaren arreta lortze aldera, edozer erabiltzen dute iragarkiek. Adituek dioetenez, telebistako hamar iragarkietatik zortzitan **umorea** baliatzen da amu gisa. Umorea, baina, kontu delikatua da: lantegi zaila da oso irribarrea edota irria sortzen jakitea.

Garapenaren atalean, berriz, dialektika/negoziazio bizia gertatuko da, bi taldeak era interaktiboan arituko baitira. Atal honetarako, talde bakoitzaren argudioez gainera, berebizikoa da balizko kontraargudioak aldez aurretik ondo prestatuta ekartzea. Halaber, rolaren araberako iritzi kontrajarriak trukatzen ari garen honetan, garrantzizkoa izango da lehenago ikusi ditugun modalizazio egokiak eta adeitasun-arauak ondo baliatzea, eztabaidan ari diren hizlari guztien irudia zaintze aldera, errespetatze aldera.

11. HAUSNARKETA-ARIKETA. Erabaki duzu jadanik nola modalizatuko zenukeen diskurtsoa eztabaida akademiko batean? Eta komunikatiboki adeitsu nola agertu? Zer estrategia hartuko zenuke zure eta beste hizlarien irudia zaintze aldera?

Ondorioei dagokienez, ohiko estrategia izaten da ordura arte garatu den diskurtsoaren sintesia egitea, bai eta audientzia alde jartzeko **argudiorik indartsuena** amaierarako gordetzea ere. Era berean, gomendagarria izaten da diskurtsoak amaiera ezusteko edo original bat izatea; izan ere, oker tipikoa izaten da diskurtso bati bukaera motela ematea: ahozkoan bereziki, esaten den azken hori da audientziaren gogoan gelditzen dena, *etxera* eramango duena. Nolanahi ere, diskurtsoa ondo gauzatu bada, hiru atalen arteko koherentziak argia izan behar du, hasi eta buka.

2.2.7.3. *Elocutio*

Diskurtsoa egoki formulatzea, mamia eta forma ematea da *elocutio*aren egizkizuna. Gaia ikertu duten autore nagusien arabera, **formulazio** eraginkorrenak **irekiak** dira, hitzetatik harago doazenak; hartzaileak egin behar du literalki esaten denetik esan nahi denerako bidea; aurreko atalean ikusitako Cassanyk esango lukeen bezala, hartzaileak eraiki behar du diskurtsoaren esanahia, betiere igorlearen laguntza komunikatiboarekin. Horretarako, **baliabide poetiko-erretorikoak** ditugu erabilgai, egoera komunikatiboak eskatzen duenerako, bereziki diskurtsoari halako indar berezi bat emateko. Komeni da adieraztea, eguneroko jarduera diskurtsiboak aztergai ditugun

irakasgai honetan, hiztun guztiek erabiltzen dituztela halako estrategia komunikatiboak beste hiztunengan gehiago eragiteko asmoz. Arestikoaren adibide tipiko-tipikoa da hiperbolera jotzea, zerbait kontatzen ari garenean testuinguru informal batean: hiztunak hanpatzen du kontakizuna, entzuleen arreta erakartzeko.

Erretorikaren ikuspegitik, ideiak adierazteko bi modu daude funtsean, eta biak dira baliagarriak: **aurrefabrikatua** eta **poetikoa**. Aurrefabrikatua deritzogu ideiak adierazteko molde arruntari, normalean erabiltzen denari. Poetikoa, beraz, bestea da, normalean baliatzen ez den molde bereziagoa. Esapide aurrefabrikatuak zein poetikoak beharrezkoak dira diskurtsoa ongi osatzeko, bakoitzari bere funtzioa –unea– emanez. Hala, diskurtsoaren zenbait mementotan baliteke molde poetikora jo beharra, esangaia indar berezi batez hornitu gura dugulako.

12. HAUSNARKETA-ARIKETA. Erabili duzu inoiz molde poetikorik zerbait (bestela) adierazteko? Ezagutzen duzu molde poetiko-erretorikoa darabilen telebistako iragarkirik?

Esan dugu lehenago analogia erabiltzen dugula kanpoko argudioak diskurtsora ekartzeko. Argudioen arteko loturak ezartzeko, eginahalak egingo ditugu **metafora** eta metonimia baliabide erretoriko-poetikoak erabiltzeko ere. Arduini italiar hizkuntzalariak oinarrizko mekanismoen arabera sailkatu ditu baliabide poetiko-erretoriko garrantzitsuenak. Bere esanetan, metaforak (eta metonimiak) dira hizkuntzaren, **pentsamenduaren eta ezagutzaren muina**. Metafora, sarri askotan, irudia sortzean datza, hitzen bidez irudia sortzea hartzailearen gogoan: zenbat eta argiagoa –«plastiko» esaten zaio– den irudia, orduan eta eraginkorrago komunikatzen arituko gara. Idatziz nola ahoz argudiatzeko tenorean, analogiak eta metaforak txertatzeko gonbita egina da, beraz.

13. HAUSNARKETA-ARIKETA. Baso erdi bete/huts bat zeren metafora izan daiteke, zein testuingurutan? Zein irudi erabiliko zenuke lanez gainezka zabiltzala adierazteko?

14. HAUSNARKETA-ARIKETA. Zer adierazi nahi du Joseba Sarrionandiak «Dena eza, dena gabezia, dena mingarria, besamotzaren besoa bezala» bezalako hitzen segidaren bidez? Bestela galdetzeko, zer adieraz dezake testuan besamotzaren besoaren irudiak?

15. HAUSNARKETA-ARIKETA. Lan-baldintza duinagoak eskuratzeko gose-greba luzea egina duen Jose Mari Lejardi garraiolariak esandako hitzak dira honako hauek: «Gaur egun, garraiolariok jendartearen odola gara». Ikusten duzu pentsamendu/diskurtso metaforikorik arestiko adierazpenean? Baiezkoan nola ezezkoan, argudiatu zure erantzuna.

Bestalde, baliabide poetikoez gainera, **konkrezioa** ere estrategia komunikatibo eraginkorra gerta daiteke. Horrela, diskurtsoa solaskideengana zein audientziagarengana hurbiltzeko aukera dugu, pertsonalizatzekoa edota hartzailea inplikatzekoa (adibidez, Gasteizen egiten badugu hitzaldiren bat, erreferentzia egin diezaiokegu hiriari berari edota bertako ohituraren bati).

Formulazioaren atala amaitu aurretik, **lexikoaren hautaketa**z bi hitz egiteko asmoa dakargu. Izan ere, maiz ez ditugu ondo aukeratzen berbak; alderdi horretatik, eztabaida akademiko batean, bereziki zaindu beharrekoak dira adjektiboak. Gogoan hartu beharra dago, berebat, lexikoaren hautaketak bat egin behar duela erregistro komunikatiboarekin, bai eta modalizazio egokiarekin eta adeitasun-arauak ondo erabiltzearekin ere.

2.2.7.4. *Memoria*

Testu idatzia osatu dugu orain arteko pausoetan, eta ahozko diskurtsoari begira jarriko gara orain. Zoritxarrez, behin baino gehiagotan aise gal daiteke testu eder bat, ahotsaren, gorputzaren, eta mintzaldia egin behar den lekuaren kudeaketa egokirik ezean. Horrenbestez, hitzezko komunikazioaz gain, ez-hitzezko komunikazioari ere erreparatu beharko diogu, nahitaez.

Esan dezagun testua «ahots» bihurtzeko modu nagusiak hiru direla:

1. Prestatutako testua irakurri (irratian, adibidez).
2. Prestatutako testua buruz ikasi eta esan (antzerkian, adibidez).
3. Gidoi baten laguntzaz «inprobisatu» (audientzia hurbil, aurrez aurre dugunean).

16. HAUSNARKETA-ARIKETA. Zein da, zure aburuz, eztabaida akademikoaren kasua? Zergatik?

Memoriaren fasea ez da testua buruz ikastea, memoriak hiru eginkizun garrantzitsu baititu diskurtsogintzan:

1. Esan beharrekoa gogoan izatea (ez da beharrezkoa den-dena buruz ikastea).

2. Argudio-biltegia hornitua eta antolatua izatea.
3. Diskurtsoa gogoangarri bihurtzea.

Diskurtsoa gogoangarri egiteko, hartzaileari axola dioten kontuak aukeratuko ditugu *invention*. *Disposition*, hartzaileak gure diskurtsoa unitate oso eta bakar moduan hauteman behar du. *Elocution*, hartzailearen epe luzerako memoria zabaltzeko moduko formulazioa egiteko saiakera egingo dugu, originala, pertsonal(izatu)a. Erraz gogoratzen diren mezuak lortzea litzateke ideala, beraz.

17. HAUSNARKETA-ARIKETA. Ezagutzen al duzu halako mezu gogoangarririk (telebistatik, adibidez), munduari buelta eman dion esloganik edota esaldirik? Zertan datza mezu horien arrakasta? Zergatik gelditu dira iltzatuta iruditeria kolektiboan?

2.2.7.5. Actio

Diskurtsoaren azken fasean, **ahotsa**z, **gorputza**z eta espazioaren kudeaketaz mintzatu beharrean gaude; bestela adierazteko, komunikazioaren **faktore kinesikoez** eta **proxemikoez**.

Normalean, hauek dira ahotsa egoki kudeatzeko zaindu beharreko alderdiak: ebakera, intentsitatea, lastertasuna, pausa-isiluneak, tonu-intonazioa eta distantzia-erregistroak. Ahotsaren alderdi horiek diskurtsoaren osagaiak hierarkizatzeko balio dute. Hori dela eta, guztiz gomendagarria da **gidoi erretoriko bat prestatzea** komunikazioa egin baino lehen. Gidoi horrek balio dezake arestiko kontu guztiak biltzeko zein planifikatzeko: nork zer esango duen noiz eta nola; pausa berezirik markatu nahi ote den; zein tonu hartuko den esapide poetikoagoak erabiltzean; eta abar. Lehenago ikusitako kalkulu erretorikoaren bidez ere erabaki dezakegu nola erabiliko dugun ahotsa.

Ebakera da ulermena bermatzen duen ezinbesteko elementua; ahal dela, ebakera zorrotza eta lasaia edukiko dugu.

18. HAUSNARKETA-ARIKETA. Ea gauza zaren hitzak ondo ahoskatzeko, arkatz bat hortzen artean duzula. Hurrengo paragrafoa har dezakezu lagintzat.

Intentsitatea edo bolumena da enfasi-bide eraginkorrena, eta arreta erakartzeko balio du. Horretan landuko ditugu oinarrizkoa, ozenagoa eta apalagoa. Testu batean azpimarratutakoak ozen irakurriko ditugu.

Lastertasuna animoaren erakusgarri izan daiteke. Horretan landuko ditugu oinarrizkoa, azkarra eta mantsoa. Kronometratu irakurraldiak.

Tonu-intonazioak tristetasuna eta poztasuna adieraziko dizkigute. Normalean, beste alderdi batzuei atxikita doa, lastertasunari adibidez. Testuari lotuagoa da, beste alderdiekin konparatuta. Zaindu bereziki idatzitakoa irakurtzen dugunean, eta idatzitako galderak guztien gainetik (oso artifizial geratzen baitira irakurrita). Testu bat neutro, erregistro tragikoan eta komikoan irakurriko dugu, hori lantzeko. Beste aukera bat da irrati edo telebistatik grabatutako zati bat imitatzea.

Pausa eta isiluneak dira enfasi-bidea eta arretari eusteko baliabideak, belarriak kontrasteari erreparatzen diolako. Iragarritakoa erabiliko dugu denboran atzeratzeko, arnasa hartzeko eta pausa erretorikoak egiteko. Edota esaldia ez dela amaitu adierazteko. Bi une berezi hartu behar ditugu kontuan: hasi aurreko pausa eta amaitu ostekoa. Horiek aprobetxatuko ditugu hitz egiteko aukeratu dugun lekuan kokatzeko eta jendeari begira geratzeko.

Inplizituki, honakoa esaten ari gara: diskurtso idatzietarako egokiak diren estrategiak (lexikoa, sintaxia edo baliabide erretorikoak) desegokiak gerta daitezkeela diskurtso mintzatuetan. Lexikoari dagokionez, esaterako, kalkulatu beharra dago **ulergarritasuna** eta **esangarritasuna**. Horretarako, sinonimo argigarriak erabil daitezke ulertuko ez dela uste dugunean, eta, trabatzen bagara, silabaka esan dezakegu esan beharrekoa.

Sintaxiari begira, hartu gogoan honako gomendio hauek: kontuz menpeko esaldi luzeekin; jo esaldi laburragoetara. Hobe da, gidoi erretorikoa prestatzeko orduan, enuntziatu parentetikoak saihestea (parentesiak, marratxoak…). Idatzian ez bezala, ez izan beldurrik errepikapena erabiltzeko orduan: **errepikapen enfatikoa**z ari gara.

Gorputzaren kontrolari dagokionez, begirada eta eskuak kudeatu behar dira nagusiki. Ahal den neurrian, begirada lasaia eduki, eta, agurra egitean, hasieran eta amaieran, begiradarekin ere agurtu jendea. **Paperera iltzatuta** egotea saihestuko dugu.

Keinu-imintzioei dagokienez, berriz, eskuak ahalik eta libreen edukitzea gomendatzen da normalean: ez sobera estatiko, ez sobera mugitu. Aurpegierak zaintzen saiatuko gara, interesa adierazteko, arreta areagotzeko edota emozioak azpimarratzeko.

Azkenik, aprobetxagarriak izan daitezke teknologia berriek ekarritako ikusentzunezkoen baliabideak. Hala ere, diskurtsogintzan trebatzeko xedea gogoan, era neurtuan baliatuko ditugu halako bitartekoak.

2.2.8. Debate-ereduak aztertzen eta akatsen erabilera didaktikoa egiten

Ondoren, azken urteotan lehen mailako ikasgelan egin ditugun eztabaida akademikoetan gehien azaldu diren akats komunikatibo-erretorikoen berri eman nahi dugu, aurrekoek egin dituzten erroreak guk errepika ez ditzagun eta, ahal den neurrian, haien erabilera didaktikoaz balia gaitezen.

Diskurtsoa antolatzeko fasean (*inventio*, *dispositio*), akats handia izan daiteke bilaketari behar adinako garrantzirik ez ematea, eta, ondorioz, eztabaidagaiaren eremu zabala ondo ez ezagutzea. Halaber, gerta daiteke argudioak ondo antolatu gabe ematea, bai eta kalkulu erretoriko egokirik ez erabiltzea ere: arrazoibide nagusiak aldez aurretik ez planifikatzea eztabaidaren egituraren arabera (sarrera-garapena-ondorioak). Azken puntu horretan, behar-beharrezkoa da beste taldeen argudioak zein izan daitezkeen pentsatzea, haiei aurre egiteko.

Argudioak bilatzean eta inguratzean, hainbat ikaslek ez dute kontuan hartzen teorian ikusitakoa eta, ondorioz, ez dira argudio mota ezberdinak erabiltzen saiatzen. Halaber, batzuek ia ez dute autoritate-argudiorik erabiltzen, ez eta estatistikarik edota ikerlanik ere, eta, hala egiten dutenean, ez dute (beti) iturria aipatzen.

Dikurtsoa formulatzeko fasean (*elocutio*), ohikoak izaten dira makulu-hitzen erabilera agerikoa, kolokialismo desegokiak eta zehaztasun falta adierazten ari denaren gainean. Ikus ditzagun alderdi horiek eta beste batzuk azpigaitasunka zerrendatuak:

Azpigaitasun linguistikoa

Ohiko akats gramatikalez gainera, sintaxian egitura sinpleegiak eta laburregiak erabiltzeko joera, bereziki diskurtsoaren garapenean, atalik bizienean. Egia da maiz aholkatzen dela egitura sintaktiko luze eta zailak baztertzea, testuaren komunikagarritasuna bermatze aldera. Dena den, kontuan hartu behar dugu goi-mailako hezkuntza-esparruaz ari garela, unibertsitateaz, eta, beraz, dikurtsoak hala eskatzen duenean, jakin beharra dago sintaxiak dikurtso akademikoa aberasteko ematen dituen aukerez baliatzen ere, komunikazioa bihurritu gabe betiere.

Hiztegiari dagokionez, bereziki ahoz eta modu bizian ari direlarik, ohartu gara maiz gertatzen dela lexikoaren erabilera lausoa, kamutsa eta zehaztugabea. Hiztegiaren barruan, neurri txikiagoan, erdarakada zenbait ere agertu dira.

Azpigaitasun soziolinguistikoa

Ikasle batzuek sarritan nahasten dituzte erregistro formalak eta informalak. Alde horretatik, ikasle horiek formal idazten badakite ere, arazo nabariak dituzte mintzo formalari eusteko. Komeni da gogoan hartzea behin baino gehiagotan esandakoa: orain arteko errepertorio komunikatiboa hornitzen jarraitu behar dugu, irakasle onak izango bagara; hortaz, ezinbesteko kontua da diskurtso formaletan trebatzea irakaslegaien prestakuntzan.

Azpigaitasun diskurtsiboa

Ikasle ugarik oraindik oztopo handiak dituzte ahozko testu-antolatzaileak egoki erabiltzeko; gainera, ikusi eta aztertu denaren arabera (Zelaieta-Anta, 2011; eta Alvarez-Uria eta Zelaieta-Anta, 2012), argudioak eta kontraargudioak emateko orduan lokailu berak baliatzeko joera dute hainbatek.

Erretorikak aholkatutako ikuspegian, zenbait baliabide poetikoz hornitu behar ditugu diskurtsoak, bereziki analogiaz eta metaforaz. Hala ere, behar baino gutxiagotan

agertzen dira halako mekanismoak; ondorioz, lauagoak eta xumeagoak gertatzen dira diskurtsoak.

Azpigaitasun estrategikoa

Ahozko interakzioan, komeni da birfomulazioak egitea, ideia nagusiak ondo helarazteko errepikapen enfatikoa. Hala ere, ikasle askori kosta egiten zaie arestikoaz ohartzea: idatzian ez bezala, erredundantzia ona eta onuragarria izan daiteke ahozkoan. Berebat, zenbait ikaslek molde idatziei (estuki) segika jarduten dute: linealtasuna mezuan, apelazioarik eza, freskura falta…

*Memoria*n eta *actio*n aholkatu denaren kontrara, zenbait ikaslek paperari lotu samar jardun dute oraindik solasean. Orobat, ikasle franko ez dira ohartzen euren ez-hitzezko komunikazioaz: jarrera (fisikoa), eskuak, hankak, ahotsa, begirada, aurpegierak nahiz keinuak.

Azkenik, batzuetan ikusi dugu zenbaitek ez dietela behar adina zukurik atera eztabaidara ekarritako materialei, uneko urduritasun handia zela eta.

2.2.9. Komunikazioan trebatzen segitzeko ariketa eta galdera gehiago



Saia zaitez atalaren hasieran dagoen “Gaitasunak eta edukiak hausnarrean girotzen” izeneko galdetegia berriz egiten, orain arte landutako azalpenak eta jarduerak guztiak gogoan harturik. Dakizunez, galdera guztiei erantzuna emateko moduan ez bazeunde, punturen bat sakonago landu beharko zenuke.

19.HAUSNARKETA-ARIKETA: Aukera ezazu erretorikoki gustatzen zaizun telebistako iragarki bat: Zergatik da ona iragarki hori? Guk ikusitako teoriarekin erlazionatzeko gauza zinateke?

20.HAUSNARKETA-ARIKETA: Zure ustez, noiz erabili behar du erretorika irakasle batek bere lanbidean? Zertarako?

21.HAUSNARKETA-ARIKETA: Badute loturarik Erretorikak eta Diskurtsoaren Analisiak? Bistan denez, kontu honen inguruan ere erantzuna argudiatu beharko duzu.

3. BIBLIOGRAFIA

Adam, J.M. (1992). *Les textes: Types et prototypes*. Paris: Nathan.

Alonso, I. Garro, E eta Irizar, A. (2010). *Administrazioko testugintzan sakontzeko ikastaroa*. Zarautz: IVAP eta Mondragon Unibertsitatea.

Alvarez, T. (2004). *Textos expositivo-explicativos y argumentativos*. Bartzelona: Octaedro.

Alvarez-Uria, A. eta Zelaieta-Anta, E. (2012). Irakaslegaien ahozko gaitasunen diagnosirako egitasmoa. *Tantak*, 24 (2). 77-100.

Alvarez-Uria, A. eta Zelaieta-Anta, E. (2014). Irakaslegaiak ahozko gaitasunetan prestatzen: estrategia komunikatiboak eta trebetasun sozialak *in* Itziar Aduriz eta Ruben Urizar (ed.). *Euskal hizkuntzalaritzaren egungo zenbait ikerlerro: Hizkuntzalari euskaldunen I. topaketa*. UEU: Bilbo.

Anscombre, J.C. eta Ducrot, O. (1983). *L'Argumentation dans la langue*. Brusela: Mardaga.

Arakama, J. M., Arrieta, A. Lozano, J., Robles, J.M. eta Urrutia, R.M. (2009). *IVAPeko estilo liburua*. Zarautz: IVAP.

Aristoteles (1971). *Retórica*. Madril: Instituto de Estudios Políticos.

Bachman, L. F. (1990). *Fundamental Considerations in Language Testing*. Oxford: Oxford University Press.

Bachman, L. F. eta Palmer, A. S. (1996). *Language Testing in Practice*. Oxford: Oxford University Press.

Bajtin. M. (1979). El problema de los géneros discursivos *in Estética de la creación verbal*. Mexiko D.F.: Siglo XXI. 248-293.

Berria egunkaria. (2006). *Estilo liburua*. Donostia: *Berria* egunkaria.

Bordieu, P. (2001). *Langage et pouvoir symbolique*. Paris: Seuil/Points.

Briñol, P, de la Corte, L eta Becerra, A. (2009). *Zer da pertsuasioa*. Bilbo: EHU.

Briz, A. (koord.). (2008). *Saber hablar*. Madril: Instituto Cervantes.

Brown, P. eta Levinson, S. (1987). *Politeness: Some Universals in Language Usage*. Cambridge: Cambridge University Press.

Calsamiglia, H, eta Tusón, A. (1999) *Las cosas del decir. Manual de análisis del discurso*. Bartzelona: Ariel.

Camps, A., Guasch, O. eta Ruiz Bikandi, U. (2010). La didáctica de la lengua (las lenguas) y la literatura. *Textos*, 55, 71-80.

Canale, M. (1983). De la competencia comunicativa a la pedagogía comunicativa del lenguaje *in* M. Llobera (arg.) (1995), *La competencia comunicativa* (63-81). Madril: Edelsa.

Canale, M. eta Swain, M. (1980). Theoretical bases of communicative approaches to second language teaching and testing. *Applied Linguistics* 1, 1-47.

Carlino, P. (2005). *Escribir, leer y aprender en la universidad. Una introducción a la alfabetización académica*. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.

Cassany, D. (1995). *La cocina de la escritura*. Bartzelona: Anagrama.

Cassany, D. (2006a). *Tras las lineas. Sobre la lectura comtemporánea*. Bartzelona: Anagrama.

Cassany, D. (2006b). *Taller de textos. Leer, escribir y comentar en el aula*. Bartzelona: Paidós.

Cassany, D. (2007). *Afilar el lapicero. Guía de redaccion para profesionales*. Bartzelona: Anagrama.

Cattani. A. (2003). *Los usos de la Retórica*. Madril: Alianza.

Castelló, M. (2007). *Escribir y comunicarse en contextos científicos y académicos. Conocimientos y estrategias*. Bartzelona: Graó.

Celce-Murcia, M.; Dörnyei, Z. eta Thurrell, S. (1998). Gaitasun komunikatiboa: asmo pedagogikoek sortutako eredu bat, osagaien edukiak zehaztuta. *Hizpide*, 41. 59-89.

Chomsky, N. (1965). *Aspects of the Theory of Syntax*. MIT Press.

Crystal, D. (2004). *Language and the Internet*. Cambridge: Cambridge University Press.

Cuenca, M. J. (1995). Mecanismos lingüísticos y discursivos de la argumentación. *Comunicación, Lenguaje y Educación*, 26. 23-40.

Cuenca, M .J. (2007). Modalització i text argumentatiu. *Articles*, 43. 33-43.

Echevarría, M. A., Gastón, I eta Mintegi, L. (2009). Alfabetización académica en el ámbito universitario *in* J. Rojo, Uri Ruiz-Bikandi eta Kiko Ruiz (arg.) *Hizkuntza eta literaturaren irakaskuntza eta ikaskuntza*. Bilbo. 93-108.

Eemeren, F.H. van, Grootendorst, R., eta Snoeck Henkemans, A.F. (2002). *Argumentation: Analysis, evaluation, presentation*. Mahwah, NJ: Lawrence Erlbaum Associates.

Esnal, P. (2009). *Testu-arkitektura eta gramatika, ekintza komunikatiboaren baitan. [Hizpide 71]* Donostia: HABE.

Etxebarria, A eta Garay, U. (2010). Irakasleen komunikazio-gaitasuna: hausnarketarako gaia. *Uztaro* 73. 39-48.

Europako Kontseilua. (2005). *Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

Euskaltzaindia. (2008). *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia.

Euskaltzaindia. (2011). *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia.

Eusko Jaurlaritza. (2010). *97/2010 Dekretua Haur Hezkuntzarako, Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako eta Batxilergorako*. EHAA: Gasteiz.

Ezeiza, J. (koord.). (2010). *Unibertsitateko komunikaziorako gaitasunen eskuliburua*. EHUko sare-argitalpena: http://testubiltegia.ehu.es/

Garzia, J. (2008). *Jendaurrean hizlari*. Irun: Alberdania.

Goikoetxea, N. (2007). *Gaitasun komunikatiboa eta hizkuntzen arteko elkar eragina EAEko hezkuntza eleanitzean*. Doktorego Tesiak, EHU.

González Nieto, L. (2001). *Teoría lingüística y enseñanza de la lengua (lingüística para profesores*). Madril: Cátedra.

Hernández, J.A. eta García, M.A. (2010). *Historia breve de la retórica.* Madril: Síntesis.

Huizi, P. (2009). Argumentazioaren teoriaren historia. *Gogoa,* 9 (2). 151-180.

Hymes, D. H. (1967). *On communicative competence*. Filadelfia: University of Pennsylvania Press.

Hymes, D.H. eta Gumperz, J. (1972). *Directions in sociolinguistics: the ethnography of communication*. New York: Holt, Rinehart, Winston.

Jimenez. M.P. (2012). *10 gako. Argudiatzeko eta frogak erabiltzeko gaitasunak*. Bilbo: EHU.

Jimeno, P. (2004). *Idazmenaren irakaskuntza arlo guztietan*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.

Kennedy, G.A. (1998). *Comparative Rethoric. An historical and cross-cultural introduction.* New York: Oxford University Press.

Kerbrat-Orecchioni, C. (2004) ¿Es universal la cortesía? *in* D. Bravo eta A. Briz (arg.), *Pragmática sociocultural: estudios sobre el discurso de cortesía en español*. Bartzelona: Ariel Lingüística. 39-53.

Lakoff, R. (1973). *The logic of politeness: Minding your p's and q's.* Chicago: Chicago Linguistic Society.

Larrea, K. eta Maia, J. (2010). *Galdera-erantzun batzuk hizkuntzaren didaktikaz*. EHUko sare-argitalpena: http://testubiltegia.ehu.es/

Leith, S. (2011). *You talkin' to me? Rhetoric from Aristotle to Obama.* Londres: Profile Books.

Marraud, H. (2013). *¿Es lógic@? Análisis y evaluación de argumentos*. Madril: Teorema.

Mendiburu, M. (2010). *Hizkuntzaren aldagarritasuna: Euskararen aldaerak (irakasleen formaziorako apailatua)*. EHUko sare-argitalpena: http://testubiltegia.ehu.es/

Oxford, R. (1990). *Language Learning Strategies: What Every Teacher Should Know*. New York: Newbury House Publishers.

Padilla, C. Douglas, S. eta López, Esther (2010). Competencias argumentativas en la alfabetización académica. *@tic. Revista d'innovació educativa*, 4. Azken kontsulta: 2013/05/13.

Palou, J. (2011). Democracia, disidencia y educación lingüística. *Textos*, 58. 22-28.

Perez-Gaztelu, E. eta Zulaika-Ijurko, E. (2012). *Idatziz komunikatu. Gazteak eskolan idaztean*. Deustuko Unibertsitatea: Donostia.

Platon. (1998). *Fedón. Fedro.* (Introducciones, traducción y notas de Luis Gil Fernández). Madril: Alianza Editorial.

Plantin, C. (1998). *La argumentación*. Bartzelona: Ariel.

Plantin, C. (2004). Pensar el debate. *Signos*, 37. 121-129.

Plantin, C. (2011). No se trata de convencer, sino de convivir. L'ère post-persuasion. *Retor*, 1 (1). 59-83.

Plazaola, I., Alonso, M.P. (arg.) (2007). *Testuak, diskurtsoak eta generoak. Euskal testuen azterketa korrontea.* Donostia: Erein.

Pujante, D. (2003). *Manual de retórica*. Madril: Castalia.

Ribas, T. (2009). Investigación y formación del profesorado en didáctica de la lengua *in* J. Rojo, U. Ruiz eta K. Ruiz (arg.), *Hizkuntza eta literaturaren irakaskuntza eta ikaskuntza* (29-42). Bilbo: EHU.

Ruiz-Bikandi, U. (apailatzea). (2009). *Bigarren hizkuntzaren didaktika Haur eta Lehen Hezkuntzan*. Bilbo: UPV/EHU.

Unzue, A. (2009). *Debaterako argudiatu. Bigarren Hezkuntzako arlo guztietarako proposamena*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.

Vilà, M. (koord.). (2005). *El discurso oral formal*. Bartzelona: Graó.

Whatling, T. (2012). *Mediation Skills and Strategies: A Practical Guide*. Londres eta Filadelfia: Jessica Kingsley Publishers.

Weigand, E. (arg.). (2008). *Dialogue and rhetoric.* Amsterdam: John Benjamins.

Zabala, J. (2009). Kortesiaren azterketa euskarazko bi debateetan. *Euskera*, 54, 2-1. 811-842.

Zabaleta, I. (2010). *Hizkuntzaren zientziak hizkuntzaren pedagogian*. Donostia: Jakin.

Zelaieta-Anta, E. (2011). Unibertsitateko ikasleen gaitasun komunikatiboa lantzen: taldekako eztabaidak ikasgelan. *Tantak*, 23 (2). 97-117.

Zuazo, K. (2005). *Euskara batua: ezina ekinez egina*. Donostia: Elkar.

ERANSKINAK

Lehen Eranskina: testu-antolatzaileak

Hasierakoak

Hasteko,
Lehenengo eta behin,
Ezer baino lehen,
Ezeri ekin baino lehen,
Bazen behin
Lehen-lehenik,
...z hitz egin behar dudalarik,
Sarrera gisa esango dugu ...

Ordena
Alde batetik,... Bestetik,
Ildo beretik,
Era berean,
Halaber,
Lehenik.../ bigarrenik,...
(Arestian) esan bezala,
(Gorago) esan bezala,
Lehengo hariari jarraituz,
Gauzak horrela,
Horiek horrela,
Bai... bai / Ez…ez

Ideia bat aurkezteko
-ri dagokionez,
... dela eta, komeni da esatea ...
Oro har,

Jarraipena
(Honen) ondorioz,
Horren haritik,
Hari beretik,
Era berean,
Bigarrenik,
Gero,
Honen ostean,
Hau (ikusi) eta gero,

Kontrakotasuna
Baina
Dena dela, / Dena den,
Hala (eta guztiz) ere,

Adibideak jartzeko

Adibidez,
Esate baterako,
Hau da,
Ikus, adibidez, -ren kasua: ...
Kasu (bat aipatzeko ...)
Hori erakusteko, aipa dezagun...

Arrazoitzeko
bait-
... -(e)lako
-(e)la eta
-(e)la bide
-t(z)eagatik
Horregatik
Izan ere,
Hori dela eta,
Horrela, ba,
Beraz,
Hortaz,

Indartzea
Aipatu bezala,
Aipatu dugunez,
Berriro esanda,
Beste era batera esanda,
Zehatzago esanda,
Hobeto esanda,
(Gorago) esan bezala,
Are gehiago,
Gainera,
Kontuan hartu,
gainera,

Onarpena (ziurtasuna)
Ez dago dudarik...
Seguruenik
Ziur aski
Zer esanik ez
Egia da... -(e)la
Dudarik gabe
Zalantzarik gabe
Argi dago (e)la
Bistan da (e)la
Beharrezkoa da garbi uztea
..., noski / ..., jakina

Edozein modutan ere,
Edonola ere,
Nolanahi ere,
Esanak esan,
Hori(ek) gorabehera,
..., ordea,
..., berriz,
..., aldiz,

Aipamenak; iritziak emateko
(r)en arabera,
Askoren / Batzuen iritziz,
... (r)en ustez,
(r)en esanetan,
Diotenez,
Antza denez,
Dirudienez,
Badirudi... -(e)la
...(e)la dirudi
Dakigunez,
Irakurri dugunez,

Bukaerakoak eta ondorioak
Amaitzeko, / Bukatzeko,
Amaiera bezala,
Aurreko guztia (Iaburbilduz,)
Ondorío gisa,
Amai dezagun esanez (e)la
Azkenik, zera:...
Laburbilduz,
Hitz gutxitan (esateko):...
Horrenbestez, zenbait ondorio atera daitezke: 1... 2... 3...

Ideia berriak txertatzeko
Ez hori bakarrik,
Bestalde / Beste aldetik
Baita ... ere
Baina, bestetík,
... ere bai
ez ezik ... ere
Egia da, hala ere,
Izan ere

Bigarren eranskina: Egokiro puntuatzeko jarraibideak[7]

Testua edo diskurtsoa egituratzeko tresna garrantzitsuenetako bat da puntuazioa: testua osatzen duten unitateak markatzen ditu, **diskurtsoa ulertzen laguntzeko**. Baina diskurtsoaren egitura ez ezik, esanahia ere definitzen da puntuazioaren bitartez. Azken batean, irakurlearen interpretazioa egokia dela segurtatzea puntuazioaren egiteko nagusia; izan ere, **puntuazio markek irakurlea gidatu behar dute**.

Jarraian, arazo gehien sortzen dituzten puntuazio-markak aztertuko ditugu: koma, puntu eta koma eta bi puntuak.

Koma

Esaldi koordinatuak lotzeko eta esaldi barreneko **eten txikiak** egiteko baliatzen da koma. **Puntuazio markarik konplexuena** da, erabilera gehien duena.

Esanahia argitzen laguntzen du komak:

Lan egiteko, ez lapurretan ibiltzeko aukeratu dute ministro.

Lan egiteko ez, lapurretan ibiltzeko aukeratu dute ministro.

Ez ahaztu, beraz, honako kasu hauetan koma erabiltzea:

- Zerrenda baten elementuak bereizteko:

  Bizkaian, Gipuzkoan, Araban eta Nafarroan egingo dira hurrengo hauteskundeak.

- *Eta abar* esapidearen aurrean ere koma jartzen da, osagaiak labur-laburrak izan ezean:

  Interneteko denda batean sartu eta liburuak, bideoak, arropa **eta abar** eros ditzakezu.

  Biharko batzarrean erabakiko dugu etxebizitza sozial horiek nola banatuko diren, hau da, orain arteko irizpideak jarraituko ditugun, osatu beharrik dagoen, zein epe izango den etxeotan bizitzen hasteko, **eta abar**.

- Deikiekin (mezuetan-eta):

  Kaixo, Ander:

  Agur, Jon:

- Datan, toki-izenaren ondoren:

  Agurain, 2003ko abenduaren 30a

[7] BERRIA estilo liburutik (2006) eta IVAPeko estilo liburutik moldatua (Arakama et al., 2009).

- Tartekiekin eta aposizioekin:

  Komaz txertatzen dugun tartekia erabat lotuta dago esaldiaren egiturari eta edukiari:

  Izangaiek, eskabidearekin batera, honako agiri hau aurkeztu beharko dute [Tartekia].

  Mikel Garmendiak, Hezkuntza eta Kultura sailburuak, aurtengo plangintza aurkeztu dio lehendakariari [Aposizioa].

  - Lokailuekin (*ordea, hala ere, beraz, bestela, nire ustez, dirudienez…*):

  Gobernu batek hartzen dituen erabakiak, **ordea**, epe luzera aztertu behar izaten dira. **Nire iritziz**, parlamentariek ez dute inolako eskaerarik egin.

- Perpaus nagusiaren eta mendekoaren artean:

  Oraindik ez dute argitaratu aurtengo lan-hitzarmena, onartu gabe baitago.

  Nolanahi ere, kontuz! mendekoa nagusiaren aurretik badoa, eta galdegaia bada:

  Oporretatik itzultzen direnean hasiko dira lanak banatzen.

- Mintzagaiaren ondoren, baldin eta aurreratzen badugu sarbidea emateko ondoko aipamenari:

  Kazkabarra, horixe besterik ez genuen behar.

- *Eta, edo…* juntagailuen bidez hitz soilak barik perpausak lotzen badira, jarri koma bi perpausen artean:

  Udalbatzak gaur aztertu ditu aurrekontuak, eta mozioak hurrengo baterako utzi ditu [Komarik gabe beste gauza bat uler daiteke].

- *Bai* edo *ez* batzuk segidan doazenean:

  Gure bulegoan **ez** dago, **ez** ordenagailurik, **ez** inprimagailurik, **ez** deus.

- Aditzaren ordez (elipsia):

  Argia aldizkaria, denetan interesgarriena.

- Kontu handiz ibili, bestaldetik, honakoetan:

  1. Subjektuaren eta aditzaren artean ezin da koma bakarra jarri, bi bai:

  *Auzitegiak, epaia eman zuen atzo.

  Auzitegiak, ezustean, epaia eman zuen atzo.

  2. Aditza eta osagarri zuzena ezin dira komaz banatu:

  *Alkateak esan du, bilera datorren astean egingo dela [Komarik ez]

Puntu eta koma

Puntuak baino eten txikiagoa eta komak baino handiagoa adierazten du puntu eta komak. Hala, puntu eta komaz markaturiko esaldien artean lotura semantiko dago, puntuz bereizitakoen artean baino. Beraz, mailaz maila igoko bagina, koma baino gorago eta puntua baino beherago gelditukо litzateke puntu eta koma;, bi mutur horiek lotzen ditu maiz askotan, eta malgutasuna ematen dio testuari. Honako kasu hauetan erabil daiteke puntu eta koma:

- Esaldiak elkarrekin lotzeko (batzuetan, puntua edo bi puntuak jar litezkeen zenbait tokitan):

Ez zegoen denentzat lekurik; batzar-gela mukuru betea zen.

- Lokailuekin eta aurkaritzako juntagailu batzuekin *(baina…),* esaldiak luzeak direnean; bestela, nahikoa da koma:

Ustez, ez diot egin inori kalte; hala ere, hitzik huts egin badut, barka nazazue.

- Lotu nahi ditugun esaldietako batek koma badu:

Frogak aurkeztu, abokatu jauna; eta ez etorri guregana horrelako koplekin.

- Zenbait testu-antolatzailerekin, enumerazioak-eta egitean, barruan koma badugu:

Deialdian parte hartzeko, honako hauek egin behar dituzu: **batetik**, eskabide-orria idazkaritzan jaso; **bestetik**, orria behar bezala bete; eta, **azkenik**, eskabide-orria eta gainerako agiriak erregistro orokorrean sartu.

Bi puntuak

Bi puntuen bidez, diskurtso eten egiten da, segidan datorrenari nolabaiteko ataria eginez. Gehienetan, bi puntuen atzetik ez da lokailurik erabiltzen. Izan ere, aurrekoaren azalpen, ondorio edota iruzkintzat hartzen da, lokailuak esplizitatu gabe. Ideiak antolatzeko tresna bikaina dira bi puntuak, hortaz. Honako egoeretan, besteak beste, erabiliko ditugu:

- Zerrendei edo adibideei sarrera emateko:

  Hona bildu zirenak: Jose Migel Agirre, alkatea; Jon Urra, zinegotzia; Pello Etxeberria, enpresaburua; eta Itxaso Rodriguez, idazkaria.

- Hitzez hitzeko aipamenei sarrera emateko:

Joxe Ramon Zubimendik eta Pello Esnalek *Idazkera-liburua*-n diotenez: “Hitzez hitzeko aipamenen aurrean bi puntu jartzen dira (ondoren kakotxez eta letra larriz hasten da aipamena)”.

- Aditz nagusia aurreratzeko, esaldia luzea bada:
  Hauxe jakinarazi diete izangaiei: otsailaren 12a baino lehen, aurkeztu behar dituztela Idazkaritzan deialdian zehazten diren agiri guztiak.
- Esaldiak errazteko (irakurleak egin behar ditu egin beharreko lotura semantikoak):
  Ez zegoen denentzat lekurik: batzar-gela mukuru betea zen.
  Ez zegoen denentzat lekurik, mukuru betea baitzen batzar-gela.
- Gutunetako hasierako agurretan. Hurrengo lerroa letra larriz hasten da:
  Lagun hori:
  Uda honetan…
- Orduak zenbakiz adierazten baditugu, bi puntu jartzen dira orduen eta minutuen artean: *12:30, 17:00*... Tarterik ez dago ez bi puntuen aurretik, ez bi puntuen ondoren.